Bergarako Udal artxiboa

# 1936ko GERRA BERGARAN

Intxorta 1937 Kultur Elkartea



Bergarako Udala

Argitaratzailea:

Bergarako Udala

Laguntzailea:

Gipuzkoako Foru Aldundia

1936ko GERRA BERGARAN
© Edizioarena / De la edición: Bergarako Udala / Ayuntamiento de Bergara
© Testuena / Texto: Intxorta 1937 Kultur Elkartea

Egilea / Autor: Intxorta 1937 Kultur Elkartea
Argitaratzailea: Bergarako Udala

Juan Ramon Garaik eta Josuren Murgizuk idatzita
Arantza Otaduy eta Ekaitz Etxezarretaren lankidetza

Diseinua eta Maketazioa / Diseño y maquetación: www.arteman.eus

Eskubide guztiak gordeta. Liburu hau, doan, norbere ordenagailura deskargatu daiteke, baina liburu honen testuak eta bertako argazki bat bera ere ezin ba beste inon berragertu, ez zatika, ez osorik. Hori egin nahi duenak, derrigorrezkoa du Bergarako udalaren baimena, egilearena, argazkilariena edo argazki-jabeena eskuetan izatea eta iturria aipatzea.

D.L./L.G.: SS 252-2015

Argazkiak/ Fotografías:

1. Bergarako Udal Artxiboko dokumentuen digitalizazioak:
   BUA, 02 C/0540-08, 02 C/0504-09, 02 C/0505-01
   BUA, 00 C/001-21
   BUA, 02 C/0073-34
   BUA, 02 C/2917-01
   BUA, 02 C/0935-05
2. Bergarako Udal Artxiboko bilduma. Kultura departamentuko bilduma. Egilea: Ezezaguna. R. 000398
3. Bergarako Udal Artxiboko bilduma. Javier Linacisoro Lazpiurrek utzitako kopia. Egilea: Ezezaguna. R. 026777
4. Bergarako Udal Artxiboko bilduma. Lide Oregik utzitako kopia. Egilea: Ezezaguna. R. 027117
5. Bergarako Udal Artxiboa. Toribio Jauregi fondoa. Egilea: Toribio Jauregi. R. 100561, R. 100538, R. 100222, R. 100795, R. 100273, R. 100062, R. 102067
6. Bergarako Udal Artxiboa. Valleko kontearen fondoa. José Manuel Yrizarrrek emandakoak. Egileak: Ezezagunak. R. 053446, R. 053449, R. 053448

Bergarako Udal artxiboa

Kolore hau

duten hitzak sakatuta,
liburuko barruko estekak
(oinak, dokumentuak...)

Kolore hau

duten hitzak sakatuta,
interneteko estekak.

Bergarako Udal artxiboa

## HITZAURREA

# Kolpe militarra Bergaran

Maiz, gerra eta antzeko giza krudelkeriaz hitz egiten dugunean, pentsatzen dugu gure ondorengoek ondorioak ezagutu ditzaten egiten dugula eta, horrela da, bai, nolabaiteko praktikotasuna eman nahi diogu zentzugabekeriaren errelato horri, *behintzat beste iñori ez dakixola gertatu horrelakorik*... esanez justifikatzen dugu geure burua.

Horrela izanik ere, iruditzen zait hori ez dela kontaketaren helbururik garrantzitsuena; nahiz eta geure buruari aitortu nahi ez izan, pentsatzen dut helburu nagusiena barrenak hustuz minak osatzea dela. Mina handiegia denean saihestu egiten dugu hari buruz hitz egitea, mina gogoratzeak mina dakarrelako eta ez dugulako nahi gehiago sufritzea. Gertatutakoa kontatzeko ahalmenak oinazearen apaltzea adierazten du.

Gure gurasoek, aitona-amonek gerra eta gerra ostea bizi izan ondoren urte luzeetan iraganean bizi izandako oroitzapenak gordeta izan zituzten, gizarteratu gabe, sarritan famili artean ere ez. Galtzaileak isilik! eta garbatuta... Botere politikoa eta erlijiosoak, berriz, isiltasun eta damu horiek etengabe elikatzen.

Kontaketak berak barrenean darabilzkigun ideiak hautatu, jerarkizatu eta modu koherentean azaltzera eramaten gaitu. Domeka bazkalosteetako kontaketa batzuetan gozo —inoiz barregarriak ere bai— baina gehienetan gaziak horrela argituta ikusteak poztu egiten gaitu; sendabidean gauden zantzuak hartzen dizkiot.

Lanketa isila eta luzearen emaitza dugu eskuartean, gizarte justuago baten bidean urrats bat gehiago. Bakarkako hausnarketa hauek ahalbideratu eta guztiokin konpartitzeko moduan jarri dituelako esker berezia adierazi behar diogu Intxorta taldeari.

Eta beraien bizipenak gurekin elkarbanatzeko esfortzua egin duten lekukoei adierazi nahi diegu pozten garela mina gainditzeko borroka irabazi dutelako.

Bejondeigula danoi!

***Jaione Isazelaia***
*Bergarako alkatea*

Bergarako Udal artxiboa

AURKIBIDEA

**1. SARRERA ....... 7**

**2. II. ERREPUBLIKA ....... 11**
2.1. Euskal estatutuaren plebiszitua ....... 16
2.2. Lan mundua Bergaran ....... 18
2.3. Errepublikaren laizismoaren aurka ....... 20
2.3.1. Aritznoa Euzko Ikastola ....... 21
2.4. Udalen autonomiaren aurkako neurria ....... 23
2.5. 1934ko Iraultza saiakera ....... 26
2.6. 1936ko Udal Hauteskundeak ....... 29

**3. GERRA GARAIA ....... 33**
3.1. Errepublikaren defentsarako batzordea ....... 36
3.2. Matxinatuak Bergaran ....... 41
3.2.1. Udalbatza berria ....... 42
3.2.2. Ihesak, fusilamenduak eta garbiketak (depurazioak) ....... 42
3.3. Udalaren jarrera ....... 46
3.4. Gerrako Frontea ....... 50
3.4.1. Borroka-lerroko bergararrak ....... 50
3.4.2. Basalgoko pasadizoa ....... 57
3.4.3. Bergara matxinatuen kokaleku ....... 58
3.4.4. Enpresa militarizatuak ....... 62
3.4.5. Gerra-amaiera ....... 63

Bergarako Udal artxiboa

AURKIBIDEA

**4. GERRA ONDORIOAK** ....69
4.1. Gerrak utzitako heriotza ....70
4.2. Kartzela eta heriotza-zigorrak ....75
4.2.1. Gurseko eremua ....79
4.2.2. Langile Batailoiak ....80
4.3. Ondasunen bahiturak ....81
4.4. Elizarekiko errepresioa ....84
4.5. Gerrako umeak ....85

**5. GERRA OSTEA** ....93

**6. BIBLIOGRAFIA ETA ITURRIAK** ....96
6.1. Bibliografia ....97
6.2. Artxibategiak ....98
6.3. Bestelakoak ....100
6.4. Ahozko iturriak ....100

**7. AURKIBIDE ONOMASTIKOA** ....104

Bergarako Udal artxiboa

# 1

# SARRERA

Bergarako Udal artxiboa

I*ntxorta 1937* kultur elkarteak urteak daramatza 36ko Gerrak Debagoieneko herrietara ekarri zuen hondamendia eta zorigaitza ikertzen. 1986. urtean hasten du ibilbidea Arrasaten. Gaur egunera arte hainbat liburu eta ikus-entzunezko argitaratzeaz gain, hainbat erakusketa ere antolatu ditu gai honen inguruan bailarako herri guztietan.

Bistan duzuen lan honen helburu nagusia izan da Bergaran 1936an hasitako gerran gertatutakoa argitzea. Argi adieraziz oroitzeko eskubidea ez zigutela kendu eta ez digutela kendu behar ere. Lan honen emaitza nagusiena izan da gerrak sortutako hildako bergararren memoria berreskuratzea, lan honekin herriko historia ahaztu ez dadila bermatzea eta gerra bizi izan zuten guztien oroitzapenak gure gizartea baketzeko tresna bihurtzea. Egindako bidea gai hau iluntasunetik ateratzeko lehen urratsa dela uste dugu, ondoren etorriko diren ikerketei oinarri bat finkatuz. Esan beharra daukagu Gerra Ondorioak atalean ageri diren zerrendak behin-behinekoak direla, eta etorkizunean egingo diren beste ikerketa batzuekin balioztatuko direla.

Ikerketa honi esker, Bergaran 1930. eta 1940. urteen artean gertatutakoan, orain arte egin ez bezala, sakondu da. Lehenik eta behin, II. Errepublikari dagokion atalean murgiltzen gara. Hemen, garaiko kontestuan kokatzeaz aparte, gatazkaren aurrekariak gureganatuko ditugu. Alde batetik, garaiko hauteskundeen emaitzak eta udal partaideak nortzuk ziren jakinaraziko dugu; bestetik, aztertuko ditugu udal korporazioaren dimisioa, alkatearen atxilotzea, 1934ko urrian gertatutako iraultza-saiakera, euskararen eta hezkuntzaren egoera, alderdi politiko eta sindikatu desberdinen eskaerak eta abar. II. Errepublikaren garaiko testuingurua, alegia.

Hirugarren atalean, Gerra garaia izenekoan, gerra Bergarara iritsi zen unea azalduko dugu. Aipatuko ditugu lehen miliziak, Errepublikaren Defentsarako Batzordea, herritik ihes egindakoak, matxinatuek osatu zuten udal gobernu berria, Bergarako demografian gatazkak eragin zituen astindua eta herritarrek sufritu zuten errepresioa, Aritznoa ikastolarena kasu.

Laugarren blokean, aurreko atalean gertatutako hondamenaren ondorioak azaleratuko dira. Hor aztertuko dira gudan hildako, fusilatu, atxilotu eta zaurituak, frankismoaren hastapenean galtzaileen aurka hartutako neurriak: errepresio judiziala, ondasunen bahiketa, auziperatuak, zigorrak, elizgizonen aurkako errepresioa… Hau guztia erabat dokumentatutako zerrendetan aurkezten da.

Lan hau egitea baliatu digun oinarri dokumentala hainbat lekutan aurkitu dugu. Batetik, 36ko gerra aztertzen duen bibliografia klasikoa erabiltzeaz gain, hainbat hemeroteka eta artxibategi bisitatu ditugu, garaian idatzitako dokumentazioaren bila. Bestetik, *Intxorta 1937* kultur elkarteak eta *Ondo Bihurtu* taldeak aurretik elkarrizketatutako hainbat herritarren lekukotza izan da informazio iturri aberatsenetako bat. Lekukotasun horiek lortzeko orduan, oso lagungarriak izan dira Bergarako 1936ko gerra ardatz direla antolatu diren erakusketak. Lehena, 1998an, *Ondo Bihurtu* taldeak antolatuta; eta bigarrena, 2012an, *Intxorta 1937* kultur elkartearen eta Bergarako Udal Artxiboaren artean antolatutakoa. Lehen emaitza *Bergara 1936. Gerra eta Errepresioa* ikus-entzunezkoan islatu zen, 2013ko uztailean. Bibliografiaren eta iturrien xehetasun osoa lanaren amaieran ikusi ahal izango duzue.

Lan honen helburua da gatazka historiko honek eragin zuen triskantza eta haustura zintzotasunez azaltzea, euskal gizarteak gerrako galtzaileekiko duen zorra argituz eta liskarraren irabazleen zein

Bergarako Udal artxiboa

galtzaileen parte hartzea deskribatuz. Ez baitugu nahi etorkizunean horrelakorik gertatzerik.

Gerra galdu zuten biktimen egia, justizia, nolabaiteko kalte-ordaina eta sufritu dutena ez errepikatzeko bermea ez da inolaz gauzatu; ez baita inolako borondate politikorik existitu, frankismoaren inpunitatea oraindik ere martxan baitago. Esperientziak erakusten digu ahaztu egiten dena errepikatu egiten dela. Gure ustez, iraganaren berri jakitea osasungarria da, iragana gogora ekarriz oraina aldatu dezakegulako.

Frankistek eta beren oinordekoek ahaztu egin behar dela diotenean, eta biktima batzuekin bakarrik gogoratzen direnean, biktima guztiak berdin tratatu behar direlako errebindikazioa sortzen zaigu gure barnean. Legearen aurrean, herritarrek berdintasuna izateko dugun giza eskubidea aldarrikatuz. Kean Loachek dioskun bezala: *"Iraganari buruz egia esaten baldin badugu, akaso gauza izango gara orainari buruzko egia esateko"*[1].

Eskerrak eman nahi dizkiegu lan hau burutzen lagundu diguten erakunde eta pertsona guztiei, batez ere elkarrizketatuak izan diren herritarrei, eta baita Bergarako Udalari eta bertan dagoen agiritegiko langileei ere.

Une honetan, bereziki gogoratzen ditugu gerran hildako bergararrak eta bizi guztiko borrokalari diren Maria Oyanguren, Pedrotxo Garcia, Agustin Unzurrunzaga, Lino Lazcano eta Josuren Gabilondo, Euskal Herriaren nortasun eta justizia sozialaren aldeko defentsan egindakoagatik.

Bergarako Udal artxiboa

1 http://arainfo.org/2013/09/redescubriendo-a-ken-loach/

Bergarako Udal artxiboa

2

# II. ERREPUBLIKA

Bergarako Udal artxiboa

Gure gizarteak bizi izan duen gatazka bortitzena ulertzeko, ezinbestekoa da aurreko urteetan gertatutakoa ulertzea. Gerra ez zen bat-batean piztu, gatazka armatuak aurrekari batzuk izan zituen. Hauek ondo ulertzeko, XX. mendeko 30. hamarkada hasierako gertaerak ezagutu behar dira; Espainian, Miguel Primo de Riveraren diktadura amaitutzat eman zen unetik aurrerakoak, hain zuzen ere.

Donostiako Union Republikanaren egoitzan, Fernando Sasiain alkate zela, 1930eko abuztuaren 17an elkartu ziren Estatuko alderdi errepublikazale askotako partaideak:

*"En el domicilio social de la Unión Republicana, bajo la presidencia de don Fernando Sasiaín, se reunieron esta tarde don Alejandro Lerroux y don Manuel Azaña, por la Alianza Republicana; don Marcelino Domingo, don Álvaro Albornoz y don Ángel Galarza, por el Partido Republicano Radical-Socialista, y don Niceto Alcalá Zamora y don Miguel Maura por la Derecha Liberal Republicana; don Manuel Carrasco Formiguera, por Acció Catalana; don Matías Mallol Bosch, por la Acción Republicana de Catalunya; don Jaime Aiguadé, por "Estat Catalá", y don Santiago Casares Quiroga, por la Federación Republicana Gallega, entidades que juntamente con el Partido Federal Español -el cual, en espera de acuerdo de su próximo Congreso, no puede enviar ninguna delegación- integran la totalidad de los elementos republicanos del país.*

*A esta reunión asistieron también, invitados con carácter personal, don Felipe Sánchez Román, don Eduardo Ortega y Gasset y don Indalecio Prieto"* [2] .

Alfontso XIII.a erregearen jarrerarekin gogaituta, 1930ean Donostiako Ituna izenekoa sinatu zuten. Itun honek aldaketa garrantzitsuak eragin zituen Estatuko egitura politikoan. Sentimendu errepublikazalea handitzen zihoan heinean, erregearen indarra gero eta gutxiagokoa zen. Jacan, 1930eko abenduaren 12an bultzatu zen gero huts egin zuen errepublikaren aldeko pronuntziamendu militarra. Galan eta Garcia Hernandez, altxamenduaren buruzagi militarrak, fusilatu egin zituzten abenduaren 14an, eta soldadu asko atxilotu eta derrigortuta lekualdatu zituzten"[3]. Horren ondorioz, protestako grebak egin ziren abenduaren 30ean [4].

1931ko apirilaren 12ko udal hauteskundeetan errepublikaren aldeko alderdiak gailentzean, Espainiako erakundeen antolaketa kolokan jarri zen. Indar monarkikoen porrotak Alfontso XIII.aren[5] erbestea suposatu zuen, eta apirilaren 14an II. Errepublika aldarrikatu zen. Une hartan, Bergarak 9.307 biztanle zituen eta Debagoieneko herri populatuena zen.

Herri mailan, 2.046 hauteslek zuten hauteskunde haietan parte hartzeko eskubidea; 25 urtetik gorako gizonezkoek, hain zuzen ere. Bergararrek 17 zinegotzi aukeratu behar zituzten. Gizonezkoen gehiengoak hartu zuen parte bozketan, % 83,48ko partaidetza izan baitzen 1.701 boto jasota.

EAJ-PNV izan zen alderdirik bozkatuena, 885 boto jasotzean. Katoliko-monarkiazaleek 646 boto lortu zituzten, eta errepublikanoek 170. Ondorioz, Udalbatzan zinegotzi gehien izan zituen alderdia EAJ izan zen, 10 zinegotzirekin, eta ondoren monarkiazaleak 7 zinegotzirekin. Errepublikanoek ez zuten zinegotzirik lortu.

**1931ko udal hauteskundeak**

| Alderdia | Boto kopurua | %tan | Zinegotzi kopurua |
|---|---|---|---|
| EAJ-PNV | 885 | 52 | 10 |
| Monarkikoak | 646 | 38 | 7 |
| Errepublikanoak | 170 | 10 | 0 |

Bergarako Udal artxiboa

Luis Ruiz de la Prada aurreko alkate monarkikoak kargua utzi beharra izan zuen; horren ordez, Victor Ignacio Zubizarreta EAJko ordezkaria izendatu zuten alkate, 8 boto zuri eta aldeko 9 boto lortzean.

Apirilaren 15ean, lehen osoko bilkura ospatu zen; bertan, udalak jeltzaleen mozio bat onartu zuen zinegotzi guztien aldeko botoekin. Jeronimo Azcarate zinegotziak aurkeztu zuen proposamena: *"En este momento histórico en que vemos afortunadamente desaparecido el régimen que destruyó nuestra libertad política ante el hecho de la nueva estructuración del Estado español la representación nacionalista vasca de este Ayuntamiento, después de afirmar los derechos naturales históricos que por su carácter de Nación corresponden al País Vasco, reclama como primera auto-determinación de dicho país la proclamación de la República Vasca confederada con las demás repúblicas ibéricas. A tal fin significa su enérgico apoyo hacia quienes en tierra vasca pugnan por la realización de cuanto en esta orden se estableció en el solemne pacto de Donostia"*[6]. Hauxe izan zen Euskal Herriko autodeterminazioaren aldeko lehen ekintza.

Monarkiaren desagerpenarekin batera, beste aldaketa batzuk etorri ziren, besteak beste kaleen izenen aldaketa. Casino Republicano erakundeak udalean idatzi bat aurkeztu zuen esanez: "*habiendo cambiado la institución en España, se de el nombre de Paseo de la República al llamado paseo del Espolón, que hasta el día 16 de abril se denominó con el de una persona del régimen derrocado*". Elkarte berak gainera I. Errepublikan lehendakari izandako bat ere omendu nahi izan zuen, "*el gran pensador don Francisco Pí y Margall* que *difundió por toda España sus doctrinas que benefician grandemente al País Vasco y teniendo en cuenta que habitó esta villa*", eta hura bizi izan zen kaleari haren izena jartzea proposatu zuten[7].


DONOSTIAKO UDAL LIBURUTEGIA - BIBLIOTECA MUNICIPAL DE SAN SEBASTIAN

LA CONSTANCIA

DIARIO INTEGRO-TRADICIONALISTA

GUIPUZCOA SE HA PORTADO

La candidatura derechista obtuvo una mayoría de once mil votos sobre la de las izquierdas

Los pueblos de la Provincia, excepto San Sebastián, Irún, Eibar, Pasajes y Beasain, votan con una gran mayoría por la primera. Especialmente los pueblos del distrito de Azpeitia vuelcan el censo a su favor. Los lamentables sucesos de Tolosa y Vergara.

La elección en San Sebastián

Resultado general en toda la provincia de Guipúzcoa. Detalles interesantes

EL DIA DE LA PRENSA CATOLICA

Un hermoso sermón de don David Esnal

**La Constancia egunkarian 1931ko haueskundeei buruzko berria.**
*Donostiako Udal Liburutegia*

Bergarako Udal artxiboa

Errepublika sortu eta bi hilabete eta erdira, ekainaren 28an, egin ziren Diputatuen Kongresua osatzeko hauteskundeak. Artean ere, 25 urtetik gorako gizonezkoek soilik zuten boto-eskubidea. Hauteskundeetan lehiatzen ari ziren bi bloke nagusiek kaleetan ere borrokatu zuten. Indarkeriazko gertaerak izan ziren alde bietako jarraitzaileen artean. Bergaran esaterako, Migel Aranburu tradizionalista erail zuten.

Ekainaren 28an jendetza ugari bildu zen Bergaran, besteak beste Eibartik etorritako sozialista talde bat. Instrukzioko epaileak 1932ko maiatzean jakinarazi zuenez, egun hartan: "*Se verificaron las elecciones a Diputados a Cortes Constituyentes. A distintas horas de la mañana de dicho día y con el pretexto anunciado ya con anterioridad de garantizar la pureza de sufragio y sin que en Colegio electoral alguno se hubiera dado motivo que justificara su intervención, toda vez que la elección iba deslizándose en todas las secciones ordenadamente y sin incidente de ningún género, presentáronse en la villa en varios coches cincuenta o sesenta individuos, procedentes de Eibar, quienes desde el primer momento hicieron pensar a todo el vecindario, por su actitud provocativa y por las armas cortas que mostraban a sus adversarios que el único y exclusivo objeto que les había traído a Vergara era el de promover un conflicto público. El primer incidente a que dio lugar la presencia y actuación de esos elementos se ocasionó en la plaza de don Juan de Irazabal por haber hecho alarde uno de esos individuos de la pistola con la que venía armado, incidente que terminó al caérsele dicha arma al suelo y ser recogida por algunos vecinos quienes hicieron entrega de ella a la Fuerza de Miquelete, que en aquel momento se hallaba próxima al lugar del suceso. Esta alcaldía hizo reiteradas gestiones cerca del sr. Gobernador y de los dirigentes del Círculo Republicano local para que por la vía amistosa recomendara a los referidos individuos desalojaran inmediatamente la población en evitación de nuevos, inminentes y más graves conflictos que por los indicados motivos pudieran suscitarse, a pesar de lo cual continuaron los mismos interviniendo en igual forma que hasta entonces. A eso de las dos y media de la tarde e inmediatamente de haber sido arengados desde el quiosco del paseo del Espolón por uno de los que lo formaban, el grupo de pistoleros a que antes se ha hecho referencia, hicieron aquellos irrupción en la Plaza de San Martín de Aguirre, en la que en término de un cuarto de hora efectuaron disparos de arma corta en número aproximado de setenta u ochenta. Uno de ellos hirió mortalmente al vecino de esta villa Miguel Aramburu Aranzasti, quien falleció a los pocos minutos de haber caído en tierra, por rotura de la arteria femoral. Las masas, excitadas e indignadas por este acto y con el objeto, al parecer, de impedir la evasión de los culpables, dieron fuego a uno de los coches venidos de Eibar*"[8]. Dirudienez, bergararrek haserrearen eraginez erre zuten autobusa *Garaje Eibarres* enpresarena zen.

Bergararren lintxamendutik babesteko, Guardia Zibilak *Casino Republicano* zeritzona zaindu behar izan zuen, bertan ezkutatu baitziren Aramburu erail zuten eibartar sozialistak. *La Constancia*k egun hartan gertatutakoa jaso zuen: "*Muchos eibarreses intentaron ir a Eibar, pero se consiguió evitar ese dezplazamiento. Después del atardecer los eibarreses que estaban en Bergara fueron protegidos por la Guardia Civil de el Alto y Bajo Deba para que regresaran a Eibar*" [9].

Udalbatza arratsaldeko 7etan bildu zen eta, gertatutakoaren garrantzia kontuan izanik, alkateak honakoa deklaratu zuen: "*… el señor alcalde refiriéndose a los gravísimos y dolorosos incidentes promovidos hoy en esta villa con motivo de la celebración de las elecciones de*

Bergarako Udal artxiboa

*Diputados a Cortes Constituyentes por un grupo de cuarenta o cincuenta individuos armados llegados a Vergara por la mañana procedentes de Eibar con el único y exclusivo objeto de promover un conflicto público en el curso de uno los cuales ha sido asesinado alevosamente un honrado padre de familia, vecino de Vergara, Miguel Aramburu Aranzasti,, e interpretando el justo y unánime sentir de todo el pueblo propuso la adopción de los siguientes acuerdos:*

Que conste en acta el sentimiento más hondo de la Corporación por la muerte del Sr. Aramburu,.

Concurrir en Corporación a la conducción de su cadáver al Cementerio y a los oficios fúnebres que han de celebrarse en la Parroquia de Santa Marina en sufragio de su alma, disponiendo así bien que al primero de dichos actos asista la Banda Municipal.

Abrir una suscripción en favor de la viuda y de los hijos del finado, encabezándola con la cantidad de quinientas pesetas pagadera de improviso y facultar a la Comisión de Gobernación para que (han de) se encargue de recibir los donativos y de determinar la forma en que han ser distribuidos.

Hacer constar en acta la protesta más enérgica del ayuntamiento contra la actuación del Exmo. Sr. Gobernador Civil de Guipúzcoa y de la fuerza pública por la negligencia con que ambos procedieron.

Todas estas proposiciones del sr. Presidente fueron aprobadas por unanimidad.

Acto seguido el Sr. Monzón propuso que la protesta se dirigiese también contra los que en actitud amenazadora y provocativa dieron lugar a los sucesos y para todos los que siendo vecinos de Vergara o extraños a la villa fueron responsables de los mismos, agregando que suponía que sería el pueblo de Eibar el primero en lamentarlo, gesto que el Ayuntamiento agradecería muy vivamente. Pidió que el Ayuntamiento transmitiera a la viuda e hijos del infortunado Aramburu, el pésame más sentido y terminó haciendo constar que esta Corporación Municipal permanecerá en su puesto sin perder la serenidad un solo momento, velando por la dignidad, el buen nombre de Vergara y nosotros –dijo- particularmente cada vez más firmes en defender, tolerantes y respetuosos con todos los ideales.

El ayuntamiento enterado de estas manifestaciones acordó por unanimidad hacerlas constar en acta y aprobar todas las proposiciones hechas por el sr. Monzón.

Además quedó enterado de las comunicaciones de condolencia y protesta enviadas por el Círculo Católico de Placencia y Junta Municipal, Batzoki, Euzko Gastedija y Emakume Abertzale Batza de Eibar, acordándose expresar a dichas entidades la gratitud más efusiva y cordial del Ayuntamiento” [10].

Migel Aranburu, Bergarako Udaleko suhiltzailea zen. Haren hileta-elizkizunak hilaren 29an ospatu ziren eta jendetza ugari bildu zuten: “*El día de ayer amaneció Vergara extraordinariamente animada. De todos los puntos de la provincia acudía gente que deseaba asistir a los actos fúnebres de Don Miguel Aramburu,. Los diputados electos Picavea, Leizaola y Urquijo llegaron a las 8 y media de la mañana. Fueron recibidos en el Ayuntamiento por la Corporación Municipal.*

*Desde el edificio municipal se organizó una manifestación hasta la iglesia la Parroquia de Santa Marina. A la vuelta al ayuntamiento desde sus balcones dirigieron la palabra en vascuence Telesforo de Monzón, concejal nacionalista, Jesús María de Leizaola, diputado nacionalista Carlos Linazasoro “ Altzeta” de Zumaya y Pagoaga de Mondragón y, finalmente José Antonio Aguirre quien habló en castellano*”[11].

Bergarako Udal artxiboa

Alkateak agindu bezala, hurrengo hilabeteetan AramburuPren familiaren aldeko diru-bilketa egin zen. Alkateak herritarrek emandako dirua bildu zuen, horien artean: "*Policarpo Barrena le ha hecho entrega de 382,50 pts. con destino a la suscripción abierta en favor de la viuda de hijos de Miguel Aramburu Aranzasti, (q.e.p.d.) de las que 282,50 han sido remitidas por Acción Nacionalista Vasca de Buenos Aires y las 100 pts. restantes por el sr. Araluce, miembro de Bizcai Buru Batzarra*"[12]. Aramburuen alargun eta seme-alabei laguntzeko asmotan, hainbat udalek ere batu zuten dirua: Leintz Gatzaga, Villaro, Los Arcos, Gares, Mundaka[13] eta Aranguren[14]. Udalez gain, *Almacenes Zabaleta*[15] enpresak 399 pezeta entregatu zituen, eta *Euzkadi* egunkariak 530 [16].

Estatu osoan errepublikanoen eta sozialisten arteko koalizioak irabazi baldin bazuen ere, Bergaran emaitzak oso bestelakoak izan ziren. Bi koalizio aurkeztu ziren. Alde batetik, eskuindar koalizioa, Lizarrako Estatutuaren Aldekoa, EAJ-PNVk eta Karlistek osatzen zutena. Ezkertiar koalizioa, berriz, alderdi errepublikanoek, sozialistak eta ANVk osatzen zuten.

Emaitza honako hau izan zen: eskuindar koalizioak 1357 boto; eta ezkertiarrak, berriz, 575 [17].

**Gorteetako diputatuak aukeratzeko hauteskundeak 1931/06/28**

| | Bergara | Arrasate | Eibar | Gipuzkoa | Bizkaia | Araba | Nafarroa |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Eskuina | 1357 | 902 | 4470 | 36074 | 45824 | 12340 | 37483 |
| Ezkerra | 575 | 590 | 10250 | 25475 | 37537 | 8455 | 19483 |

Bergarako Udal artxiboa

## 2.1. Euskal estatutuaren plebiszitua

Errepublikarekin batera, estatua osatzen zuten lurraldeen burujabetasun aldarrikapenak azaleratu ziren, 1931n Euskal Estatutuaren ingurukoa tartean. Bergarako Udalak hasietarik Estatutuaren aldeko jarrera izan zuen. Horrela, 1931ko abuztuaren 4an, Udalbatzaren aktan honako hau jaso zen: "*Visto el informe que la Comisión de Gobernación emite con respecto al proyecto de Estatuto general de Estado Vasco-Navarro enmendado por la Ponencia nombrada por las Comisiones Gestoras de las Provincias de Vizcaya, Guipúzcoa, Álava y Navarra, con sujeción a las modificaciones que acordaron introducir las referidas comisiones en la reunión celebrada en el Palacio provincial el día 21 de junio último, que el sr. presidente de la Comisión Gestora, remite "por si después de examinado, estima conveniente el Ayuntamiento prestarle su aprobación", acordó no haber lugar a deliberar acerca de dicho proyecto, toda vez que la Corporación Municipal de Vergara tiene dadas su conformidad y aprobación al Estatuto formado en Asamblea de Estella*" [18].

Gorte Konstituziogileek ez zuten onartu. 1932ko urtarrilaren 19ko osoko bilkuran, udalak estatutua berretsi zuen: "*Por un solo Estatuto para las cuatro provincias*" [19]. Nafarroako udalerriek, ordea, ez zuten estatutu horrekin bat egin nahi. Bergarako alkateak, 1932ko ekainaren 26ko osoko bilkuran, Iruñean gertatutakoaren berri eman zuen: "*el alcalde dio cuenta a los reunidos, aunque les suponía enterados por la prensa de lo ocurrido, de la Asamblea celebrada el domingo último en Pamplona a la que asistió como representante de este Municipio votando a favor del Estatuto Vasco-Navarro, el cual no fue aprobado por la oposición de la mayoría de los Municipios navarros.*

A propuesta del sr. alcalde y por el voto unánime de los asistentes se acordó hacer constar en acta el sentimiento de la corporación por no haber sido aprobado el citado Estatuto Vasco-Navarro" [20].

Errepublikaren lehenengo bi urteetan, Katalunian egin zenaren antzera, Euskal Herriak ere bere Autonomia Estatutua eskuratu gura izan zuen. Baina lorpenak oso desberdinak izan ziren; kataluniarrek, indar eta batasun gehiago erakutsiz, euren estatutua erdietsi zuten.

Hemen ordea, zatiketa gehiago egon zen eta eliza katolikoaren jarrerak asko baldintzatu zuen azken emaitza. Gai honetan eta hasierako sasoi hartan EAJkoek tradizionalistekin anaituta jardun zuten. Lizarrako Estatutu gisa izendatutako saiakera hark, gorabehera ugari izan eta gero, galdeketa publikoa jasan zuen 1933ko azaroaren 5eko plebiszituan. Hiru euskal probintzietan bakarrik gauzatu ahal izan zen, Nafarroa modu arraro eta eztabaidagarrian prozesu horretatik kanpo geratu baitzen.

Hauteskunde-prozesuak bi berrikuntza nagusi ekarri zituen. Alde batetik, emakumeei bozkatzeko eskubidea onartu zitzaien; eta bestetik, parte hartzeko adina 25 urtetik 23ra jaitsi zen.

Gipuzkoa, Bizkai eta Araban jasotako emaitzetan, 426.200 pertsonak estatutuaren alde bozkatu zuten, 14.196k kontrako botoa eman zuten, eta 63.951 abstenitu egin ziren.[21]

Bergaran, legediaren aldaketak medio, hauteskunde errolda 2.046 pertsonatatik 5.154tara igo zen, eta lortutako emaitzak honako hauek izan ziren: Estatutuaren aldeko botoak 4.875 (% 94,59), kontrako botoak 13 (% 0,25) eta abstentzioak 279 (% 5,41).

**Euskal Estatutuaren bozketa**

| | |
|---|---|
| Aldeko botoak | 4875 |
| Kontrako botoak | 13 |
| Abstentzioa | 279 |

Bergarako Udalak, 1933ko azaroaren 11n, plebiszituaren emaitzak baloratu eta aho batez onartu zituen: "*Hacer constar en acta la satisfacción de la Corporación por el éxito obtenido y su agradecimiento al vecindario por su ejemplar conducta, acudiendo a depositar en las urnas su voto a favor de Estatuto y en especial a los extraños al País que laboraron con entusiasmo por su consecución*" [22].

Euskal gizartearen gehiengoaren bermea izan arren, egun batzuetara azaroaren 19an hauteskunde-emaitzek zentro-eskuinari eman zioten boterea. Gobernu-aldaketak zirela-eta, euskal estatutuak ez zuen aurrera egiterik izan. Gaia alde batera utzi zen Fronte Popularrak Espainiako Gobernua eskuratu arte. Orduan, 1936ko udaberrian, ekin zieten berriro ere estatutua garatzeko lanei.

Euskal Estatutua gerra hasi eta gero onartu zen, 1936ko urriaren batean. "*El 1 de octrubre de 1936 se reunierón en Madrid las cortes del Frente Popular. El portavoz nacionalista, Aguirre, resaltó en su discurso la posición de su partido contra el fascismo y el imperialismo en base a los principios cristianos defendidos por el nacionalismo vasco. Tras la lectura del texto el Estatuto Vasco (Estatuto de Elgeta bezela ezaguna) fue aprobado por aclamación*" [23]. Ordurako Gipuzkoa eta Araba ia osoa altxatutako militarren mendean zeuden. Egun batzuk geroago, 1936ko urriaren 7an, Gernikan, lehen Eusko Jaurlaritza sortu zuten, Jose Antonio Aguirre Lecube zelarik lehendakari [24].

Bergarako Udal artxiboa

## 2.2. Lan mundua Bergaran

XX. mende hasieran Bergaran kokatzen ziren enpresa garrantzitsuenak siderurgia eta ehungintza sektorekoak ziren; alde batetik *Unión Cerrajera*, eta bestetik *Algodonera de San Antonio*. Bi horien bultzadari esker, beste enpresa txiki asko sortu ziren. Datuen arabera, 1931. urtean, gutxienez 30 enpresa zeuden Bergaran, langileetako asko emakumeak zirelarik. Orain arte esan denez, 1.540 langile bergarar ziren urte honetan Bergaran; ikerketa-lan honetan zenbatutakoak, ordea, gehiago dira, 1.591 langile alajaina, horietatik 476 emakumeak zirelarik [25].

**Bergarako langileak. 1931**

| Enpresa | Langileak | Emakumeak |
|---|---|---|
| Unión Cerrajera | 599 | 3[26] |
| Algodonera San Antonio | 231 | 155 |
| Movilla Fernández y Cía | 165 | 98 |
| Arteche Hermanos | 86 | 74 |
| Textil Lasagabaster | 58 | 35 |
| Aranzabal Mendiola y Cía | 58 | 40 |
| Oregui Unzurrunzaga y Cía | 52 | 33 |
| Alcorta y Cía | 44 | 22 |
| Udaleko langileak | 41 | |
| Pedro Otazua | 38 | 19 |
| Marcelo Arregui | 36 | |
| Jose Lazpiur | 29 | |
| Guisasola Hermanos | 23 | |
| Ferrocarril Vasco Navarro | 20 | |
| Jose Zabala Iraeta | 2 | |
| Pablo Aperribay | 4 | |
| Gregorio Eguren | 3 | |
| Echeverría y Cía | 5 | |
| La Tipográfica S. L. | 11 | |
| Hijos de Joaquín Osinaga | 7 | |
| Claudio Ayastuy | 5 | |
| Nazario Zabaleta | 5 | |
| Sastreria Mugica | 7 | |
| Hijos de D. Garitano | 10 | |
| Elgarresta y Cía | 6 | |
| Cesareo Maiztegui | 11 | |
| Hijos de Guillermo Echeverría | 8 | |
| Viuda de Pablo Ugalde | 7 | |
| Leonardo Amenabar | 5 | |
| Sobrinos de Matías Lasa | 9 | |
| Casimiro Telleriarte | 6 | |
| GUZTIRA | 1591 | 479 |

Euren eskubideak defendatu ahal izateko, langileak sindikatuetan eta nagusiak patronaletan antolatu ohi ziren. Gerra aurretik, honako hauek ziren herrian zeuden sindikatu eta patronalak:

**Sindicato Metalúrgico de Bergara, UGT**

Erakunde horren egoitza Barrenkaleko 21. zenbakiko lehenengoan zegoen. Silvio Garcia zen 1931n lehendakari. Hiru urte geroago, honakoek osatzen zuten sindikatuaren batzordea: Felipe Unamuno, Juan Sanchez Lacue, Francisco Zabala Igarzaburu eta Jose Maria Ambroy Pacheco. Gerra hasi baino lehen, 1936ko maiatzean, Ramon Gabilondo San Martin zen sindikatuko lehendakaria, eta Felix Torres Ezpeleta idazkaria [27].


su conocimiento.
El Secretario
Carmelo Salazar.
Vergara 5 de Septiembre de 1933

Sindicato Metalurgico de Vergara-ko (UGT) sigilua.
*BUA, 02 C/0504-08*


Sr. Alcalde - Presidente del Ilustre Ayuntamiento de Vergara

Agrupacionde Trabajadores Vascoseko (STV) sigilua.
*BUA, 02 C/0504-09*


BERGARA, 6 de Marzo de 1935.
SECRETARIO
Esteban Murua
SEÑOR ALCALDE PRESIDENTE DEL ILUSTRE AYUNTAMIENTO DE ESTA
VILLA DE B E R G A R A

Euzko Nekazarien Bazkunako sigilua.
*BUA, 02 C/0505-01*

Bergarako Udal artxiboa

**Agrupación de Trabajadores Vascos de Bergara (Solidaridad de Trabajadores Vascos).**

Barrenkalea 1ean zuen egoitza eta 1931n Bartolome Sanchez de Sarasua ari zen lehendakari lanetan. 1934an, berriz, Pedro Azcarate Elcoro izendatu zuten lehendakari eta, harekin batera, Blas Iraeta, Carlos Aramburu Ayestaran, Pedro Martin Mugica, Gregorio Eguren eta Vicente Arrieta Iraolak osatu zuten batzordea. Bi urte geroago, 1936an, Luis Hormazabal Gabilondo zen sindikatuaren idazkaria eta Ramon de Jauregui Idigoras lehendakaria [28].

**Euzko Nekazarien Bazkuna.**

Lino Lazcano Leturia zen lehendakaria.

**Sindicato Profesional de Oficios Varios.**

San Pedro kaleko 32an zuen egoitza eta Felix Gallastegui zen lehendakaria. Matxinatuak Bergaran sartu ondoren, langile elkarte hau izan zen Bergaran geratu zen sindikatu bakarra. Orduko lehendakaria Esteban Irizar zen [29].

**Bergarako Patronala.**

Elkartea *Asociación Patronal de Industriales de Vergara* deitzen zen eta 1934ko ekainaren 3an honako hauek osatzen zuten zuzendaritza-batzordea: Jose Antonio Arteche Dondiz (*Arteche Hermanos*), Ascencio Otaegui Albisua (*Otaegui y Cía*), Jose Añibarro (*Unión Cerrajera*) eta Blas Larrea [30].

Errepublikak bizi izan zuen arazo sozial larrienetariko

bat langabezi tasaren igoera izan zen. Bergaran ere langabeziak herritarrak ederki jipoitu zituen. 1932tik 1936ra bitartean langabezi tasak etengabeko gorako joera izan zuen. Datuen arabera, 1932ko uztailaren 7an herriko langabetuak 62 ziren; ia urtebete geroago, 1933ko ekainaren 14an, 89 (horietako 18 emakumeak ziren); 1935eko martxoaren 8an, 107 langabetu; eta 1936ko apirilaren 15ean, berriz, 129.

Lanpostu galera hori geldiarazteko, errepublikako gobernuak Lan Kontratuen Lege berria argitaratu zuen 1931ko azaroaren 21ean. Horri esker, langileek eskubide berriak lortu zituzten; besteak beste, ordaindutako zazpi opor-egun izatea, greba egiteko eskubidea lortzea eta greba egiteagatik lanetik kaleratuak ez izatea. Metalurgia sektorean, Ingalaterrako langileek gozatzen zuten lan-astea onartu zuten eta langileek larunbat arratsaldeak jai edukitzen hasi ziren.

Horrez gain, 1931ko azaroaren 27an Langile eta Nagusien Epaimahai Mistoen legea onartu zen, eta Lan Ministerioko funtzionario baten lehendakaritzapean, ager zitezkeen lan-gatazketan bitartekari lanak egiten zituzten, kasu bakoitzari zegokion adiskidetze-txosten bat ebatziz.

Errepublikak hartu zuen beste erabakietako bat beharrezko langabeziaren kontrako Kutxa Nazionalaren sorrera izan zen. Erabaki hori 1931ko maiatzaren 25ean hartu zen, lege-dekretu bati esker. Bertan, langabeziaren diru-laguntza ezarri zen [31] .

Udal gobernuak, 1931ko azaroaren 10ean, egun bateko langabeziaren zerga eztabaidatu zuen: “*con el fin ambos de recaudar fondos para aliviar la crisis de los obreros parados, mediante el fomento de obras de utilidad pública en que aquellos puedan encontrar trabajo de que actualmente carecen por causas independientes a su voluntad. En la referida moción se señalan tres fuentes de ingresos para constituir el mencionado impuesto de paro, que son: espectáculos públicos, un impuesto suntuario que vengan a gravar los artículos de lujo y por último la creación de un impuesto global sobre las herencias que representan un haber hereditario superior a 50.000 pts. – También propone la mencionada moción la creación de un día especial llamado de paro en el cual todos los que tuviesen un ingreso de cualquier procedencia, cedan para el día indicado parte de los ingresos correspondientes al mismo*” [32].

Egoeraren aurrean, Bergarako alkateak, 1932ko uztailaren 4an, herritar langabetuei eta lan-jardunaldiaren murrizketa zutenei udalean izena eman zezatela eskatu zien [33].

## 2.3. Errepublikaren laizismoaren aurka

Espainiako elizgizonek, Egoitza Santuaren esanak betez, errepublika-sistema onartu zuten. Oso gotzain gutxi agertu ziren, publikoki, sistema berriaren aurka.

Errepublikak, aurreko sistema politikoak ez bezala, argi zuen Espainia estatu laikoa izan behar zela. Konstituzioaren 3. artikuluan, estatuaren erlijio ofizial eza azpimarratzen zen, eta botere publikoaren eta erlijiosoaren banaketa nagusitzen zen. Horrez gain, 27. artikuluak kultu eta erlijio askatasuna aldarrikatzen zuen. Baina konstituzio berriaren artikulurik polemikoena 26. artikulua izan zen. Horren arabera, estatuak elizari ematen zion berme ekonomikoa desagertu egiten zen, eta Eliza Katolikoari, zeinaren erlijio-ordenak elkarte-izaera

izatera pasatzen ziren, hezkuntza-munduan aritzea debekatzen zitzaion.

Baina errepublikak erlijiotasunarekiko zuen politikaren eboluzioaz ohartuta, poliki-poliki euskal gizartearen sektore handi bat, baita Bergarakoa ere, kexatzen hasi zen.

*El Clero diocesano guipuzcoano y el nacionalismo vasco: un análisis sociológico* lanean aipatzen zaigun bezala, Gipuzkoako abadeen % 53,4 *Comunión Tradicionalista*ren politikarekin ados zegoen, % 29,96 Eusko Alderdi Jeltzalearekin, eta % 0,6 bakarrik errepublikanoekin [34].

Errepublika katolizismoaren pribilegioen kontrako erabakiak hartzen hasi zen. Hasiera batean, erlijio-ordenen existentzia onartu eta hezkuntza-arloan lan egiteko baimena eman zien; baina hilabeteak aurrera egin ahala politikarien iritzia aldatzen joan eta Jesusen Konpainia disolbatzea erabaki zuten. Bestalde, beste kongregazio guztiak lege zibilen bitartez arautzea onartu zuten, eta guztiei irakaskuntzan aritzeko debekua ezarri zieten.

Erabaki horiei guztiei aurre egiteko, Bergarako Udalak Zabala Juaristi zinegotziaren hitzekin bat egin zuen: "*manifestó que aunque respeta y acata las disposiciones que emanan de la Patria ante el Decreto dictado por el Gobierno de la República Española disolviendo a la gloriosa compañía de Jesús no puede dejar de exteriorizar con el respeto debido su enérgica protesta por dicha disposición que ha herido sus sentimientos católicos por tener un concepto muy favorable de la lucha que han realizado los religiosos de dicha orden, que ha sido cuna de notables astrónomos, matemáticos insignes, grande filósofos y teólogos etc. España en la que han crecido un sin fin de instituciones benéficas y docentes que han reputado grandes beneficios a la*



**1928an Telesforo Monzon San Martin Agirreren prozesioan.**
*BUA, R. 000398*

*humanidad, acordaron los reunidos por unanimidad hacer suyas las manifestaciones que anteceden*" [35].

Egun batzuetara, Telesforo Monzon zinegotziak beste eskaera bat aurkeztu zuen: "*proponía que la Corporación elevase respetuosa propuesta a los Poderes Constituidos por la citada disposición solicitando al propio tiempo su derogación pues aunque en principio más bien estamos con la República, no contra ella, si la misma aspira al respeto y cariño de este pueblo debe procurar no herir nuestros más hondos sentimientos de católicos y de vascos*" [36].

### 2.3.1. Aritznoa Euzko Ikastola

*Euzko Ikastola Batza* 1932an sortu zen, *Emakume Abertzale Batza*ren ardurapean. Euskara bultzatzeko eta Errepublikaren

Bergarako Udal artxiboa



**Ikastolako umeak 1933 inguruan.**
*BUA, R. 026777*

laizismoaren aurka egiteko asmoarekin, "*Euzko Ikastola Batza puso en marcha 7 escuelas en Bizkaia y 2 más en Gipuzkoa donde funcionaron como agregadas a la Federación Vizcaína, las de Bergara y Elorrio"* [37].

1933ko urtarrilaren 8an ireki zituen ateak Bergarak izan duen lehen ikastolak. Gipuzkoako hirugarrena izan zen eta 55 ikaslek eman zuten izena. Ikastolaren egoitza gaur egungo Batzokiaren ondoan zegoen.

Ezinbestekoak izan ziren Agustin Linazisoro, Telesforo Monzon eta Bergarako EAJko kideen diru-ekarpenak, baita Udalaren diru-laguntzak ere. Telesforo Monzonen arabera, ikastolen helburua zen *"Umiei egia erakusten saiatu eta Jaungoikoarentzako eta Aberriarenganako maitetasun bizia gaztetatik beren biotzetan sartzen ahalegindu"* [38].

Maria Oyanguren, *Emakume Abertzale Batza*ko kidea, izan zen euskara irakasten hasi zen lehen irakaslea. "*Irakaslea formidablea, eta bere ahizpa Madalen zeukan ayudante moduan*" [39]. Gogor egin zuen lan ekimen horretan, hasierako zailtasun eta zalantza ugariren artean. "*Tamalgarria da, Bergaran degun beste abertzale izanik, Eusko Ikastola utzi alde batera ta Españar ikastolatara bidaltzia beren umetxoak*" [40].

36ko gerra behin hasita eta falangistak Bergaran sartu eta berehala, herriko erretorearen adostasunarekin ikastolan sartu eta ikasleen gauza guztiak ikastolaren ate aurreko plazan erre zituzten. *"Una vez los fascistas ocuparon Bergara, asaltaron la ikastola quemando en la plazuela de enfrente todos los libros y textos en euskera que encontraron y todo ello con el beneplacito de un sacerdote"* [41].

Ikasle batzuk negar ere egin zuten: *"Ikastolatik irten bertatik bertara plazoleta horretan, gure ikastolako liburuak eta ibili ginuzten mapak erre zittuelako"* [42]. Matxinatuak herrian sartu aurretik Maria Oyanguren erbestera joana zen; Belgikako Berchem herrian egon zen 1939ko urriaren 10era arte [43].

Beste gai bati helduz, Niceto Alcala Zamora errepublikako presidenteak Gipuzkoa bisitatu zuen 1932ko irailaren 9tik 17ra bitartean. Bisita garrantzitsua izan zen, Gipuzkoan pasa zituen egunetan Kataluniako Autonomia Estatutua sinatu baitzen. Sinadura Donostian egin zen, irailaren 15ean, eta bertan izan ziren diputatu kataluniarren artean Lluis Companys zegoen, etorkizunean Generalitateko presidente izango zena.

Bergarako Udalaren osokoan, irailaren 16an, herritarrei bisitaren berri emateko bandoan adierazitakoa jaso zen: "*que ha publicado*

Bergarako Udal artxiboa

*un bando anunciando al vecindario dicha visita e invitándole a que adorne con colgaduras los balcones de sus casas y a que acuda a recibirle y propuso:*

1º Que el Ayuntamiento acuda en Corporación acompañado de las Bandas municipales de Música y Txistularis a recibirle.

2º Que se coloque un arco de salutación a la entrada de la villa y se engalane la Casa-Ayuntamiento.

3º Se considere festivo en todas las dependencias municipales la mañana del sábado.

*4º Que se gestione el que en todas las escuelas se guarde también fiesta. Para que el primer magistrado de la Nación lleve grato recuerdo de su visita a Vergara, cuna de los ascendientes de su dignísima señora"* [44].

Irailaren 17an Alcala Zamorak Bergara bisitatu zuen; aurreko egunean udal agintariek, alkatea buru, ongietorria eman zioten. Gero, herritar multzo batekin Espoloitik herriko plazara joan ziren, eta bertan bergararrei hitzaldi labur bat eskaini zien.

Alcala Zamorarekin batera, Queipo de Llano —36. urtean Franco rekin batera estatu-kolpea eman zutenetako bat— etorri zen herrira. Lekukoek kontatzen dutenaren arabera, Errege Seminarioko fatxadari begiratu eta honako hau esan omen zuen: "*Ya es hora de que se quite ese Real al rótulo del Seminario"* [45].

Estatutuaren plebiszitua egin eta egun gutxitara, II. Errepublikako gorteetarako bigarren hauteskundeetarako deia antolatuta zegoen, 1933ko azaroaren 19an hain zuzen ere. Estatu mailako emaitzetan garailea CEDA eskuindar koalizioa izan zen *(Confederación Española de Derechas Autónomas).*

Bergaran 3.729 herritarrek eman zuten botoa. Hauteskundeetako emaitzak honako hauek izan ziren [46]:

**1933ko Gorteetarako hauteskundeak Bergaran**

| | | |
|---|---|---|
| EAJ-PNV | 1.998 | % 53,58 |
| Karlistak | 883 | % 23,67 |
| Sozialistak | 565 | % 14,96 |
| Unión Republicana | 254 | % 6,22 |
| ANV | 24 | % 0,64 |
| Partido Comunista | 4 | % 0,10 |

## 2.4. Udalen autonomiaren aurkako neurria

Espainiako Diputatuen Kongresuak 1932an Ardoaren Estatutua onartu zuen. Horri esker, ardoaren eta orokorrean edari alkoholdunen zergak desagertu egiten ziren. Legea onartua izan arren, ez zen aplikatu.

Bi urte geroago, *Minoría vitivinícola* izenarekin ezagun egin ziren 140 diputatuk Ardoaren Estatutua ezartzea lortu zuten [47]. Aurreko urtean uzta bikaina izanda, mahasti-jabe eta ardogile handiek ardo kopuru ikaragarria zuten saldu gabe. Estokari irteera emateko asmoz, ardoa zergagabetzea erabaki zuten. Proposamena indarrean jartzeak udalen ogasunari kolpe galanta ekarri zion, kontsumoaren gaineko zergak gutxitzen zirelako. Euskal probintzietako udalek gogotsu egin zioten kontra erabaki horri. Izan ere, lege berri horrekin, udalen diru-kutxa publikoen sarrerak izugarri murrizten ziren. Gainera, udalen autonomiaren eta kontzertu ekonomikoaren kontra egiten zuen.

1934ko ekainaren 6an Joaquín Eloseguik, Gipuzkoako Ogasunaren kudeaketako zuzendariak, hausnarketa hau egin zuen:

Bergarako Udal artxiboa

*"No se trata solamente de un agravio al Concierto Económico. Se trata sin ninguna exageración de la adopción de medidas de carácter legal que pueden llevar consigo la ruina de las Haciendas locales vascongadas, cuyos presupuestos se nutren hoy en su mayor parte de la tributación directa cuyo principal ingreso lo constituye el arbitrio sobre el consumo del vino"* [48].

Udal tasak, aurretik, 1933ko azaroaren 23an igo ziren. Ardo arruntaren litro bakoitzaren igoera % 0,04 pezetakoa izan zen.

**Bergarako edarien gaineko udal tasen igoera**[49]

| **Edaria** | **Jatorriko tasa** | **Tasa berria** |
|---|---|---|
| Fino ardoa | 0,25 pta. /l. | 0,35 pta./l. |
| Ardo zuria eta jerez (upela) | 0,25 pta. /l. | 0,35 pta./l. |
| Ardo zuria eta jerez (botila) | 0,30 pta. /l. | 0,40 pta./l. |
| Garagardoa (upela) | 0,15 pta./l. | 0,20 pta./l. |
| Garagardoa (botila) | 0,17 pta./l. | 0,23 pta./l. |
| Alkohola (15º-tan) | 1,20 pta./l. | 1,50 pta./l. |
| Pattarra (50º arte) | 0,60 pta./l. | 0,80 pta./l. |
| 50ºtik gorakoak, gradu bakoitzeko | 1,50 pta./l. | 2,00 pta./l. |
| Xanpaina (botila handia) | 2,00 pta./l. | 3,00 pta./l. |
| Xanpaina (botila txikia) | 1,00 pta./l. | 1,50 pta./l. |
| Cava (botila handia) | 0,75 pta./l. | 1,00 pta./l. |
| Cava (botila txikia) | 0,40 pta./l. | 0,50 pta./l. |
| Likoreak (botila) | 0,50 pta./l. | 0,65 pta./l. |
| Likoreak (50-75 cl-ko botila) | 0,75 pta./l. | 0,95 pta./l. |
| Bestelako likoreak | 0,90 pta./l. | 1,20 pta./l. |
| Bestelako likoreak (botila > 75 cl.) | 1,20 pta./l. | 1,60 pta./l. |

Mobilizazio eta protestak 1934ko udan hasi ziren, eta 1934ko uztailaren 5ean, 200 udaletako ordezkariek bat egin zuten Bilbon. Hemen, kontzertu ekonomikoa defendatzeko asmoz, udalek izendatutako probintzia-batzorde batzuk sortzea proposatu zen. Euskal gizarteak bere kontzertu ekonomikoa defendatu nahi zuen. Horretarako, udalen adostasunarekin, lurralde historiko bakoitzeko erakundeak sortu zituzten, foruen defentsa tinko bat erakutsiz. Jeltzaleek bultzatutako mugimendu politiko honi ezkertiarrak, sozialistak eta ezkerreko errepublikanoak ere batu zitzaizkion.

Hilabete geroago, 1934ko abuztuaren 12an, Gipuzkoako udalen arteko batzorde bat aukeratzeko hauteskundeetarako deia zabaldu zen. Gobernadore zibilak, Espainiako gobernuaren agindua betez, hauteskundeak debekatu zituen, eta guardia zibilak Bergaran antolatutako bozketak galarazi.

*"Dirigese, acto seguido, al señor alcalde el señor cabo jefe de la Guardia Civil del puesto de la villa notificándole verse obligado en virtud de órdenes recibidas del Excelentísimo señor Gobernador y de la Superioridad a no permitir la celebración de la elección anunciada.*

Insiste el señor alcalde en celebrarla en el acto y el señor jefe de la Guardia Civil en no permitirla, proponiendo en su vista el señor alcalde a los reunidos pasar a cambiar impresiones al local contiguo que ocupa la Alcaldía, con lo que aprobada esta propuesta se suspende temporalmente la sesión.

*Constituido nuevamente en sesión los señores concejales asistentes da cuenta el señor alcalde de haberse verificado ya la elección para la integración de la Comisión definitiva en el encabezamiento citada"* [50].

Ignazio Zubizarreta alkatea atxilotu zuten: “”*El señor cabo de la Guardia Civil notifica, en su vista, al mismo señor alcalde, queda detenido a disposición del Juzgado de Instrucción competente.*

*Contesta el señor alcalde, al cabo de la Guardia Civil, si ud. tiene órdenes superiores, que cumplir cumpla ud. con su obligación, que yo también creo cumplir la mía, pero de aquí no me arranca sino*

Bergarako Udal artxiboa


Victor Ignacio Zubizarreta, Bergarako Alkatea, 1934ko abuztuaren 12an Guardia Zibilak epaitegira daramatenean.
*BUA, R. 027117*

Bergarako Udal artxiboa

*a la fuerza, e inmediatamente dase cuenta del resultado de la elección celebrada que da el resultado siguiente: V. Ignacio de Zubizarreta 1.680, Basilio de Lecuona 1.666, Juan de los Toyos 1.682 y Eulogio de Gárate 1.773"* [51].

Udalaren batzarra bi egun geroago bildu zen, abuztuaren 14an, eta Unceta zinegotziaren proposamena adostea erabaki zuten, Ignazio Zubizarreta alkatearen atxiloketa salatzeko:

*"Da cuenta el señor alcalde accidental- Jerónimo Azcárate- del procedimiento de que ha sido objeto, por supuesto delito de desobediencia, el señor alcalde, y en su vista y a propuesta del señor Unceta acuerda la Corporación hacer constar en acta la protesta de los reunidos contra dicha medida y ante las análogas adoptadas contra diversos alcaldes de Guipúzcoa, acordando, así bien, cursar sendos telegramas de protesta al Excelentísimo señor Ministro de Gobernación y al señor Gobernador de la Provincia. A propuesta del señor Azcárate, se acuerda, también, conste en acta la protesta de los reunidos por haberse impedido en algunos municipios de la provincia, el día doce de los corrientes, el uso del euskera en las sesiones municipales"* [52].

Abuztuaren 16an gobernadore zibilak Ignacio Zubizarreta alkatea kargutik kendu zuen, eta gehiengoa zuen zinegotzi taldeak alkatetza har zezan agindu zuen. Horiek uko egin zioten aginduari.

Euskal Herri osoko zinegotzi eta alkateek biltzar baterako deia egin zuten ardoaren estatutuaren eta kontzertu ekonomikoaren aldaezintasunaz hitz egiteko. Biltzar hau Zumarragan egingo zen irailaren 2an. Gobernu espainiarrak bere errepresio-makina martxan jarri zuen Zumarraga asaltoko guardiez betez. Telesforo Monzonek hitzaldi bat eman zuen euskaraz, Indalecio Prietok ezkerraren elkartasuna agertu zien udalei eta Kataluniako adostasun-agiriak

entzun ziren. Udaletik irten zirenean egurtuak izan ziren [53].

Irailaren 7an, euskal udaletako batzordeekin elkartasunean, denak batera dimititzea erabaki zuten egin zizkien jazarpen, irain eta isunen kontrako protesta bezala. Bergaran EAJko 12 zinegotzik euren kargua utzi zuten.

Bergarako Udala tradizionalisten esku geratu zen eta udalbatza 4 zinegotzik osatu zuten. Urriaren 2tik aurrera Jose Zavala Juaristi izendatu zuten alkate. Azaroaren 10etik 17ra bitartean gobernadore zibilak izendatu zituen beste 13 zinegotzi, Bergarako udalbatzari legezkotasun-itxura emateko asmoz. Udalbatzaren eraketaren legaltasuna ez zen 1936ko martxora arte bete.

Bien bitartean, dimititu ez zuen Luis Ruiz de la Prada zinegotziak argudiatu zuen alderdi politiko batzuek euren kideak dimititzera behartu zituztela. Hau, Azaña eta sozialisten gobernuak hartutako erabakiei kontrajartzeko estrategia zen, eta beronen ustez, ez zen batere komenigarria Euskal Herriarentzat: "*Es después el Gobierno del señor Azaña y de los Socialistas, el que impone los farmacéuticos municipales, aún teniendo un buen laboratorio, como el de esta villa, decreta sobre Forenses, cobra el impuesto de la Gasolina y sus derivados, establece el Estatuto del Vino y los impuestos del Lujo y Renta; todo ello directamente por el Estado, sin cederlo o concertarlo con las Diputaciones Vascas, y al Centralizarlos es la Delegación de Hacienda la que desde hace más de un año estaba encargada de su recaudación Ha sido ahora cuando los Ayuntamientos lo recuerdan y protestan; y es este Gobierno el que atendiendo a esos justos ruegos decide dejar en suspenso la aplicación de tales Leyes y Decretos, hasta que puedan concertarse con Diputaciones electivas. A pesar de esta solución, algunos Partidos políticos desvían la cuestión de su origen, haciendo que sus afiliados dimitan en conjunto los cargos municipales, lo que es muy de lamentar, pues yo creo, y conmigo una parte de la opinión, que solamente desde estos puestos, que son de sacrificio y sin ninguna ventaja personal, es desde donde se debe trabajar, todos unidos, con la mayor decisión y energía, hasta conseguir lo que legítimamente le corresponde al País Vasco. Por ello, y para todo lo que sea en beneficio del pueblo de Vergara, continúo en este puesto de Concejal, para el que tuve el honor de ser designado, por mis convecinos en elección popular*" [54].

## 2.5. 1934ko Iraultza saiakera

Udako mobilizazioak baretzen hasi zirenean, 1934ko urrian eskuineko gobernuaren politikaren kontrako iraultza-saiakera bat sustatu zuten estatuko zenbait lekutan ezkertiarrek; Katalunian eta Asturiasen bereziki.

Gipuzkoan ere piztu zen Iraultza, Arrasaten eta Eibarren batik bat. Bi herri horietan armetan altxatu eta Errepublika Soziala, hau da, sistema kapitalista deuseztatzea aldarrikatu zuten. Greba orokorra lurralde osoan zabaldu zen eta arrakasta handia lortu zuen. Ondorio latzak izan ziren, ordea, herritarrentzat. Istiluetan 20 pertsona hil ziren, horietako lau Arrasaten, zazpi Eibarren, eta mila lagun inguru izan ziren atxilotuak orokorrean.[55]

Grebalariak greba-orduetan kalean paseatzen ibiltzen ziren, baina "*Un dia vino la Guardia de Asalto, bajó de los camiones, y sin decir nada empezó a palo limpio*" [56].

*La Voz de Guipúzcoa* egunkariak Bergaran sei greba-egunetan

Bergarako Udal artxiboa

gertatutakoa jaso zuen [57]. *Solidaridad de Obreros Vascos*-ek bete-betean ekin zion grebari, eta herrian lanuztea erabatekoa izan omen zen, ordura arte ezagututako handiena. Larunbatean, grebaren bigarren egunean, UGT ondoko *Centro Obrero* zeritzotenean miaketa zorrotza egin zuten autoritateek, baina ez zuten inolako emaitzarik lortu. Berrian jasotakoaren arabera, greba hasi zenetik *Centro Obrero* hori itxita mantendu zen. Dirudienez, ordena erabatekoa izan zen eta ez zen liskarrik jaso, baina 6 atxilotu izan omen ziren, UGTko zuzendaritzako kide guztiak hain zuzen ere.

Arrasateko jendea ere hurbildu zen Bergarara herritarren bat atxilotzeko asmoarekin. Asmoa bertan behera gelditu zen. Dirudienez, Bidekurutzeta kalean bizi zen Camilo Basterrechea zen haien biktima: *"Arrasatetik etorri ziren Camilo atxilotzera, baina, Pedro Urbinak abisatu zionez, ihes egin zuen etxetik, eta ez zuten han aurkitu"* [58].

Urriaren 11n, ostegun goizean, solidarioek pregoi bat eman zuten, beren afiliatuei eta zaleei lanera itzultzeko aginduz. Ordu erdi geroago, beste horrenbeste egin zuen UGTk.

Arratsaldean, langile guztiak itzuli ziren lanera, *Unión Cerrajera*ko Labe garaietako lantokikoak izan ezik. Haiei, lantegira bueltatu aurretik, administrazio-kontseilua bildu behar zela esan zitzaien. Kontseiluak hainbat akordio hartu behar zituelako.

Hurrengo egunean, enpresako arduradunek lantegiko atezaintzan iragarki bat jarri zuten lan-kontratu guztien amaiera iragarriz. Enpresarentzat berriz ere lan egin nahi zuten langile ohiek eskaera-orria bete beharko zuten.

Bergarako epaitegitik, greba-egunetan Oñati, Eibar, Arrasate eta Aretxabaletan atxilotutako presoak pasa ziren. Guztiak Guadalupeko gotorlekura eraman zituzten, gutxi gorabehera 300 bat preso [59].

Pedro Garciak bere osaba Florencio Estevezen bizipen batzuk kontatzen dizkigu elkarrizketan. Florencio komunista zen, eta Ramon Gabilondo "Basarte"ren anaiarekin eta beste lagun batzuekin talde txiki bat osatzen zuen. Greba-egun haietan lantegiak geldiaraztera joan ziren. Florenciok pistola bat zeukan; greba baketsua baino zerbait eraginkorragoa prestatzen ari ziren; baina ez zuten indar nahikoa izan, eta ez zen euren gogoa gauzatu; *"gure osabak etxeko teilatuan gorde zuen pistola, greba bukatutakoan"* [60].

Florenciorekin piketeetan parte hartutako beste batzuk aipatzen ditu: Jacinto Lopez Arechaga, Jose Larrañaga Arrieta, Jose Manuel Idarreta Sañudo Santiago Zárate Salazar eta Serapio Ilarduya Echeverria. Dirudienez, azken honek presio handia egin zuen pikete hartan: *"En la huelga general del mes de octubre de 1934 actuó con bastante actividad, coaccionando a los obreros que deseaban entrar al trabajo"*[61].

Greba-egunetan lana utzi zuten herritarrak ere baziren. Horien artean Santiago Arrieta Ramirez de Ocariz *"quien abandono en octubre de 1934 el cargo de sereno de la fabrica textil Movilla, siendo respuesto por el Frente Popular en 1936"* [62].

Bergarako Guardia Zibilaren komandantearen idatzi baten bidez jakin da urriaren 6an Bergarako *Centro Obrero* erregistratu eta itxi zutela, eta ondorioz, Carmelo Salazar Cenitagoya eta Ignacio Vicente Urra atxilotu zituztela. Biei greba-mugimenduaren sustatzaile eta buruzagi nagusiak izatea leporatu zieten [63].

Egun hartan ere, Bernardo Gomez Ochoa atxilotua izan zen; eta bost egun geroago, urriaren 11n, Jose Maria Ambroy Pacheco eta Francisco Zabala Igarzaburu, Bergarako *Agrupación Socialista*ko presidentea [64]. Hirurak *Unión Cerrajera*ko langileak ziren eta Eibarko

Bergarako Udal artxiboa

urriko iraultzan gertatutako liskarrengatik prozesatu zituzten. Azpimarratu beharra dago gainera, lehen biak gerran hil zituztela[65]. Bergarako *Unión Cerrajera*n 24 langile izan ziren kaleratuak, eta 1936ko amnistiarekin lanera bueltatu ziren. "*Se efectuaron admisiones de personal obrero despues de febrero de 1936 por imposición de las Comisiones de Represaliados Políticos en la factoría de Mondragón el número de admitidos fue de 92 y en la fábrica de Vergara fueron 24 los obreros admitidos*" [66].

Langileen greba-ekimenak menderatu ondoren, udalak 1934ko urriaren 25ean erabaki hauek hartu zituen: "*A propuesta del señor alcalde se acuerda abrir una suscripción pública encabezada por el Ayuntamiento con 1.000 pts. a favor de los Institutos Armados que han intervenido en los últimos sucesos y los donativos se reciban en las Sucursales de los Bancos de la villa y en el Ayuntamiento y que la Comisión de Hacienda proponga la partida con cargo a la cual ha de abonarse la cantidad citada.*

Se acuerda igualmente dirigir telegramas de felicitación al Gobierno Central, Gobernador Militar y Gobernador Civil, haciendo extensiva a la fuerza pública la felicitación que se le dirija al segundo, por la rapidez y energía con que han aprobado el reciente movimiento revolucionario dando cuenta al mismo tiempo a los organismos y personalidades citadas del acuerdo precedentemente inserto.

*Informa el señor presidente a los capitulares de la reunión celebrada el día 20 de los corrientes con las fuerzas vivas de la localidad para someter a su consideración la necesidad de dotar a la Guardia Civil de esta villa de una Casa-Cuartel que reúnan las debidas condiciones de seguridad, capacidad y salubridad, añadiendo que obtuvo impresione muy favorables a su propuesta y que cuenta con la ayuda de entidades*


Libro Diario nº 1 de la Agrupación Republicana de Vergara, destinado para contabilizar la administración del ambigú.

1933 Mayo 27 Mobiliario y enseres

Conserje

Mercancías

a Agrupación Republicana

a Mercancías

a Proveedores

**Bergarako Agrupacion Republicanako eguneroko diru sarrera eta irteeren liburua, 1933ko maiatzaren 27tik 1935ko abenduaren 31ra arte.**
*BUA, 00 C/001-21*

Bergarako Udal artxiboa

*oficiales y particulares y proponiendo, acordándose así por la corporación, recaiga acuerdo del Ayuntamiento de construcción para el fin dicho de un edificio de nueva planta. Se acuerda, así bien, facultar al señor alcalde para que efectúe las gestiones necesarias conducentes a la efectividad del acuerdo"* [67].

Egun batzuk geroago, Gipuzkoako Komandantzia militarretik erantzun hau jaso zuten: "*se han realizado las procedentes gestiones al objeto de aumentar las fuerzas armadas en la villa*" [68].

Sarritan gertatzen den bezala, grebak ondorio politikoak izan zituen, behin betiko apurtu baitziren karlisten eta jeltzaleen arteko harremanak. *El Pensamiento Alavés* egunkari karlista 1935eko irailaren 2an Bergarako Solidarioen aurka gogorki agertu zen, haien ustez 1934ko urriko iraultzaileekin bat egin zutelako: "*Consultaron (los solidarios) y en vista de la orden de sus dirigentes dejaron el trabajo*".

Salaketa horrek handik egun batzuetara erantzuna jaso zuen. STV[69]ko Bergarako lehendakariak —Pedro Azcarate Elcoro—, beste hiru lagunekin batera —Pedro Martin Mugica, Gregorio Eguren eta Carlos Aramburu—, *Euzkadi*-n eta *El Dia*-n aldarrikatu zuten gezurra zela *El Pensamiento Alaves*-ek beraiei egotzitako guztia: "*Que la entidad sindical de su presidencia en todo momento ordenó en principio a sus afiliados se abstuvieran de oponer resistencia a la avalancha revolucionaria que tratara de impedir la entrada al trabajo, para no exponer nuestras vidas, tan caras, cuando menos, como las más de los que nos combaten con saña, a la violencia amenazadora del movimiento*".

Ondorio politikoak bai Bergaran bai Espainiako estatuan orokorrean izan ziren; gizartearen banaketa eta bateraezina geroz eta nabarmenagoa zen. "*La unidad de la izquierda, primero en las Alianzas Obreras y a continuación en el Frente Popular y la ruptura definitiva de las relaciones entre el PNV y el Carlismo constituyen dos de las consecuencias de la Octubrada*" [70].

## 2.6. 1936ko Udal Hauteskundeak

Urriko iraultzak eragin handia izan zuen orduko gizartean. Alde batetik, Estatuko langileen eta nekazarien eskubideen murrizketa eta ekonomiaren deflazioa, arlo ekonomikoan. Bestetik, Alcala Zamora lehendakariaren politika eta Gobernu Batzarren aldaketa, arlo politikoan. Hauek izan ziren, besteak beste, 1934ko urritik 1936ko otsailera bitarteko egoeraren faktore nagusiak [71].

Eta Europan, Lehen Munduko Gerraren ondoren sortutako faxismoak gora egiten zuen bitartean, Espainian gorakada horri aurre egiteko pausoak ematen hasi ziren ideologia marxistadun taldeak. Espainiako ezkertiar alderdiak batu egin ziren eta Fronte Popular izeneko koalizioa sortu zuten. Erakunde politiko berriaren ituna 1936ko urtarrilaren 15ean sinatu zuten *Unión Republicana, Izquierda Republicana, Partido Socialista, PCE, UGT, Juventudes Socialistas, Partido Sindicalista* eta *POUM edo Partido Obrero de Unificación Marxista*k.

Fronte Popularrak, 1934an lanpostuetatik bidaliak izan ziren matxinatuentzat, amnistia osoa aldarrikatzen zuen. Langileek, kalte-ordaina jasotzeaz gain, aurreko lanpostuetara bueltatu behar zutela eskatzen zuten, eta horrek koalizio politiko berriaren aldeko herri-mobilizazioa ekarri zuen.

Bergarako Udal artxiboa

Fronte Popularrarekin bat egin ez zuten anarkistek, CNT eta FAI erakundeek, koalizio berriak langileriaren eskubideen alde zuen jarrera ikusita, ez zuten beraien ohiko jarrera oldarkorra erakutsi.

Gipuzkoan, 1936. urte hasierako bozketa haietan, muturreko jarrerak nagusitu ziren. Alde batean Fronte Popularra [72] zegoen, eta bestean iraultzaren aurkako frontea edo *Frente Contrarrevolucionario*, eskuineko ideologiako alderdi politikoek osatu zuten koalizioa.

Tartean, euskal lurraldeetan, EAJ-PNV alderdia, eliza katolikoaren presio handiak jasan arren, ez zen eskumako blokean sartu eta hirugarren aukera bezala aurkeztu zen.

Estatu mailan udal hauteskundeak Fronte Popularrak irabazi zituen arren, Bergaran EAJ-PNV atera zen garaile [73].

**1936ko Otsailaren 16ko hauteskundeak**

| | | |
|---|---|---|
| EAJ-PNV | 2.050 | 48,24% |
| Coalición Contrarrevolucionaria | 1.320 | 31,06% |
| Fronte Popularra | 879 | 20,68% |

Hautagaitza batek ere baliozko botoen % 40a lortu ez zuenez, 1936ko martxoaren 1ean hauteskundeen bigarren itzulia egin zen. Bigarren bozketa horretan, lehen bozketan botoen % 8 baino gehiago lortu zuten alderdiek hartu zezaketen parte. Gainera, Fronte Popularrari aurre egiteko sortu zen koalizio kontrairaultzaileak abstentzioaren alde egin zuen.

**Martxoaren 1ean**

| | | |
|---|---|---|
| EAJ-PNV | 2.994 | 68,93% |
| Coalición Contrarrevolucionaria | Ez zen aurkeztu | |
| Fronte Popularra | 1.018 | 27,91% |

Gipuzkoan EAJk 4 diputatu lortu zituen eta Fronte Popularrak berriz 2.

Bergarako Udal artxiboa

2 *La Vanguardia*. Bartzelona, 1930ko abuztuak 19.

3 URMENETA, Xabier; MARKEZ, Iñaki. *Fernando Sasiain Brau. Donostiko alkate errepublikanoa: Historiaren Ahaztura*. Bilbo: Ekimen, 2013. 43-44.orr.

4 HAINBATEN ARTEAN (Oktubre taldea). *Arrasate 1936. Belaunaldi Etena*. Donostia: Arabera Kultura taldea, 1987. 108. orr.

5 Juan Carlos lehenengoa errege borboidarraren aitona.

6 Bergarako Udal Agiritegia (BUA) 02 C/0055 76at. 1931ko apirilaren 15ean.

7 BUA 02 C/0055 96au. 1931ko ekainaren 9an.

8 BUA 02 C/0055 219au. 1932eko maiatzaren 24an.

9 *La Constancia: Diario Integro Fuerista*. Donostia, 1931ko ekainak 30, 4.orr. http://www.euskadi.net/r332732/es/contenidos/evento/ondare_minteguia/es_12730/adjuntos/es_Arantza%20Arzamendi.pdf: *"A finales del siglo XIX (1897) fundaron La Constancia como órgano del partido integrista y con el objetivo de luchar contra el liberalismo. Era Carlo-Integrista"*. 2. orr.

10 BUA 02 C/0055 101at. 1931ko ekainaren 28an.

11 *La Constancia: Diario Integro Fuerista*. Donostia, 1931ko ekainak 30, 4.orr.

12 BUA 02 C/0055 134au.1931ko urriaren 13an.

13 BUA 02 C/0055 143au.1931 azaroak 10ean.

14 BUA 02 C/0055 174au. 1932ko otsailaren 2an.

15 BUA 02 C/0055 143au. 1931 azaroak 10ean.

16 BUA 02 C/0055 183au. 1932ko otsailaren 22an.

17 CILLAN APALATEGUI, Antonio. *Sociologia Electoral de Guipuzkoa*. Donostia : Sociedad Guipuzcoana de ediciones y publicaciones,1975. 630-31 orr.

18 BUA 02 C/0055 113au. 1931ko abuztuaren 4an.

19 BUA 02 C/0055 169au. 1932ko urtarrilaren 11an.

20 BUA 02 C/0055 226at-227au. 1932ko ekainaren 26an.

21 CILLAN APALATEGUI, Antonio. *Sociologia Electoral de Guipuzkoa*. Donostia : Sociedad Guipuzcoana de ediciones y publicaciones,1975. 654. orr.

22 BUA 02 C/0056 122au. 1933ko azaroaren 9an.

23 DE LA GRANJA SAINZ, José Luis. *República y Guerra Civil en Euskadi*. Oñati: Herri Arduralaritzaren Euskal erakundea, 1990. 259.orr.

24 Bere aita bergarrara zen, Teodoro Aguirre Barrenetxea de Arando.

25 BUA 02 C/1081-06.

26 BUA 02 C/0074-02. Emakumeen datuak 1936ko maiatzaren 30ekoak dira, baina enpresa bakoitzaren langile kopurua oso antzekoa da 1931 eta 1936an.

27 BUA 07 C/0689-009.

28 BUA 02 C/0074-03 eta 07 C/0659-002.

29 BUA 07 C/0689-006.

30 BUA 02 C/0074-03.

31 BUA 02C/0074-05.

32 BUA 02 C/0055 141au-143au. 1931ko azaroaren 11an.

33 BUA 02 C/0074-03.

34 BERAMENDI, Justo; MAIZ, Ramón. *Los nacionalismos de España de la Segunda República*. Madrid: Siglo Veintiuno, 1991. 287.orr.

35 BUA 02 C/0055 171at. 1932ko urtarrilaren 26an.

36 BUA 02 C/0055 173au. 1932ko otsailaren 2an.

37 UGALDE SOLANO, Mercedes. *Mujeres y nacionalismo Vasco. Génesis y Desarrollo de Emakume Abertzale Batza (1906-1936)*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea, 1993. 454.orr.

38 IZAGUIRRE, Koldo. *Telesforo Monzón. Hitzak eta Idazkiak 2. liburua*. Zarautz: Itxaropena, 1986. 194. orr.

39 Xabier Linazisorori elkarrizketa.

40 Ibid, 194. orr.

41 María Ojangureni elkarrizketa. *EGIN* egunkaria. 1978ko irailaren 19an.

42 Patxi Azkargortari elkarrizketa.

43 ALONSO CARBALLES, Jesús. *1937. Los niños vascos evacuados a Francia y Belgica*. Bilbo: Atzerriraturik Haurren Elkartea, 1998.

44 BUA 02 C/0055 253au-253at. 1932ko irailaren 16an.

45 Pedrotxo Garcíari elkarrizketa.

46 GARMENDIA, José María. *Ideologiak eta Mugimendu politikoak Bergaran*. Bergara: Udala, 1992.

47 BARRUSO BARES, Pedro. *El intento autonómico del verano de 1934. La actitud del ayuntamiento de San Sebastián*. Donostia: Cuadernos de Sección Historia y Geografía, Eusko Ikaskuntza, 1995. 382. orr.

48 Ibid, 385. orr.

49 BUA 02 C/0056 128au. 1933ko azaroaren 23an.

50 BUA 02 C/0056 262au. 1934ko abuztuaren 12an.

51 BUA 02 C/0056 262au. 1934ko abuztuaren 12an.

52 BUA 02 C/0056 263au. 1934ko abuztuaren 14an.

53 *El Dia*. Donostia, 1933ko irailaren 4an. ARZAMENDI SESE, Arantza. Introducción a la prensa guipuzcoana desde sus origenes hasta 1936. Primer seminario sobre Patrimonio Bibliografico Vasco. Gasteiz 2003. "El Día (1930-1936), comenzó a publicarse tras la caída de la dictadura de Primo de Rivera, era un periódico autonomista". 3. orr.

54 BUA 02 C/0056 266at. 1934ko irailaren 29an.

55 GARAI, Juan Ramon. *Celestino Uriarte, klandestinitatea eta erresistentzia komunista*. Tafalla: Txalaparta, 2006. 45, 46 eta 64. orr.

56 Ignacio Herráni elkarrizketa.

57 *La Voz de Guipúzcoa*. Donostia, 1934ko urriaren 14an.

58 GARAI, Juan Ramon. *Celestino Uriarte, Clandestinidad y resistencia comunista*. Tafalla: Txalaparta, 2008. 53. orr.

59 *La Voz de Guipúzcoa*. 1934ko urriaren 14an.

60 Pedro García Estévez-i elkarrizketa. Grenoblen, 2004ko irailean.

61 BUA 02 C/0073-34.

62 Ibid.

63 Bergarako Guardia Zibilaren postuko komandanteak Gipuzkoako Komandantzia Militarrera bidalitako ofizioa 1934ko urriaren 31ean. Ofizio zenbakia 4289. Ondo Bihurtu artxiboa.

64 GUTIÉRREZ AROSA, Jesús. *La insurreción de Octubre de 1934 y la II República en Eibar*. Eibar: Udala, 2001. 151. orr.

65 BUA 07 C/0646-009.

66 GARAI, Juan Ramon. *Celestino Uriarte, klandestinitatea eta erresistentzia komunista*. Tafalla: Txalaparta, 2006. 77. orr.

67 BUA 02 C/0056 275at. 1934ko urriaren 25ean.

68 BUA 02 C/0056 277at. 1934ko urriaren 31an.

69 Solidaridad de Trabajadores Vascos, gaur egun ELA (Euskal Langileen Alkartasuna).

70 Ibid.

71 VILAR, Pierre. *Historia de España*. Bartzelona: Crítica, 1990. 138. orr.

72 Gipuzkoako Frente Popularra errepublikazale, sozialista, komunista eta EAE-ANVkoek osatu zuten.

73 RODRIGUEZ RANZ, José Antonio. *Guipuzcoa y San Sebastián en las Elecciones de la Segunda república*. Donostia: Instituto Doctor Camino-Caja Gipuzkoa,1994. 667. orr.

3

# GERRA GARAIA

Bergarako Udal artxiboa

Egun alaia zirudien 1936ko uztailaren 18ak Bergaran, Santa Marinako jaiak ospatzen baitziren. Eguraldia ere lagun zuten bergararrek, eguzkiak herria berotzen zuelarik. Kaleetan zehar jai giroa sentitzen zen Udal Musika Bandak *Ondo Bihurtu* taldeak [74] egindako pieza berri bat estreinatzen zuen bitartean. Bat-batean zeru urdina ilundu egin zen.

Bergarako gizartean, orduko gatazka politikoa pil-pilean zegoen. Herritar gutxi batzuk, II. Errepublikaren aurkako matxinoen aldekoak, armetan jartzeko prest zeuden. Orokorrean ordea, herritarren gehiengoak ez zuen inolako liskarrik nahi, horrek euren bizitza, ametsak eta ilusioak zapuztuko zituela baitzekiten.

Bat-batean, arratsaldeko bostak pasata zirenean, herritarrek espero ez zutenean, parrokietako kanpai-hots etengabe batek aztoratu zuen herria. Gobernuak Melillako altxamendua konfirmatu eta berria alderik alde zabaltzen hasi zen. Batere errurik izan gabe, Bergara defendatzeko ordua iritsi zitzaien herritarrei.

Guztion oroimenean tinko geratu den uztailaren 18 hartan, gizarteko pribilegiatuenek, euren nagusitasuna kolokan sentitzean, estatu-kolpe bat sustatu zuten II. Errepublikaren aurka, karlisten eta falangisten laguntzarekin. Horri esker militarrek *ezpata,* bankak *diruaren poltsa* eta Elizaren hierarkiak *gurutzea* kontrolatzeari eutsiko zioten.

Errepublika aldarrikatu zen momentutik aurrera, sistema politiko horri aurre egiteko mugimenduak agertzen hasi ziren. Arrasaten, 1931ko maiatzean, Miguel Aguirreurreta *Círculo Tradicionalista*ko kideak eskutitz bat bidali zion Ermuko alkatea zen Ignacio Olañetari. Bertan, armak eta munizioak eskatzen zizkion errepublikaren aurka egin zezaten. Polizia atxilotzera zihoakiola, ihes egitea lortu zuen [75].

Estatu mailan, Sanjurjoren kolpe militarrak eskuindarren asmoak agerian utzi zituen. Kolpe-saiakera 1932ko abuztuaren 10ean burutu zen, baina ez zuen arrakastarik izan. Errepublikaren kontrakoek errepublikaren aldarrikapena egin eta segituan hasi ziren gobernu berriaren kontrako altxamendua prestatzen. Horixe dio, gutxienez, Antonio Lizarza Nafarroako karlistak, *Memorias de la Conspiración* liburuan: "*Desde los primeros comienzos de la República, allá en el año 1931, se empezaron los primeros trabajos. En una reunión en Leiza a la que asistieron representantes de varias provincias, se organizaron los primeros grupos. Eficazmente colaboró en aquellos primeros trabajos una Junta Sacerdotal. No estábamos solos en la lucha contra la República. Mussolini nos apoyaba generosamente. De Navarra salieron varias expediciones de jóvenes que marchaban a Italia a instruirse en el manejo de ametralladoras, bombas de mano, los trataban como "oficiales peruanos en prácticas*" [76].

Karlisten azpilana errepublika aldarrikatu eta berehala hasi bazen ere, 1935. urte amaieran ekintzak areagotu eta errekete unitateak ugaritzeari ekin zioten. Maniobrarako oinarrizko unitatea *taldea* zen eta bost pertsonako hiru patruilak osatzen zuten. *Taldee*k kaboa, bi kamilazain eta talde buruarekin edo haren ordezkoarekin lotura egiten zuen pertsona ere bazuten. Guztira 23 bat gizon egon zitezkeen. Hiru talderekin *piketea* osatzen zen, eta ofizial kategoriako arduraduna zuen; orotara, 70 bat gizonez osatuta. Aldi berean, hiru *"pikete"* batzean *"erreketea"* sortzen zen, eta kapitain graduko arduradun baten agindupean zegoen.

1935. urte amaierarako, Gipuzkoan lau errekete-unitate zeuden antolatuta, eta Donostia, Tolosa, Azpeitia eta Oñatin aurkitzen ziren. Ordurako, Debagoieneko herrietan, karlistek 150 pistola banatuak

Bergarako Udal artxiboa

zituzten, eta Urbiako inguruetan maniobra militarrak eginak ere bai [77].

Gatazka pil-pilean zegoen unean, Arrasateko erreketea osatzen zuen Avelino Beltranek eskutitz bat bidali zion Daniel Mugarza oñatiarrari. Gutun interesgarria da benetan, bertan azaltzen baitzion Oñatiko lagunari eskuko bonbak nola egiten ziren; Elma lantegiko hodiak (*de codo*) erabilita, hain zuzen ere. Gainera, eskaera berezia egin beharko zutela aipatzen da. *"Supongo me dirá pronto algo, pues ya se sabe cómo estamos aquí de noticias"* [78].

1936ko ekainean, Agustin Telleríi antzuolarra atxilotu zuten, erreketeentzako guardia zibilen 100 jantzi prestatzen ari zelako Zaragozako enpresa batean. Jantziak matxinadan parte hartzeko erabiliko ziren. Telleriaren etxean 14 *trikornio* ere aurkitu zituzten. Gipuzkoako Erreketeen Ordezkaritzako eskualdeko ordezkaria zen Telleria.[79]

Jazarraldi militarra forma hartzen hasi zen. 1936ko uztailaren 17an Afrikan eta 18an Espainian, Espainia tradizionalaren botere faktikoek —militar, errekete, falange eta legioek— geroago gurutzada nazional bataiatuko zen Altxamendu Nazionala bultzatu zuten demokrazian eratuta zegoen Errepublikaren aurka.

Hego Euskal Herria bitan banatuta gelditu zen. Nafarroan eta Araban uztailaren 18an talde kontserbadoreen kolpe militarra gailendu zen. Itsasaldeko probintzietan, Gipuzkoan eta Bizkaian, Errepublikaren gobernua mantendu zen.

Bergaran, gatazkaren lehen egunetan, Seminarioko arkupetan 169 gazte milizianok izena eman zuten tropa nazionalen aurrerapena ekiditeko asmoarekin. Bien bitartean, gerraren hasierako egunetan, EAJko kideak gertakizunen garapenaren zain zeuden [80].

Abuztuaren 15ean, Fronte Popularraren komiteak sinatutako idatzi bat iritsi zen *Unión Cerrajera* enpresako zuzendaritzara. Enpresako hainbat langile, tartean, Lino eta Ángel Lazcano, Bergarako miliziano egin zirela jakinarazten zitzaien [81].

Gauez, Guardia Zibilak *Círculo Tradicionalista*ren egoitza itxi zuen: "*En la noche del 18 de julio de 1936 la Guardia Civil de Bergara encabezada por el Alférez Miguel Escoin Gálvez, Comandante del puesto de la Línea de Bergara, y Tomás López López intervinieron en la clausura de los locales ocupados por el Círculo Tradicionalista. Uno y otro posteriormente actuaron activamente con el Frente Popular en San Sebastián especialmente en el Gran Casino, ocupando después el cargo de instructores de las milicias del F.P. en la villa de Bergara*" [82].

Biharamunean, 1936ko uztailaren 19ko greba orokorraren ondorioz, Gipuzkoako indar ezkertiarrek eskuragarri zituzten armak hartu eta altxamenduari aurre egiteko prestatu ziren. Donostiako militarrek, gatazkaren hasierako nahastea zela-eta, ez zuten alde edo kontrako jarrerarik hartu, baina bai miliziano matxinatu talde batek. Uztailaren 21eko goizaldean, Gasteizerantz abiatzera zihoazenean, matxinatzeko aprobetxatu zuten.

Erresistentzia handia aurkitu zuten matxinoek; hiriko eraikin esanguratsuetan ezkutatzera behartu zituzten: Kontxako Kasinoan (egungo udaletxea), Maria Cristina hotelean edota Gobernu militarrean. Uztailaren 28ra arte luzatu ziren borrokaldi bortitzak, eta matxinatuek inprobisatutako miliziaren aurrean amore eman zuten. Milizianoek matxinatuen armamentua eskuratu zuten. Egun horietako guduetan, CNTko Crescencio Lopez Egido bergararra hil zen.

Donostian kolpe militarrak arrakastarik lortu ez zuela ikusirik, Bergaran gerra aurretik existitzen zen 30 lagunez osatutako errekete taldeko kideek erabaki ezberdinak hartu zituzten. Batzuk herritik

Bergarako Udal artxiboa

ihes egin eta gero *Zumalakarregui tertzioa* sortu zuten. Beste batzuk, ordea, herrian gelditu ziren eta Bergarako Fronte Popularrekoek atxilotu zituzten. Guztira 40 bergarar izan ziren atxilotuak *Sindicato Libre Profesional*eko egoitzan. Bertan, zortzi pistola eta eskuko bonba aurkitu ziren.

Atxilotuak Bergarako epaitegiko kartzelan eta Seminarioan egon ziren preso, baina matxinatuak Bergarara hurbiltzen ari zirela jakitean, Fronte Popularrekoek Bilboko Larrinaga eta El Carmelo espetxeetara garraiatu zituzten.

Bilboko Epaitegi Berezi Nagusiaren 1937ko 16. Sumarioan azaltzen den bezala, 89 pertsona izan ziren epaituak errepublikaren aurka matxinatzeagatik. Horietatik 40 arestian aipatutako bergararrak ziren, beste 16 erreketeen aldekoak [83], eta falta direnak *Círculo Tradicionalista* eta *Sindicato Libre*ko buruzagiak [84].


**Bergarako Gerra komisarioko boluntarioak, Fronte Popularrekoak.**
*BUA, R. 100561*

## 3.1. Errepublikaren defentsarako batzordea

Egoera korapilotsu honetan suertatutako agintaritza-falta eta borrokek, uztailaren bukaeran Gipuzkoako Errepublikaren Defentsarako Batzordearen sorrera ekarri zuen; batzorde orokor horrek bultzatuta, probintziako herrietan ere batzordeak osatu ziren. Haien helburua, II. Errepublikaren alde egiteko alderdi politiko eta sindikatuak antolatzea zen. Alderdi Sozialista, JSU *(Juventudes Socialistas Unificadas), Izquierda Republicana,* EAJ-PNV, EAE-ANV, *Unión Republicana,* CNT, UGT, STV, *Ezquerra Vasca Federal* eta *Partido Comunista* ziren partaideak.

Bergaran Errepublikaren Defentsarako Batzordea 1936ko abuztuko lehenengo egunetan eratu zen, Batzordeko kideak partidu politiko eta sindikatuetako ordezkariak ziren: EAJkoak, Solidarioak, UGTkoak, Alderdi Sozialistakoak, Errepublikanoak, Komunistak; hain zuzen ere, lehendakaria Ignazio Zubizarreta zen, ordura arteko alkatea[85]. Aipatutako Errepublikaren Defentsarako Batzordetik hainbat lantalde sortu ziren. Gerrako lantaldea izan zen garrantzitsuena; 169 milizianok osatzen zuten, eta gehienak *Solidaridad de Trabajadores Vascos-Euzko Langileen Alkartasuna* eta *Fronte Popular*-eko kideak ziren [86].

Bergarako Udal artxiboa

| | | |
|---|---|---|
| 1. | Aguirre Serapio | Milizianoa |
| 2. | Aguirre Cortabarria Jose | Gerra komisaria |
| 3. | Aguirre Cortabarria Andres | Gerra komisaria |
| 4. | Aguirre Ascargorta Diego | Gerra komisaria |
| 5. | Aguirre Cortabarria Fernando | Gerra komisaria |
| 6. | Aguirre Juan Jose | Gerra komisaria |
| 7. | Aguirrebeña Juan | Gerra komisaria |
| 8. | Aguirrebeña Mateo | Gerra komisaria |
| 9. | Aguirrebeña Rufino | Gerra komisaria |
| 10. | Aguirrezabal Juan Jose | Gerra komisaria |
| 11. | Alberdi Alfonso | Gerra komisaria |
| 12. | Alberdi Pascasio | Gerra komisaria |
| 13. | Albistegui Arriaran Guillermo | Gerra komisaria |
| 14. | Altuna Garitano Jose | Gerra komisaria |
| 15. | Aperribay Nicolas | Gerra komisaria |
| 16. | Arana Elías | Gerra komisaria |
| 17. | Arana iñaki | Gerra komisaria |
| 18. | Aramburu Carlos | Gerra komisaria |
| 19. | Aramburu Daniel | Gerra komisaria |
| 20. | Aranceta Aranzabal Evaristo | Gerra komisaria |
| 21. | Aranguren Jose | Milizianoa |
| 22. | Aranzabal Nicasio | Gerra komisaria |
| 23. | Aranzabal Pedro Juan | Gerra komisaria |
| 24. | Armendariz Joaquin | Gerra komisaria |
| 25. | Arregui Domingo | Gerra komisaria |
| 26. | Arregui Julian | Milizianoa |
| 27. | Arregui Serapio | Gerra komisaria |
| 28. | Arregui EchaveTomas | Gerra komisaria |
| 29. | Arrieta Alejandro | Gerra komisaria |
| 30. | Arrieta Carmelo | Gerra komisaria |
| 31. | Arriola Francisco | Gerra komisaria |
| 32. | Arruabarrena Ramon | Gerra komisaria |
| 33. | Arruti Tiburcio | Gerra komisaria |
| 34. | Avechuco Francisco | Gerra komisaria |
| 35. | Avechuco Lorenzo | Gerra komisaria |
| 36. | Ayastuy Antonio | Milizianoa |
| 37. | Azcarate Iñaki | Gerra komisaria |
| 38. | Bacaicoa Albeniz Paulino | Gerra komisaria |
| 39. | Barros Arredondo Juan | Gerra komisaria |
| 40. | Begiristain Aramburu Jose | Gerra komisaria |
| 41. | Beiztegi Domingo | Gerra komisaria |
| 42. | Bengoa Agustin | Gerra komisaria |
| 43. | Berroya Gregorio | Gerra komisaria |
| 44. | Bilbao Ignacio | Milizianoa |
| 45. | Blazquez Fabriciano | Milizianoa |
| 46. | Bolibar Dionisio | Gerra komisaria |
| 47. | Caballero Raimundo | Gerra komisaria |
| 48. | Calvocheaga Jose | Gerra komisaria |
| 49. | Careaga Odriozola Armando | Gerra komisaria |
| 50. | Cortabarria Barrena Ángel | Milizianoa |
| 51. | Cortabarria Leandro | Gerra komisaria |
| 52. | Cortabarria Barrena Ricardo | Gerra komisaria |
| 53. | Durana Hilario | Gerra komisaria |
| 54. | Ecenarro Felipe | Gerra komisaria |
| 55. | Ecenarro Julian | Gerra komisaria |
| 56. | Eceolaza Prudencio | Milizianoa |
| 57. | Echeverria Galdos Felix | Gerra komisaria |
| 58. | Echezarreta Juan | Milizianoa |
| 59. | Eguren Aguirrezabal Juan | Gerra komisaria |
| 60. | Eguren Pedro | Gerra komisaria |
| 61. | Eguren Ramon | Gerra komisaria |
| 62. | Elcoro Victorio | Gerra komisaria |
| 63. | Elorza Sebastian | Gerra komisaria |
| 64. | Ena Martin | Gerra komisaria |
| 65. | Ena Santiago | Gerra komisaria |
| 66. | Epelde Dolara Miguel | Gerra komisaria |
| 67. | Erdabide Fernando | Gerra komisaria |
| 68. | Estevez Ramos Paulino | Gerra komisaria |
| 69. | Estevez Arenas Pedro | Gerra komisaria |
| 70. | Ezpeleta Felipe | Gerra komisaria |

Bergarako Udal artxiboa

| | | |
|---|---|---|
| 71. | Farras Ramon | Gerra komisaria |
| 72. | Gabilondo Pablo | Gerra komisaria |
| 73. | Galarreta Jose | Gerra komisaria |
| 74. | Ganchegui Lizarralde Jose | Gerra komisaria |
| 75. | Ganchegui Aranguren Victor | Gerra komisaria |
| 76. | Garaycoechea Juan | Gerra komisaria |
| 77. | Garate Martin | Gerra komisaria |
| 78. | Garcia Moreno Emilio | |
| 79. | Garcia Martin | Gerra komisaria |
| 80. | Garcia Miguel | Gerra komisaria |
| 81. | Garcia Silvio | Gerra komisaria |
| 82. | Garicano Jose Maria | Gerra komisaria |
| 83. | Garcia Prisciliano | Gerra komisaria |
| 84. | Gonzalez Arzuaga Antonio | Gerra komisaria |
| 85. | Gonzalez Florencio | Gerra komisaria |
| 86. | Gonzalez Jacinto | Gerra komisaria |
| 87. | Gonzalez Jose Maria | Gerra komisaria |
| 88. | Gutierrez Antonio | Gerra komisaria |
| 89. | Ibarramendiarán Ignacio | Gerra komisaria |
| 90. | Idarreta Sañudo Jose Manuel | Gerra komisaria |
| 91. | Igartua Cortabarria Tomas | Gerra komisaria |
| 92. | Igarza Eusebio | Gerra komisaria |
| 93. | Igarza Lasa Roman | Gerra komisaria |
| 94. | Ilarduya Echeverria Serapio | Gerra komisaria |
| 95. | Iraegui Luis | Gerra komisaria |
| 96. | Irizar Cecilio | Gerra komisaria |
| 97. | Iturbe Andres | Gerra komisaria |
| 98. | Iturriaga Alejandro Vicente | Gerra komisaria |
| 99. | Iturricastillo Augusto | Gerra komisaria |
| 100. | Izaguirre Eugenio | Gerra komisaria |
| 101. | Laria Florencio | Gerra komisaria |
| 102. | Larrañaga Pablo | Gerra komisaria |
| 103. | Lasa Vicente | Gerra komisaria |
| 104. | Lete Mauricio | Gerra komisaria |
| 105. | Linazisoro Agustin | Gerra komisaria |
| 106. | Lizundia Dionisio | Gerra komisaria |
| 107. | Loiti Canuto | Gerra komisaria |
| 108. | Loiti Aranzabal Jose | Gerra komisaria |
| 109. | Lombide Burgada Justo | Gerra komisaria |
| 110. | Lopez Arechaga Jacinto | Gerra komisaria |
| 111. | Lopez Balbino | Gerra komisaria |
| 112. | Lopez Egido Crescencio | |
| 113. | Lopez Jacinto | Gerra komisaria |
| 114. | Lopez Tomas | Gerra komisaria |
| 115. | Madinabeitia Juan | Milizianoa |
| 116. | Manso Emeterio | Gerra komisaria |
| 117. | Manso Marino | Gerra komisaria |
| 118. | Martinez Arrese Francisco | Milizianoa |
| 119. | Martinez Julian | Gerra komisaria |
| 120. | Martinez Manuel | Gerra komisaria |
| 121. | Martinez Mariano | Gerra komisaria |
| 122. | Mazurriaga Evaristo | Gerra komisaria |
| 123. | Montoya Delfin | Gerra komisaria |
| 124. | Moñuz Eleuterio | Gerra komisaria |
| 125. | Moñuz Vicente | Gerra komisaria |
| 126. | Moreno Agustin | Gerra komisaria |
| 127. | Moreno Garcia Antonio | Gerra Komisaria |
| 128. | Moreno Justo | Gerra komisaria |
| 129. | Mugica Demetrio | Gerra komisaria |
| 130. | Mugica Emilio | Gerra komisaria |
| 131. | Mugica Federico | Gerra komisaria |
| 132. | Mugica Joaquin | Gerra komisaria |
| 133. | Mugica Pedro | Gerra komisaria |
| 134. | Muguruza Jeronimo | Gerra komisaria |
| 135. | Muñoz Victor | Milizianoa |
| 136. | Muruamendiaraz Ignacio | |
| 137. | Nuin Luengo Antonio | Gerra komisaria |
| 138. | Olalde Pedro Joeé | Gerra komisaria |
| 139. | Olaortua Esteban | Gerra komisaria |
| 140. | Oñate Jose Luis | Milizianoa |

Bergarako Udal artxiboa

| | | |
|---|---|---|
| 141. | Ormazabal Luis | Gerra komisaria |
| 142. | Osinaga Emilio | Gerra komisaria |
| 143. | Recabeitia Candido | Gerra komisaria |
| 144. | Redondo Prudencio | Gerra komisaria |
| 145. | Saizar Pablo | Gerra komisaria |
| 146. | Salaberria Segundo | Gerra komisaria |
| 147. | Salazar Carmelo | Gerra komisaria |
| 148. | Salazar Raimundo | Milizianoa |
| 149. | Zanguitu Alfonso | Gerra komisaria |
| 150. | Zanguitu Gallastegui Casiano | Gerra komisaria |
| 151. | Sastre Antonio | Milizianoa |
| 152. | Sologaistoa Martin | Gerra komisaria |
| 153. | Telleria Gabino | Gerra komisaria |
| 154. | Telleriarte Victoriano | Gerra komisaria |
| 155. | Trasobares Carlos | Gerra komisaria |
| 156. | Trasobares Pablo | Gerra komisaria |
| 157. | Unamuno Sebastian | Gerra komisaria |
| 158. | Urcelay Unzueta Pedro | Gerra komisaria |
| 159. | Uriarte Pablo | Gerra komisaria |
| 160. | Uribe-Echeverria Higinio | Gerra komisaria |
| 161. | Uribesalgo Francisco | Gerra komisaria |
| 162. | Urra Ignacio Vicente | Gerra komisaria |
| 163. | Urrutia Eusebio | Gerra komisaria |
| 164. | Valdivielso Julio | Gerra komisaria |
| 165. | Valencia Sebastian | |
| 166. | Valero Andres | Gerra komisaria |
| 167. | Zabala Igarzaburu Francisco | Gerra komisaria |
| 168. | Zaitegui Juan Maria | Gerra komisaria |
| 169. | Zubizarreta Ignacio | Gerra komisaria |

Gerrako lantaldeaz gain, honako hauek ere sortu ziren: Hornidurak, Erregistroak, Gurutze Gorria, Zulatzaileak, Garraioak, Ordena Publikoa, Telefonoa eta Finantzak [87].

Gerrak aurrera egin ahala, EAJ eta STVko 30 lagun inguru



**Bergarako Gerra komisariako boluntarioa, STVkoa.**
*BUA, R. 100538*

Bergarako Udal artxiboa

Loiolako basilikara abiatu ziren instrukzio militarra jasotzera; horri esker, Loiola batailoia izango zenaren lehengo urratsak ematen izan ziren [88].

Beste gerretan gertatzen den bezala, 36ko gerrak ere lekualdatuak eta errefuxiatuak ekarri zituen. Gipuzkoako biztanle askok eskura zituzten gauzak hartu eta jatorriko herrietatik ihes egin behar izan zuten, borroka beraien etxeetara hurbiltzen zen bitartean. Horietako asko, Bizkai aldera joan aurretik, Bergaran bizitzen egon ziren.

1936ko irailaren 16an, kanpotik etorritako 1.427 pertsona zeuden Bergaran. Etorritakoetatik 676 etxebizitza partikularretan hartu zituzten, besteak berriz ostatu desberdinetan topatu zuten babesa. Elikatzeko, berriz, jangela publikoetara joaten ziren [89]. *"Para alimentar a los cientos de refugiados, se organizó entre los obreros una suscripción a la que contribuían con 1 peseta semanal"* [90].

Data hauekin bat, esan beharra dago 1936ko irailaren 15 eta 16an Bergarako Labegaraietako soldatzaileek Ormaizteguiko tren zubia moztu zutela. Gainera, 1936ko irailaren 15ean bertan, Fronte Popularrak, Bergarako Gerra Komisariaren bitartez, honako hau jakinarazi zion Bergarako Labegaraietako zuzendariari: *"Sírvase entregar al dador todo el material que ellos precisen, y una vez terminado el trabajo se le volverá a reintegrar"* [91].

Zubia botatzea kolpe gogorra izan zen matxinatuentzat, trenbidea baitzen soldaduak eta armak garraiatzeko erarik egokiena. Gertaera horrek aurrerabidea galarazten zien. Mola jenerala Ormaizteguira hurbildu zen eta zubia berehala konpontzea agindu zuen. Hura mozteko ausardia izan zuten langileei *eskarmentu eredugarria* ematea agindu zuen.

Dirudienez, zubi-mozketa hartan parte hartu zuen soldatzaile bakarra aurkitu zuten, Antonio Galdós Ugarte oñatiarra. Bergarako Labegaraietako lantegian atxilotu eta gero, Ormaizteguiko zubiaren ondoan fusilatu zuten. Halere, Bergarako Labegaraietako beste langile batzuk Bizkaira ihes egin zuten, matxinatuak herrian sartu aurretik; Jose Altuna Garitano (EAJ-STV) eta Florencio Estevez Paredes UGTko komunistaren kasua tartean. Antonio Galdós Ugarte eta Jose Altuna Garitano soldatzaileak ziren; Florencio Estevez Paredes, berriz, laguntzailea [92]. Emilio Garcia Moreno eta Pedro Elorza Azcoaga bergararrak ere atxilotu zituzten, eta zubiaren txikizioan parte hartu zutela aitortu zuten [93].

Pedrotxok, horrela kontatzen zuen Ormaizteguin gertatutakoa: *"Aquella acción in extremis, en aquellos críticos momentos, antes de caer Debagoiena en manos de los fascistas, realizada por unos trabajadores de Altos Hornos de la Unión Cerrajera de Bergara, fue toda una hazaña. Florencio Estevez, que tenía 21 años, era hermano de mi madre. Tras los fusilamientos y cárceles, la represión continuó con los Ugetistas de esta empresa; mi padre, Silvio García, dirigente socialista, fue despedido y tuvo que ir a trabajar a Placencia"* [94].

Argi dago Molak agindutako eskarmentu eredugarria langile horiekin bete zela. Hiruk bizia galdu zuten: Antonio Galdós, Florencio Estevez eta Emilio Garciak. Jose Altunari, berriz, 30 urteko kartzela-zigorra ezarri zioten.

Hilabete batzuk geroago, 1937ko irailean, *Unión Cerrajera*k Ormaizteguiko zubian egindako ikuskapena eta desegite-proposamena onartu zitzaion. Handik gutxira, zubiko 100 tona inguru enpresari eman zitzaizkion [95].

Matxinatuak San Migelera heldu zirenean, miliziano errepublikazale batzuk Pedro Telleria Antzuolako sakristau

Bergarako Udal artxiboa

karlistarekin topo egin zuten. Kartzelatik irten berria zen eta Bergaratik ihes egitera zihoan. Zoritxarreko topaketa, milizianoek bertan hil baitzuten askatasuna berreskuratu berri zuen Telleria.

## 3.2. Matxinatuak Bergaran

Tropa faxistek Bergaran agerraldia egin orduko, biztanleriaren zati handi bat herritik alde eginda zegoen dagoeneko. Gehiengoa Bizkai aldera joana zen errepublikaren babespean jarraitzeko, frankisten mehatxua gero eta handiagoa baitzen.

Irailaren 21eko iluntzean iritsi omen ziren faxistak Bergarako San Migel tontorrera. Gau hartan, eztanda edo kainoi tiroren bat entzun zen herrian; faxistek San Migel tontorretik botatako jaurtigaia, hain zuzen ere. Eulogio Diez Sanchezek "*Viva España*" oihukatzen zutela entzun zuen San Migel tontorraren parean, Surra tontorraren inguruan baitzeuden bera eta lagunak [96].

Irailean, Mola jeneralaren agintepean zeuden Gipuzkoa konkistatzeko zutabeek Debagoieneko herri guztiak banan-banan konkistatzeari ekin zioten. Irailaren 22an, Perez Salas-en taldea, Montejurrako Tertzioaren lau konpainia eta Azkoititik zetorren 8. mendi-batailoiaren bi konpainia Karakateko mendi-hegietatik sartu eta Soraluzeko herria iluntzean konkistatu zuten.

Egun hartan bertan, zutabe berekoa zen Tejero kapitainaren bigarren taldea, Los Arcos teniente koronelaren aginduz, eta bezperan Antzuola hartu ondoren, Bergaran sartu zen San Migel menditik goizeko bederatzi eta erdietan, *Partida Volante de JONS*eko *Falange Española*ko batzuen eta *América* Errejimentuaren sei konpainiaren agintean.



1937ko maiatzaren 2an. Soldaduak San Martin Agirre plazan.
*BUA, R. 053446*

Bergaran sartu ziren egun bereko goizeko hamarrak inguruan, Arrasatetik zetorren eta bandera errepublikanoa zeraman auto bateko gidaria geldiarazi zuten, Zubieta kalean (Zapatarikuan) jarrita zegoen errepideko kontrol batean. Gaua atxiloturik pasa ondoren, Labegaraietara eraman zuten bertan zegoen frontoian fusilatzeko asmoarekin. Fusilatua izan ostean bizirik jarraitu zuen, eta arrastaka Bentaberri izeneko etxera iristea lortu zuen.

Don Román izeneko medikuari abisua eman zioten, zauritua sendatu zezan. Baina Don Románek faxistei gertatutakoaren berri eman zien, hau da, fusilatua bizirik gelditu zela eta berak sendaketak

Bergarako Udal artxiboa

egin behar izan zizkiola. Ondorioz, berriz atxilotu eta berriz fusilatu zuten. Oraingo honetan Deskarga izan zen lekua, eta beraien asmoa behin betiko lortu zuten [97].

### 3.2.1. Udalbatza berria

Espainiako mugimendu "salbatzailearen" tropek herria hartu eta gero, bilera egin zuten irailaren 28an, Iruñeko Gobernadore Militarrak agինduta, plazako komandante militarra zen Ignacio Liso ingeniari komandantea lehendakari zela, Jose de Zavala Juaristi behin-behineko alkateak eta Pedro Otazua Tarafa, Federico Zarauz Mugica , Alejandro Mendieta Barrena, Rafael Santa Maria Lecumberri, Camilo Basterrechea Aguirre, Jose Antonio Arteche Dondiz, Florencio Alústiza Mecolalde, Francisco Valladolid Gabilondo eta Emeterio Elgarresta Larreateguik, Bergarako Udaleko zinegotzi karguak onartu zituztenek [98].



1937ko apirilaren 18an Luis Ruiz de la Prada, Bergarako Alkatea.
*BUA, R. 053449*

Handikiro *lan egitea zin egin zuten Bergara, Gipuzkoa, Espainia eta armadaren alde.* Udaleko idazkari eta udal funtsen diruzain izendatu zuten bitartekotasunez Donato Gallastegui Zabaleta.

*Espainian egiten ari zen Gurutzada Nazional* handiak sortzen zituen gastu jasangaitzak arintzeko, diru-laguntzak egitera behartu zuten herria. Horretarako, mugimendu salbatzaile haren aldeko izen-emate bat ireki zuten. Dirua Bergarako *San Sebastian*, *Guipuzcoano* eta *Vizcaya* bankuetako kontuetan sar zitekeen.

Burgoseko Defentsa Nazionaleko Batzordera telegrama bat bidaltzea erabaki zuten, bertan beraien *ordezkaritza nazional legitimo eta benetakoari atxikimendu apurtezina adierazten* zieten. Azkenik, Plazako komandanteari bidaltzeko ofizio bat egitea erabaki zuten, okupazio-aldian *herriari emandako eta herriarekin izandako begirunea* eskertzeko.

Jose Zavala Juaristik dimititu egin zuen irailaren 30ean, eta Luis Ruiz de la Prada izendatu zuten alkate.

### 3.2.2. Ihesak, fusilamenduak eta garbiketak (depurazioak)

Herritarrak kontrolpean izateko eta haiei buruz informazio baliagarria eskuratzeko, Luis Ruiz de la Prada alkateak agindu zorrotzak eman zituen. Alkatearen esanetan, irailaren 22a baino lehen herritik ihes egin zuten herritarrak salatu behar zituzten herrian geratzen

Bergarako Udal artxiboa



COMISIÓN CLASIFICADORA
DE PRISIONEROS
SANTANDER

Con el fin de poder cumplir el cometido encomendado a esta Comisión de Clasificación de Prisioneros con los mayores elementos de juicio, ruego a V. que con la máxima urgencia y a ser posible a vuelta de correo se remitan informes detallados sobre actuación política de los prisioneros señalados al respaldo en relación con el Movimiento Salvador, así como también sobre su conducta, antecedentes políticos y sociales, y si perteneció como directivo destacado o simple afiliado a algún partido político.

Este informe deberá facilitarlo en vista de los datos y antecedentes que le consten y de los que pueda recavar de las Autoridades Civiles y Eclesiásticas, Guardia Civil, Jefes y Presidentes de Entidades patrióticas, y de personas de reconocida solvencia moral y de acendrado amor a España.

Santander 5 de Octubre de 1937.
II AÑO TRIUNFAL.
El T. Coronel Presidente,

Sr. Alcalde de VERGARA.-

1937ko urriaren 5eko idatzia. Atxilotuak sailkatzeko batzordeak Bergarako Alkateari herritarrei buruzko txosten politikoak eskatuz.
*BUA, 02 C/0073-34*

Bergarako Udal artxiboa

zirenek. 1936ko urriaren 28an argitaratu zuen bandoaren ondorioz[99], Bergarako herritarrak eta enpresak behartuta zeuden herritik ihes egindakoak nortzuk izan ziren salatzera. Agindu horri uko egiteak ekar zitzakeen errepresaliei beldurrez, familia bereko kideek euren guraso eta anai-arreben izenak jakinarazi zituzten. Populazioaren % 11,5ak alde egin zuen herritik 1936ko irailaren 22a baino lehen[100]. Gutxienez 1.111 pertsona baino gehiago salatu ziren.

Dokumentazioak azaltzen digunez, zerrenda horretan badira herritik kanpo zeuden baina salatuak izan ez ziren bergarararrak. Horien artean, Fronte Popularrak Bilbon preso zituenak, *Unión Cerrajera*tik alde egindakoak edo Gursen preso egon ziren beste batzuk.

Ihesaldiak eragin zuzena izan zuen herriko ekonomian, enpresa txiki zein handiek langile ugari galdu baitzituzten 1936ko irailean. Aipatzekoa da *Unión Cerrajera* enpresaren kasua; bertan lanean ziren 40 urtetik beherako 311 langile (600 langilek ziharduten lanean) egun batetik bestera desagertu ziren. Ihesi joandako gizonezkoen 23 emazte bakarrik eta babesik gabe gelditu ziren euren 60 umerekin.

Hona hemen herrian “alargun” edo senarra frontean zutela gelditu ziren emazte eta seme-alabak, eta anai-arrebarik gabe gelditu zirenak [101].

**SENARRA IHES EGINDA ZUTEN EMAKUMEAK**

| | Izena | Adina |
|---|---|---|
| 1 | Jacinta Aranzabal Idigoras [102] | 46 |
| 2 | Felipa Elcoro Iribe Iraola [103] | 34 |
| 3 | Urbana Aguirrebeña Pildaín [104] | 32 |
| 4 | Raimunda Fernandez de Jauregui [105] | 30 |
| 5 | Francisca Aguirre Begiristain [106] | 31 |
| 6 | Maria Larrañaga Unzaín [107] | 44 |
| 7 | Dolores Retegui Aranes [108] | 32 |

| | | |
|---|---|---|
| 8 | Calixta Ecenarro San Miguel [109] | |
| 9 | Estefania Lazcano Zumelzu [110] | |
| 10 | Magdalena Larrañaga Arrieta [111] | 31 |
| 11 | Francisca Azcarate Echeverria [112] | 34 |
| 12 | Prisia Sotil Mendizábal [113] | 35 |
| 13 | Francisca Arabaolaza Amilleta [114] | 38 |
| 14 | Leonor Larrasquitu Sesma [115] | 24 |
| 15 | Maria Susperregui Ubidia [116] | |

**AITA IHES EGINDA ZUTEN HERRITARRAK**

| | Izena | Adina |
|---|---|---|
| 1 | Rufina Loiti Arocena [117] | |
| 2 | Aurea Ezcorrialde Aguirreolea [118] | 16 |
| 3 | Maria Begoña Egiluz Iriarte | 14 |
| 4 | Jose Maria Aranzabal Albisu [119] | 14 |
| 5 | Jose Antonio Arrieta Muro | 16 |
| 6 | Josefa Aranzabal Lazcano | 29 |
| 7 | Julia Lopez de Abechuco Ochoa [120] | 18 |
| 8 | Regina Bilbao Igarza | 21 |
| 9 | Jose Maria Jauregui Aramburu [121] | 15 |
| 10 | Luis Mari Lizarralde Ezpeleta | |
| 11 | Julia Lizarralde Ezpeleta | |
| 12 | Javier Lizarralde Ezpeleta [122] | |
| 13 | Pilar Larrañaga Susperregui | |
| 14 | Jose Mari Larrañaga Susperregui | 6 |
| 15 | Asun Larrañaga Susperregui | 5 |
| 16 | Ángelita Larrañaga Susperregui | 3 |
| 17 | Ana Larrañaga Susperregui | 2 |

**ANAI-ARREBA IHES EGINDA ZUTEN HERRITARRAK**

| | Izena | Adina |
|---|---|---|
| 1 | Paula Urriategui [123] | 19 |
| 2 | Dolores Zurutuza Osoro [124] | 18 |
| 3 | Gregori Sasiaín Larrañaga [125] | 18 |
| 4 | Ricardo Bacaicoa Albéniz [126] | 16 |

Bergarako hainbat faxistak Osintxu auzoko 18 pertsonako zerrenda bat egin zuten. Haietako zortzi ezin izan zituzten atxilotu, Bizkai aldera joanda zeuden-eta. Urriaren hasieran, Juan Urcelay, Eusebio Gallastegui eta Domingo Aguirre atxilotu zituzten, eta Ondarretako kartzelara eraman zituzten[127].

Egun haietan, beste 17 herritar harrapatu zituzten: Pedro Zabala Garay, udalbatzaren idazkaria; Luis Zabala Garay, herriko botikaria eta aurrekoaren anaia; Juan Maria Zaitegui, udal irakaslea; Ángela Ariznabarreta, udal irakaslea; Antonio Arriola, Labegaraietako arduraduna; Eustaquio Aguirrolea, argazkilaria; Gracián Aguirre, jantzi dendakoa; Eustaquio Aguirre; Marcos Mugica, joskintzakoa; Martin Ezpeleta; Jose Maria Azcarate; Patxi Azcargorta –aita-; Patxi Ceciaga, garraiolaria; Sebastian Sáizar; Redondo, *La Voz de Guipúzcoa* egunkariaren saltzailea; Martin de Ipitza; eta Jose Beitia Beitia.

Antonio Martin Ballesterosek, Lehen Auzialdiko epaileak, atxilotuen familiak bisitatu zituen eta, sinestezina bada ere, jakinarazi zien militar bati ordainduz gero, hark espetxeratutako senidea aske utziko zuela. Eta horrelaxe egin zuten. Fusilatuak ez izateko dirutza kopuru handiak ordaindu zizkioten Ramiro Llamasi, komandantzia militarreko epaileari [128].

Depurazioak gobernuaren ideologiaren kontra azaltzen diren talde edo gizabanakoei aplikatzen zaizkie; batez ere, alderdi politiko, administrazio publiko eta armadan aritzen direnei.

Gerra herrira iritsi eta berehala hasi ziren depurazioak, alkateak eskatuta noski. 1936ko urriaren 7ko osoko bilkuran Luis Ruiz de la

Bergarako Udal artxiboa

Prada alkateak udaleko medikuak aldatzea eskatu zuen. Dirudienez, Victorio eta Jose Mugica Arana medikuak herritik kanpo zeuden, Fronte Popularrekoei beraien zerbitzuak eskaintzen. Ondorioz, udal mediku postua galdu zuten irailaren 30ean. Mugicatarrak ordezkatzeko, bi mediku berri kontratatu ziren Manuel Vara eta Carlos Orueta [129].

Atxiloketak ohiko bilakatu ziren 1936ko urrian. Hilabete horretako 20.ean Osintxuko beste zazpi pertsona bahitu zituzten. Ambrosio Aguirre izan zen lehena. Hau espetxera sartu aurretik Mekolaldera eraman zuten. Gauza bera egin zuten Jose Garaycoechearekin. Eta Ricardo Zanguitu tren-geltokiko lanpostuan ustekabean harrapatu zutenarekin, eta Rufino Aquizu Osintxuko bere etxetik atera zutenarekin ere horixe egin zuten.

Egun hartan, arratsaldez, atxiloketa gehiago egin zituzten. Seiak aldera, *Alcorta y Cía* enpresara sartu ziren faxistak, Tomás eta Ildefonso Iñarra anaiak eramateko. Tomás tindategi saileko arduraduna zen; Ildefonso, berriz, langile espezialista. Atxiloketaren testigu izan zirenek gogoan dute nola Ildefonsok, lantegitik irtetean, ohiturei eutsiz, lan-jantzia kendu eta betiko esekitokian utzi zuen, biharamunean lanera bueltatuko zelakoan. Geroxeago, Felipe Garmendia Okina atxilotu zuten.

Osintxuko *Centro Republicano*-ko lokalera eraman zituzten atxilotu guztiak[130]. Batzuei hauteskundeetan kontu-hartzaile lanetan aritu izana eta errepublikanoak izatea leporatu zieten. Besteei, Eusko Langileen Alkartasunekoak izatea egotzi zieten. Matxinatuen esanetan, Ambrosiok sagardoa zerbitzatzen zien milizianoei; eta Felipek, berriz, hauteskundeetan eusko abertzaleei botoa eman ziela zioten.

Ez zen epaiketarik egon, eta Julio Perez Salas-en agindupeko Montejurrako Tertzioko erreketeek sententzia erabakia zuten aldez aurretik. Guztiek izango zuten heriotza-zigorra.

Atxilotuei konfesatzeko aukera eman zieten, erreketeen lerroetan "*Don Poli*"—Policarpo Cia Navascues — kapilaua baitzegoen. Presoek, euren buruarekin zer gertatu behar zen ez zekitela, konfesioa onartu zuten: "*Hil behar bagaituzte, bai*" hitzekin. Baina, apaizak erantzun zien "*Bai zera! Ez zaituztete hilko*"[131].

Presoak exekutatu aurretik, Arteche zinegotziak —Osintxuko lantegi bateko jabeak— Felipe Garmendia salbatu zuen. Haren emazte eta lau seme-alaba *Centro Republicano*-ko egoitzatik aske uzten zuten uneko lekukoak izan ziren. Errekete batek Felipe bularrean jo zuen eta soldaduak abisu bat eman zion: "*Guri buruz ezer esaten baduzu, denok hilko zaituztegu*" [132].

Presoak, eskuak loturik binaka, Parisgain izeneko lekura eraman zituzten, Osintxu eta Mekolalde arteko ingurura. Arratsaldeko zazpiak eta erdietan kamioitik jaitsi zituzten. Anbrosio Aguirrek bazekien zer gertatu behar zen eta Zanguiturekin partekatzen zuen soka askatzen hasi zen.

Parisgainera iristean, erreketeek honako hau agindu zuten: "*Datozela bi horiek, eta lau horiek lau pausu eman ditzatela atzerantz*". Tomás eta Ildefonso Iñarra aurreratu ziren. Tiro egin eta gero, soldadu batek belarrietatik oratu eta tiro bana edo graziazko tiroarekin anaia biak behin betiko hil zituen [133].

Erreketeen buruak agindu berri bat eman zuen: *"Datozela lau horiek"*. Une hartan, Anbrosiok ordura arte lotua zuen soka askatu eta Ricardo Zanguituri hau esan zion: "*Neu banoia*". Errekete piketearen aurka jo zuen eta arineketan joan zen iluntasunerantz, beraren eta bere jazarleen arteko distantzia areagotuz. Haien tiro eta balak entzun zituen bere inguruan txistu-zaratak eginez. Erreketeen uluak ere

Bergarako Udal artxiboa

entzuten zituen, direnak eta ez direnak esaten.

Ingurua ondo ezagutzen zuenez, malatu batera egin zuen jauzi eta han, makurturik, zain gelditu zen. Bat-batean tiro gehiago entzun zituen, eta ondoren kamioiaren hotsa. Kamioi hartan bost lagunen hilotzak zihoazen.

Hiru egunetan zehar ibili zen Anbrosio, Osintxu inguruko mendietan. Bere burugabekeria hartan, han eta hemen ikusten zituen erreketeak, baserritar batekin topo egin zuen arte. Izarre baserriko Patxiren laguntzari esker Basalgora iritsi zen, Amutxastegi baserrira. Etsairik gabeko ingurua zen hura, "*inor ez zegoen eremua*". Handik, Garbe mendigainean zeuden milizianoei deitu zieten eta haiek esku-ohean eraman zuten Elgetaraino [134].

Bitartean, erreketeek haren lagunen gorpuak Osintxutik urrun eraman zituzten; Antzuolako Deskarga mendatera, hain zuzen ere. Han, errekatxo baten ondoan lurperatu zituzten. Lau urte geroago, senideek hildakoen gorpuak fosa hartatik atera zituzten, eta Bergara eta Osintxuko kanposantuetara eraman. Hildakoen garezurretan agerian zeuden tirokatutako balek utzitako markak.

Ildefonso Iñarrak lanerako erabiltzen zuen buzoak bere lekuan jarraitzen zuen, esekitokian zintzilik. Agian patu bidegabe hari errespetua erakusteagatik, bere lankideek ez zuten mugitu nahi izan. Eromenak ukatutako biziarekiko errespetu eta doluminaren adierazgarri bihurtu zen jantzi hura. Urte batzuk geroago, enpresak *Narvaiza* izena zuen garaian, mahoizko oihal higatu eta hondatua bere kabuz erori zen lurrera [135].

## 3.3. Udalaren jarrera

Orain arte, gerra garaian udal ordezkariek izan zuten jarrera gainetik landu den gai bat izan da. Baina Osintxun gertatutakoari esker, iluntasunean mantendu den gai hori gehiago argitu daitekeela uste da.

Artetxe zinegotzia Felipe Garmendiaren egoeraz arduratu eta askatua izan zedin lortu zuen. Ondorioz esan dezakegu Udalbatzako kide batzuek bazekitela zer gertatu behar zitzaien atxilotuei egun hartan. Artetxek zeozer egin arren, bere lankideek beste alde baterantz begiratu zuten [136].

Luis Ruiz de la Prada Martinez de la Torre alkateak, arestian aipatutako Artetxerekin batera, "*Espainiako Armada Salbatzaile*"ko jeneralak zoriondu zituen. Alde batetik, Aranda buruzagia Oviedo "*liberatzeagatik,*" eta bestetik, gauza bera egiteagatik Toledon.

Udalbatzakoek ez zizkieten, modu publikoan behintzat, doluminik eman errepublikaren alde hil zirenen senideei. Bai, ordea, Bergarako plazako komandante militar Ignacio Liso jaunari, haren lehengusu Jose Perez Nieva ingeniarien kapitaina hil zenean.

Udal berriaren lehenengo erabakia matxinatuen aldeko manifestazioa eta festa ugari bultzatzea izan zen. Beste alde batetik, euskarara bideratutako diru-laguntzak suntsitu eta udal langile eta irakasleen garbiketa sistematiko bat eraman zuten aurrera. Emakumeei ile-mozketak egin zizkieten eta beste lau pertsona gehiago fusilatu zituzten.

1936ko azaroaren 2ko osoko bilkuran, alkateak Madril laster "*aske*" geldituko zenaren ustean "*viendo cercana la liberación de Madrid por las tropas del movimiento salvador de España y la importancia realmente extraordinaria que reviste esta Victoria inminente de nuestro*

Bergarako Udal artxiboa

*glorioso Ejército dijo que convenía que Bergara se incorporase a la fiesta que, con carácter nacional, habrá de celebrarse en toda la zona liberada del yugo marxista, organizando para ello algunos actos que servirán, al mismo tiempo, para exteriorizar todo el júbilo del vecindario vergarés.*

*Propuso para ello aceptar la propuesta del director del Orfeón donostiarra para actuar en un salón público de la villa. Realizar un Te Deum en San Pedro de Ariznoa, con asistencia de las autoridades, organizar una retreta militar con la participación de Pelayos, Flechas, Margaritas, Falange, Requetés, Banda Municipal y autoridades. Junto a ello se harían festejos de menor importancia de acuerdo con la efeméride a celebrar"* [137]. Baina antolatutako jai hori bertan behera gelditu zen, matxinatuek Madril ez baitzuten hartu.

Alkateak, Bergarako udalbatzaren izenean, esker onak bidali zizkien Alemania, Italia eta Portugalgo kontsulei, Franco Generalaren


Copia
TELEGRAMA NO ESCRIBA SU TELEGRAMA SIN LEER LAS INDICACIONES CONSIGNADAS AL DORSO
Destino San Sebastian Nación
Núm. Palabras día 20 hora Nov 1936
Vía Indicaciones Clase
Transmitido a
Serial
Hora
Tasa ptas. cts.
SELLOS
DESTINATARIO: Consul de Alemania
Señas o número del teléfono
TEXTO: En nombre ayuntamiento y pueblo de Vergara ruego transmita al Gobierno aleman nuestro expresivo agradecimiento por haber reconocido Gobierno Español General Franco
El alcalde de Vergara
Luis Ruiz de la Prada
ESCRÍBASE CON TODA CLARIDAD
PARA PODER COMUNICAR AL INTERESADO CUALQUIER NOTICIA SOBRE EL CURSO DE ESTE TELEGRAMA, HÁGASE CONSTAR EL
DOMICILIO DEL EXPEDIDOR
RECIBO DEL TELEGRAMA
Número
Destino
Para D.
Expedido por D.
Palabras
Clase
Tasa pts. cts.

**1936ko azaroaren 20an Luis Ruiz de la Pradak, Bergarako Alkateak, Alemaniako kontsulari bidalitako telegramaren kopia.**
*BUA, 02 C/3967-08*

Gobernua onartu izanagatik. *"El alcalde, en nombre del consistorio de Bergara envió agradecimientos a los cónsules de Alemania, Italia y Portugal en agradecimiento por el reconocimiento que sus países habían hecho del Gobierno del General Franco Un gesto que para el alcalde era valiente y proclamaba ante el mundo la legitimidad de nuestra auténtica representación nacional"* [138].

Urtea amaitzear zela, 1936ko abenduaren 9ko osoko bilkuran, Alkateak iragarri zuen *Moscardó* jeneral heroikoak Bergarara etortzeko gonbita onartu zuela. "*Para rendir así un tributo de simpatía y cariño al pueblo en que nació su señora madre. Los concejales decidieron nombrar Hijo Adoptivo de la villa al general de brigada José Moscardó Ytuarte, por su ascendencia bergaresa y sus extraordinarios méritos, entre los que estaba la heroica defensa del alcázar de Toledo. Además se decidió cambiar el nombre de la calle Convenio por General Moscardó Ytuarte*" [139].

Gainera, Espoloiko pasealekuaren izena aldatzea erabaki zuten, eta *Paseo de España* jarri "*como homenaje de simpatía y admiración a nuestra Patria, grande y gloriosa* [140].

Julio Ruiz de Alda *Falange Española*ko *Partida Volante*ko buruak ere diru-eskaera bat luzatu zion udalari komunikatu baten bitartez. Gabonak heltzear zirenez: "*recordando al consistorio que, ellos habían sido los primeros en entrar en Bergara tras la dominación marxista. A lo que los gobernantes locales decidieron hacerles entrega de 500 pts. y recordándoles que dicha entrega no sería un precedente para otras solicitudes similares que se hicieran al respecto e indicando que se entregaba dicha suma porque ellos habían sido los primeros en conquistar la villa para las tropas del movimiento salvador de España"* [141].

Bergarako Udal artxiboa

Errepublikaren garaian euskarak izandako bermea azkar batean amaitu zen matxinatuak Bergaran sartu eta gero. Azaroaren 23ko osoko bilkurak euskaraz irakasten zuten eskolei 6.000 pezetako diru-laguntza kentzea erabaki zuen. Baina aurrekontu-sail hori ez zen desagertu, eta beste zerbitzu batzuk ordaintzeko erabili zen; besteak beste, Donostiako San Antonio ospitalean eta Bergarako gaixoen babes-etxeetan egonaldiak ordaintzeko.

1937ko urtarrilaren 4ko plenoan aho batez erabaki zuten Gobernazio Batzordearen xedapenak exekutatzea, 1936ko irailaren 30ean erabaki bezala. Udaleko langileen plantilara itzultzeko eskubidea zutenen eta ez zutenen zerrenda bat erabaki zuten.

Senideek egindako eskaerak kontuan izan gabe, udal langileen plantilatik asko baztertu zituzten Fronte Popularraren ingurukoak izateagatik, eta "*ante la ocupación inminente de la villa por las tropas del Movimiento Salvador de España […] habían abandonado el servicio*"[142].

**EZ ONARTUAK.**

**Fronte Popularraren ingurukoak eta lana abandonatu zutenak**

| | | |
|---|---|---|
| 1. | Blas Iraeta | Udaltzaina |
| 2. | Felipe Unamuno | Udaltzaina |
| 3. | Pedro Arrondo | Udaltzaina |
| 4. | Juan Jose Unamuno | Aldi baterako gauzaina |
| 5. | Federico Urriategui | Gauzaina |
| 6. | Fermin Oquina | Gauzaina |
| 7. | Daniel Mugica | Udal fondoen hartzailea |
| 8. | Eulogio Irizar | Idazkaritzako 1. mailako ofiziala |
| 9. | Luis Larrañaga | Bulegoko mereziduna eta argi/ur kontadoreen ikuskatzailea |
| 10. | Felix Iparraguirre | Idazkaritzako laguntzailea |
| 11. | Ignazio Oregui | Udal langilea |
| 12. | Felix Larrañaga | Atezaina |
| 13. | Benigno Zurutuza | Kale garbitzailea |
| 14. | Jose Larrañaga | Kale garbitzailea |
| 15. | Asensio Aspiazu | Ehorzlea |
| 16. | Victorio Mugica | Mediku titularra |
| 17. | Jose Mugica Arana | Mediku titularra |

Beste bergarar batzuek lanera bueltatzeko eskaera egiteko aukerarik ere ez zuten izan. Hauek, "Mugimendu Nazionala" herrira sartu zenean, familia osoarekin alde egin baitzuten. Beraz, senideek ere ezin izan zuten eskaerarik bete.

1936ko irailaren 30ean erabakita, itzultzea eskatu ez zuten Fronte Popularretik gertu zeuden udal langileak, haien senideekin Bergaratik joanda aurkitzen zirelako, kargugabe berretsi ziren.

**BERRETSITAKO KARGUGABETZEAK**

| | | |
|---|---|---|
| 1. | Eduardo Ibarrola | Gauzainen ordezko kaboa |
| 2. | Bernardino Torres | Alondegiko langilea |
| 3. | Fernando Maria Zabaleta | Erizain titularra |

Zerbitzua utzi ez zuten enplegatuei baina "*fueron detenidos por la Autoridad Militar por sus actuaciones antipatrióticas por ser miembros del Nacionalismo Vasco y el Frente Popular*"[143], espediente instrukzioa egingo zaie.

**ESPEDIENTE INSTRUKZIOA**

**Atxilotuak izan zirenak**

| | | |
|---|---|---|
| 1. | Pedro Zabala Garay | Udal idazkaria |
| 2. | Luis Zabala Garay | Farmazeutiko titularra |
| 3. | Juan Mari Zaitegi | Udal irakaslea |
| 4. | Ángela Ariznabarreta | Udal irakaslea |

Bergarako Udal artxiboa

Zerbitzua utzi ez zuten enplegatuek, baina haien jarrera politikoaren ondorioz erantzukizunak garbitu behar zituztenek, batez ere 1936ko uztailaren 18az geroztik, enplegua eta soldata galdu zuten. Espedienteen instrukzio-egilea izan zen lehen alkateordea Alejandro Mendieta Barrena izan zen.

**ESPEDIENTE INSTRUKZIOA**

**Lana utzi ez zutenak**

| | | |
|---|---|---|
| 1. | Jose Ignacio Ugarteburu | Ur/Argi zerbitzuen arduraduna |
| 2. | Anastasio Arozena | Araneko zentralekoa |
| 3. | Melchor Muruamendiaratz | Pol-poleko iturburuen zaindaria |
| 4. | Concepcion Azkorbebeitia | Komun publikoen arduraduna |
| 5. | Jose Cruz Arriaran | Kale garbitzailea |

Lanera itzuli zirenak mugimenduarekin bat egin zuten langileak ziren [144].

**BERRIZ ONARTUAK**

| | | |
|---|---|---|
| 1. | Blas Larrea | Udaltzain inspektorea |
| 2. | Jose Eguren | Gauzainen kaboa |
| 3. | Abdon Sasieta | Udal langilea |
| 4. | Benito Echeverria | Udal albaitari zerbitzuetako langilea |
| 5. | Francisco Beitia | Udal langilea |
| 6. | Ignazio Azcàrate Askasua | Alondegi eta hiltegiko kudeatzailea |
| 7. | Jose Maria Lizarralde | Alondegiko zaindaria |
| 8. | Miguel Amutxastegi | Kontuhartzailea |
| 9. | Román Oyarzábal | Mediku titularra |
| 10. | Marino Basterra | Udal irakaslea |
| 11. | Ignacio Zabala | Udal irakaslea |
| 12. | Basilisa Navarro | Udal irakaslea |
| 13. | Ignacio Gonzalez | Udal Musika Bandaren zuzendaria |
| 14. | Ramon Gonzalez | Nesken musika eskolako irakaslea |
| 15. | Bonifacio Lascurain | Lehen danbor-jolea |
| 16. | Justino Lascurain | Bigarren danbor-jolea |
| 17. | Jose Ugarte | Atabalaria |
| 18. | Julian Echániz | Txistu-jotzailea |
| 19. | Claudio Ruiz de Austri | Udal laborategi kimikoko langilea |
| 20. | Juan Azula | Zergaria Angiozar eta Uberan |
| 21. | Jose Belastegui | Aldi baterako kale garbitzailea |
| 22. | Francisco Berraondo | Udal laborategi kimikoko zuzendaria |
| 23. | Claudio Urcelay | Gauzaina |
| 24. | Felipe Azpiazu | Udaltzaina-zergaria |

Herriko 9 irakasle garbitu edo depuratuak izan ziren. Alkatearen aurkako txostenak izan zituzten 1936ko urriaren 23an eta lanetik bidaliak izan ziren.

- Udal eskolatik, Juan Maria Zaitegi eta Ángela Ariznabarreta.
- *Escuela Elemental del Trabajo*tik: Ramon Sagastume Alzaga, Migel Zumalabe, Jose Martin Marcos, Conrado Mugerza eta Francisco Arquero Esteban. "*Tamalez, 1936an piztutako gerrak Lanbide Eskolaren etenaldia eragin zuen. Elementala itxita egon zen 1944ra arte*" [145].
- Eskola Nazionaletik: Pedro Hidalgo Ortega
- "*Maestras Particulares*": Maria Oyanguren (Aritznoa ikastolakoa) eta Flora Idarreta[146]. Azken hau, erbestetik etorri zenean, ez zuten onartu Labegaraietako irakasle bezala: "*Gerra aurretik maistra nintzen Labegaraietan, baina itzuli nintzenean ez zidaten utzi lan horretan jarraitzen. Bai Asun eta bai nik eskola partikularrak eman genituen, baina alkateak jakin zuenean hori ere debekatu egin ziguten*" [147].
- Depuratua izan zen beste irakasle bat Juana P. Álvarez izan zen [148].

Bergarako Udal artxiboa

- Beste batzuk: Esperanza eta Asunción Arostegui Navas ahizpak [149].

Gizonei fusilamenduak, espetxe-zigorrak, zigor ekonomikoak… ezarri zitzaizkien; baina emakumeek ere ongi sufritu zuten guda garaian. Matxinatuek publikoki iraindu nahi zituzten Bergarako neska haien familiak, modu batean edo bestean mendeku gosez. Emakumeari, bere barruko emetasunean umiliatzeko, ilea moztu eta errizino-olioa hartzera behartu zitzaion. Bergaran gutxienez hiru emakumeri egin zioten hori: Norberta Ezpeleta Leturia —San Antonioko auzotarra—[150], eta Filomena Gallastegui eta Conchita Aramberriri —Osintxuko auzotarrak— [151].

Eta giro nahasi hartan, beste lau bergarar izan ziren fusilatuak: Andres Alberdi, Gregorio Larrañaga Aranzabal, Francisca Oyanguren eta Faustino Garitano Ascasibar. Azken bi horiek Arrasaten bizi ziren eta Oiartzunen fusilatu zituzten.

Matxinatuen ejertzitoak Espainiako hiriak konkistatzen zituen bitartean, Bergara kontrolatzen zuten matxinatu nazionalek jaiak antolatzen zituzten errepublikazaleen porrota ospatzeko. Hori dela-eta, 1939. urteko lehen lau hilabeteetan 2.036 pezeta gastatu zituzten "*para celebrar las conquistas realizadas por el Glorioso Ejército Español y las de la Victoria*" [152].

# 3.4. Gerrako Frontea

## 3.4.1. Borroka-lerroko bergararrak

Zaila da alderdi batean zein bestean borrokatu zuten bergararrak zenbat izan ziren jakitea; halere, esan dezakegu gutxienez 700 bizilagunek hartu zutela parte 36ko Gerran. Errepublikaren Aldekoak boluntario sartu ziren 200 lagun inguru izan ziren. Horietatik 65, STV sindikatuak eta EAJ alderdiaren baitan sortutako *Loyola* izenarekin ezagutu zen batailoian ibili ziren. Beste 54 bergarar UHPko milizietan ibili ziren, UGTkoak eta ideia errepublikanoak, sozialistak zein komunistak aldarrikatzen zituztenak. Gainera, Amuategi, Kirikiño, *Dragones,* Ertzainak, *Amayur*, Saseta, Itxarkundia, San Andres, *Brigada Mixta Vasco-Pirenaica, Artillería Ligera,* Mikeleteak, *Intendencia,* Gerra-garraioan eta Zapadoreetan ibili ziren boluntarioak ere zenbatu ditugu.

Matxinatuen alderdian armetan altxatu ziren bergarar boluntario gehienak erreketeak ziren, Zumalacarregui Tertzioko 91 herritar; gero Montejurra Tertziora pasa zirenak. Beste tertzio batzuekin ere bat egin zuten bergararrek: San Migel, *San Ignacio*, *Cristo Rey* eta baita *Radio Requete*rekin ere. Bergaran ideia nazionalsindikalistak zituzten herritarrak ere baziren, eta horietako seik Falangearekin bat egin zuten.

Errepublika defendatzen zuten batailoietan herritarrak gogoz zerrendaratzen ziren bitartean, matxinatuekin borrokatu zuten gehienak soldadutzara deituak izan ziren; herria matxinatuen eskuetan erori bezain laster, kintoak erreklutatzen hasi zirelako.

UHP Batailoia Bilbon sortu zen eta hirugarren konpainian

Bergarako Udal artxiboa

oñatiarrak eta bergararrak zeuden. Pako Unzurrunzaga zen kapitaina, eta Ramon Arruabarrena, Nemesio Urbina eta Ignazio Herran tenienteak [153].

**UHPko BERGARARRAK**

| | | | |
|---|---|---|---|
| 1 | Paco Unzurrunzaga | 28 | Felix Aranzabal Guridi |
| 2 | Nemesio Urbina Perez | 29 | Nicolás Coranti Amas |
| 3 | Ramon Arruabarrena | 30 | Florencio Estevez Paredes |
| 4 | Ignacio Herran Izarra | 31 | Pedrotxo Garcia Estevez |
| 5 | Jose Loiti Lascurain | 32 | Pablo Uriarte Jauregui |
| 6 | Inazio Bilbao | 33 | Ramon Gabilondo San Martin |
| 7 | Jesus Uriarte | 34 | Jose Maria Ambroy Pacheco |
| 8 | Jose Herran | 35 | Leon Sanchez Fernandez |
| 9 | Eusebio Mugica Unamuno | 36 | Dionisio Lizundia |
| 10 | Santiago Arizabaleta Cortabarria | 37 | Andres Aguirre Cortabarria |
| 11 | Francisco Arrieta Aróstegui | 38 | Eugenio Aguirre |
| 12 | Emilio Garcia Moreno | 39 | Eleuterio Muñoz |
| 13 | Juan Garmendia Iriarte | 40 | Ezequiel Urriategui |
| 14 | Román Igarza Lasa | 41 | Victoriano Presa |
| 15 | Blas Unamuno Amuchastegi | 42 | Casimiro Unamuno |
| 16 | Pedro Reglero Rodriguez | 43 | Juan Ormaechea Idigoras |
| 17 | Justo Lombide Burgada | 44 | Francisco Torres |
| 18 | Jose Villar Diez | 45 | Demetrio Manso Paredes |
| 19 | Rufino Ezpeleta Emparanza | 46 | Eusebio Urrutia |
| 20 | Jose Loiti Aranzabal | 47 | Felix Unamuno |
| 21 | Jose Martinez Estevez | 48 | Tomás Muñoz |
| 22 | Martin Oxinalde Elorriaga | 49 | Prudencio Gabilondo Gabilondo[154] |
| 23 | Carmelo Gabilondo Gabilondo | 50 | Santiago Zárate |
| 24 | Emeterio Manso Paredes | 51 | Ramon Lete |
| 25 | Demetrio Manso Paredes | 52 | Manuel Larrañaga |
| 26 | Prudencio Redondo Rodriguez | 53 | Carlos Ormazábal |
| 27 | Serapio Ilarduya Echeverria | 54 | Modesto Urbina |

Pedrotxo Garciak kontatzen zituen UHP Batailoiarekin gerran bizitako esperientziak: "*Lehen borroka, suzko bataioa, izugarria izan zen. Gasteiz aldera erasoa jotzea erabaki zuten, eta guri Maroto*[155] *mendia egokitu zitzaigun. Arlabango porturantz ematen du. Muino batera bidali gintuzten, eta gerrate karlistetako lubakiak zeuden oraindik… baina denborarekin leundu egiten dira, eta han sartu gintuzten konpainia osoa. Kainoi xume bat tiroka hasi zen, eta hainbat hil zizkigun han; aldamenean nire auzoko bi jausi ziren, San Antoniokoak. Bata soinujolea zen eta bestea Ilarduyaren anaia, eta beste bati hankak moztu zizkioten. Hain agerian zegoen mendi hartan konpainia oso bat sartzea ere! Egundoko hotza egiten zuen, kapitaina Zabale zen, Pako Unzurrunzaga. Handik jaitsi, eta Heriotzaren Pinudia erasotzera eraman gintuzten, Legution. Ezin izan genuen hartu. Eta handik Elorrion zegoen batailoiaren kuartelera eraman gintuzten*" [156].

Hona hemen Inazio Bilbao batailoikide bergararrak Intxortan gertatutakoari buruz emandako azalpenak: "*Elorrioko kuarteletik pasatu ostean, Barazartik Ubidera joan ginen, eta handik oinez Gorbeia mendiaren oinetara, Gasteizko urak dauden tokira; Gorbeiako urtegiak ziren. Hegazkinen eta artilleriaren bonbardaketa gogorrak jasan genituen, baina baja gutxirekin, oso ondo gotortuta geundelako. Bien bitartean, etsaien infanteriak erasotzen gintuen, eta eraso bezainbeste aldiz bazterrarazten genituen, halaxe bi ala hiru egunetan. Gero oinez joan ginen Oilarraren Bidegurutzeraino (Cruce del Gallo), eta handik kamioietan berriro Elorriora; Durangotik igarotzea kostatu egin zitzaigun, bonbardatu berria baitzegoen.*

Elgetara igo ginen. Lehen eta hirugarren konpainiek ia hartu zituzten Intxorta eta Zabaletako baserrien artean zeuden lubakiak, Angiozar parean, Larrañaga eta Dragones batailoiekin lotura eginez. Gure hirugarren konpainia lubakiak okupatzera joan zen, eta ez zeuden

Bergarako Udal artxiboa

lekuan eraiki egin genituen, kanposantutik Karabieta taineraino. Apirilaren 20an hasi zen borroka, eta kanoikada gogorrekin hasten ziren erasoaldiak. Gero etorri ziren bonbardatzeko trimotore handiak eta kazak. Hark sumendia zirudien, metraila alde guztietatik. Ikusi genuen infanteriako tropak Asentziotik Intxortara zihoazela, euren kokaguneetatik irtenda. Tiroka hasi ginen, eta asko erori ziren hilda. Baja asko ere izan genituen, eta gorpuak gauez erretiratu behar izan ziren. Mandoek munizioa eta jatekoa zeramaten lubakietara. Gauean barealdia erabatekoa izan zen, egun beldurgarria izan zen bi aldeontzat.

*Hala iritsi ginen 24. egunera. Iluntzean, Karabieta eta Elgeta artean zeuden lau kanoiak ateratzeko agindua jaso genuen; eskuz atera behar ziren, ez zegoen kamioirik. Hala jaitsi ginen hirugarren konpainia Eibarrera, Armeria Eskolara, handik Ermura eta gero Bilbora. Borrokak jarraitu zuen, eta bergarar batzuek Santanderreko bidea hartu zuten, besteek Gijonera zuzentzen ziren bitartean”* [157].

*Loyola* batailoiaren jatorria *Euzko Gudaroste*ko milizia gipuzkoarra da. Loiolako santutegia abiapuntu hartuta, faxisten kontra borrokan aritu ziren Gipuzkoan 1936ko abuztu eta irailaren bitartean.

Gernikan formatu zuten batailoia eta agindu berrien zain gelditu ziren. Eusko Gudarostean osatutako lehen batailoia izan zen. Hauexek ziren taldeko bergararrak: Lino Lazcano komandantea, Marcos Azcàrate kapitaina eta Jose Lete, Pedro Yarza “Kepa” eta Unzurrunzaga tenienteak, Hilario eta Agustin [158].

Marcos Azcàratek, *Loyola* batailoiko kapitainak, kontatzen zuen: *“Se reunieron en el Batzoki de Bergara, Irujo y Monzón hacia el 20 de julio. En el PNV había entonces un ambiente de duda. El PNV estaba constituido por personas de la derecha que eran nacionalistas, pero a la vez conservadores.*

Irujo era el que estaba firme en que había que ir con el Gobierno Republicano y Monzón estaba de acuerdo con él. Yo creo que éstos influyeron bastante en la decisión del partido nacionalista de entonces de ir con el Gobierno de la República.

Los más decididos fuimos a Loyola como voluntarios para salir al monte. Allí se empezó a organizar algo. Al principio éramos unos 20 o 30 de Vergara; había gente de todos los pueblos. Luego empezó Saseta a organizar aquello y formó dos grupos. Salimos a los montes a defender para que no entraran los fascistas de Navarra. Las primeras salidas fueron a Ernio. Allí estaban los carlistas. Estos entraron muy pronto en Tolosa y se hicieron dueños del pueblo.

En las faldas del Ernio, hacia Bidania, mataron a uno de los primeros nacionalistas que salieron al monte: Mikel Alberdi. Fue el primero que cayó del grupo que nos habíamos reunido en Azpeitia. Fuimos a rescatar el cadáver. Luego fuimos a los montes de Andoain: al Adarra, Buruntza, Ezkuayen y Andatza. Estuvimos allí hasta finales de Agosto.

El 22 de septiembre fue cuando entraron en Vergara los requetés. Nosotros como éramos de allí fuimos a Elgueta y aquí nos encontramos con dos grupos de extranjeros que vinieron a combatir contra el fascismo. Estos trajeron su armamento y nos ayudaron mucho.

*Una vez se había estabilizado el frente en Elgeta se formo el batallón en Guernica”*. Marcosen hitzak bat datoz gertatutakoaren, batailoia ofizialki Gernikan eratu baitzen 1936ko urrian.

Gizon honek kontatu zuen nolakoa zen bergararrek osatu zuten konpainia: “*Los de Bergara formamos 4ª compañía del batallón Loyola. Comandante del Batallón Loyola es Lino Lazcano Leturia de Bergara. La*

Bergarako Udal artxiboa

*primera salida de nuevo a Elgeta. Para la ofensiva del 30 de Noviembre contra Villareal nos mandaron allí. Luego a Urkiola tres o cuatro días. Luego fuimos al monte Mugarra y luego sobre Mañaria*". Bilbo erori zenean Santanderrera joan ziren, eta, Santoñako hitzarmena sinatuta, *Loyola* batailoiko kideak italiarren eskuetan erretiratu ziren Limpiasen[159].

**LOIOLA BATAILOIKO BERGARARRAK**

1 Lino Lazcano Leturia
2 Marcos Azcarate Alberdi
3 Jose Lete Aranguren
4 Kepa Yarza
5 Agustin Unzurrunzaga Lazpiur
6 Hilario Unzurrunzaga Lazpiur
7 Esteban Juaristi Aramburu
8 Natalio Juaristi Aramburu
9 Juan Maria Jauregui Idigoras
10 Jose Maria Jauregui Inchausti
11 Jose Mugica Gordoa
12 Luis Elorza Zabaleta(Koldobika)
13 Juan Larrañaga Urcelay
14 Ubaldo Lamberri Goizueta
15 Enrique Gastañares
16 Manuel Larrañaga
17 Basilio Elorza
18 Nicasio Letamendia
19 Ramon Zabaleta
20 Aniceto Gabilondo
21 Nicolás Larrañaga Zarraga "Kiko
22 Josuren Gabilondo San Martin "Basarte"
23 Fermin Garay Echave
24 Jose Aldazabal
25 Estalisnao Ecenarro
26 Pedro Arluz
27 Santos Echeverria
28 Pello Lascurain
29 Ángel Zanguitu
30 Pedro Bacaicoa ( Periko)
31 Avelino Larrañaga Susperregui [160]
32 Pedro Urcelay
33 Domingo Sarasqueta
34 Demetrio Udaixa
35 Martin Ganchegui Urisabel
36 Alejandro Muguruza
37 Nicanor Arazcoenaga
38 Andres Egaña
39 Justo Egaña
40 Avelino Larrañaga
41 Manuel Ganchegui Urisabel
42 Pantaleon Iturricastillo
43 Lorenzo Iturrricastillo
44 Lucio Gallastegui
45 Jesus Oquina
46 Jesus Sañudo
47 Fermin Oquina
48 Luis Ormazábal
49 Martin Mozo
50 Bonifacio Ganchegui Olaberria
51 Luis Iztueta
52 Nicanor Letamendia
53 Julian Zabala
54 Gracián Larrañaga
55 Lucio Léibar
56 Santiago Gangoitia
57 Juan Arrese
58 Javier Azcargorta
59 Jose Azcargorta
60 Florencio Aguirre Ceciaga
61 Daniel Lete
62 Hilario Urquizu
63 Glorioso Elgarresta

Bergarako jendea beste batailoi batzuetan ere izan zen: *Kirikiño, Saseta, Dragones, Amaiur, Amuategui, San Andres*, eta *Ertzainak*-en adibidez. Bergaratik ihes egindako beste hainbat herritar ere ezagutzen ez ditugun beste batailoi batzuetan ibiliko zirela uste da, borrokan izan zuten euren parte-hartzearen berri jaso baita.

**KIRIKIÑOko BERGARARRAK**

1 Miguel Muruamendiaraz Alberdi
2 Francisco Idigoras Urizar
3 Ángel Gardoqui Eguren
4 Alfonso Ezpeleta Leturia
5 Toribio Orueta Igarza

**ERTZAINAK-eko BERGARARRAK**

1 Marcos Lazpiur Elcoro
2 Juan Miguel Lete Cortabarria
3 Gregorio de Ugarte
4 Justo Egaña Muruamendiaraz
5 Jose Mayora Aldazabal
6 Pedro Irizar Oregui [161]

**DRAGONES-eko BERGARARRAK**

1 Pedro Jose Sagasta
2 Felipe Elorza Hériz
3 Vicente Arambarri

Bergarako Udal artxiboa

**AMAYURko BERGARARRAK**

1 Imanol Mugica

2 Esteban Altuna Narbaiza

**SAN ANDRESeko BERGARARRA**

1 Luis Fernandez Sodupe

- Felix Muruamendiaraz, berriz, Aguirre Lehendakariaren gidari bezala ere ibili zen[162]. Bernandino Barrenechea Larrañagak, berriz, artilleria arinean borrokatu zuen.
- Itxarkundia batailoian: Esteban Aranguren Mugica eta Juan Salinas Orena.
- *Brigada Mixta Vasco-Pirenaica:* Juan Eguren Aguirrezabal, Ignacio Vicente Urra, Luis Madinabeitia Murguzur eta Valentin Castro Mata.
- Juan Ganchegui Lizarralde, Amuategui batailoian.
- Genaro Albizua Ecenarro, mikeletea.
- Jose Maria de Pedrosa Martin, gerra-garraioan.
- Vicente Migura, Isidro Monzónen txoferra.

Zumalacarregui Tertzioa 1936ko urrian egituratu zen. Kide gehienak inguruko erreketeak ziren: Oñati lehen konpainia zen; Arrasate, bigarrena; eta Bergara, hirugarrena. Konpainia horietan Zegama, Segura eta Zarauzko erreketeak ere baziren, eta Tolosan burutu zituzten lehen jarduerak. Errekete Tertzio horren hirugarren konpainia bergararrez osatua zegoen, bere kapitaina Gilberto Amosarrain zelarik.

Tertzio izendapena gerra hasi zenean sortu zuten, "*Karlista konprometituek egina zuten euren lau Erreketeen edo Tertzioen formazioa. Horietako bik, Azpeitia eta Oñati inguruetan kokatuak, Loiolako santutegian elkartzeko agindua jaso zuten uztailaren 19an. Donostiako goarnizio militarraren Garaipena aurreikusten zen, eta ondoren bi tertzioak enkoadratu eta armatzea. Baina Donostiako eta Bilboko goarnizioek altxamenduarekin bat egin ez zutenez, ez zen posible izan Bizkaiko eta Gipuzkoako erreketeak berehala enkoadratzea. Bi unitate horietako arduradunak ados jarri ziren ahalik eta jende gehienarekin Nafarroara eta Arabara pasatzeko. Haietako batzuk Arabako erreketeen tertzioetan sartu ziren, eta berehala bidali zituzten batzuk Bizkaiko frontera, eta besteak Somosierrakora*"[163].

*Zumalacarregui* Tertzioko bigarren eta hirugarren konpainiek Muru hartu zuten, baja ugarirekin, eta 1937ko apirilaren 1ean *Dragones* batailoia erretiratu ostean, apirilaren 9an Anbotoko magalera igaro ziren, eta hamar egun geroago Tellamendiren okupazioa hasi zen. Blindatuak 21ean sartu ziren Aramaion. Hurrengo eguna Karraskainen pasatu zuten. Santa Ageda okupatu, eta apirilaren 25ean Elorriora jaitsi ziren. Han Mola jeneralaren bisita izan zuten, eta gauez Artibasora igo ziren, Apatamonasterio gainera. Bertako muino bat okupatu zuten 26an. Trimotoreak pasatzen ikusten zituzten handik, alemaniarren *Junker*-ak, Gasteiztik Udalaitzerantz, eta mendia erreferentziatzat hartuta biratzen. Gernika bonbardatzen ari zirela zabaldu zen konpainian, baina inor ez zen ausartzen iritzia ematen.

Maiatzaren 4an Mola hil zen, maiatzaren 11n eta 12an Bizkargi hartu zuten, eta 13ko gauean kontraerasoak izan zituzten. Hiru egun geroago, 16an, Esturoko kokagunea eraso zuten, eta borroka gogor baten ostean okupatu zuten, baja batzuekin eta hildako batekin. Garcia Valiño koronelak zoriondu egin zituen idatzi baten bitartez.

Mendirik mendi kostalderantz jo, eta Asturiasko lurretara iritsi zen Zumalacarregui Tertzioa abuztuaren 31n. Mazucoko borroketan

Bergarako Udal artxiboa



**Mairuak eta erreketeak gerra garain, baserri baten aurrean.**
*BUA, R. 100222*

parte hartu zuten. Penintsulako iparralde osoa hartuta zegoen, eta urriaren 25ean Bilbora bueltatu ziren itsasontziz. Gero, Montejurra Tertzioarekin elkartu ziren Iruñean. Bi tertzio horiek Nafarroako Lehenengo Dibisioko partaide ziren.

Irailaren hasieran, erreketeak Soriara joan ziren trenez, Guadalajarari eraso egiteko, baina Teruelgo frontera eraman zituzten. Handik irailaren 25ean iritsi ziren Gea de Albarracín herrira. Irailaren 31n, izugarrizko hotzarekin, La Muela okupatu zuten, baina ez hiriburua: *"Etsaiak gogor eusten dio defentsari eta eraso egiten du, baina geldiarazi egiten dugu"*, irakur daiteke Daniel Mugarzaren egunerokoan. Tejero koronelaren Lacar Tertzioa ordezkatu zuten urtarrilaren 2an, eta etsaien etengabeko eraso gogorrak jasan behar izan zituzten.

Ebroko guduan parte hartu ondoren, zauritu eta hildako askorekin, Fatarrella eta Flix okupatu zituzten. Otsailaren 10ean bukatu zen gerra Katalunian. Vic-en trena hartuta, Bartzelonako desfilean hartu zuten parte [164].

Zumalacarrregui Tertzioan 89 bergarar daude. Gerran 58 erreketek galdu zuten bizia, eta horietatik 22 bergararrak ziren.

**BERGARAKO ERREKETEAK**

| | | | |
|---|---|---|---|
| 1 | Gilberto Amozarrain Cenitagoya [165] | 36 | Victor Lasa Diaz de Mendivil |
| 2 | Teodoro Unamuno Unzueta [166] | 37 | Alejandro Lizarralde Alberdi |
| 3 | Julian Elorza Izurrategui | 38 | Bonifacio Aranzabal Lascurain |
| 4 | Ignacio Aguirreolea | 39 | Ramon Igartua Echeverria |
| 5 | Lorenzo Garitano | 40 | Eustaquio Calvo Santos |
| 6 | Eugenio Telleria Goicoechea | 41 | Leandro Ugarte Beitia |
| 7 | Valentin Larrañaga Larrañaga | 42 | Benito Badiola Larrañaga |
| 8 | Esteban Altuna Garitano | 43 | Julian Gorrochategui Lascurain |
| 9 | Jose Maria Sañudo Lasagabaster | 44 | Benigno Iñarra Lizarralde |
| 10 | Pedro Irizar Oregui | 45 | Jose Maiztegui Ezpeleta |
| 11 | Juan Iturralde Galdós | 46 | Miguel Aguirre Duran |
| 12 | Leon Azpiazu Larrañaga | 47 | Aurelio Bilbao Bagoazgoitia |
| 13 | Vicente Migura Azcoaga | 48 | Cruz Román Gallastegui Insausti |
| 14 | Felix Garmendia Astarloa | 49 | Jesus Urquiola Muruamendiaraz |
| 15 | Martin Sologaistoa Biain | 50 | Antonio Gutiérrez Olaiz |
| 16 | Andres Aranzabal Loiti | 51 | Pedro Maria Aramburu Ibarra |
| 17 | Ángel Barandiaran Dorronsoro | 52 | Francisco Zanguitu Leturiondo |
| 18 | Jesus Gorospe Muruamendiaraz [167] | 53 | Esteban Suinaga Larrañaga |
| 19 | Andres Arruti Mazmela | 54 | Juan Alberdi Astigarraga |
| 20 | Juan Alcorta Mugica | 55 | Bernandino Lamarain Ugaldea |
| 21 | Esteban Aldecoa Irazola [168] | 56 | Florentino Ganchegui Iriondo |
| 22 | Esteban Aramburu Arano | 57 | Ignacio Elcoro-Iribe Lizarralde |
| 23 | Luciano Larrañaga Erostegui | 58 | Jesus Julian Gonzalez Bastida |
| 24 | Melchor Alberdi Alberdi | 59 | Juan Ignacio Mugica Ardanza |

25 Ignacio Garitano Berraondo
26 Maximiano Murua Idigoras
27 Donato Gallastegui Zabaleta
28 Gregorio Portu Biain
29 Felix Cortabarrria Azcarate
30 Martin Azcarate Ascasua Larrañaga
31 Dionisio Arruti Mazmela
32 Sebastian Unamuno Lizarralde
33 Juan De Torre Echeverria
34 Vicente Mugica Jauregui
35 Marcelino Pascual Gallastegui Zabaleta
71 Pedro Ojanguren Aranzabal
72 Cirilo Ruiz Garay [172]
73 Alejandro Ayerdi Ariznabarreta
74 Victoriano Gallastegui Lamarain [173]
75 Ignacio Pildaín San Miguel [174]
76 Tomás Ojanguren Larrañaga [176]
77 Simon Portu Biain
78 Felipe Garmendia Eguren
79 Joaquín Osinaga Aguirre [177]
80 Pedro Elorza Anduaga
81 Alejandro Luarisayerdi Arinazbarreta

60 Alejandro Lizarralde Alberdi
61 Tomás Elexpuru Ezcurra[169]
62 Francisco Gallastegui
63 Eleuterio Iñarra Lizarralde
64 Ramon Garitano Elcoro [170]
65 Jose Leon Larrañaga Larrañaga
66 Jose Manuel Salegui
67 Aurelio Garayondo Bideluce
68 Juan Iturralde Galdós
69 Julian Gorrochategui Lamarain
70 Jose Maria Idarreta [171]
82 Manuel Ascasibar Alberdi
83 Pedro Igartua Lazcano
84 Cesareo Eguren Macazaga
85 Jose Barrutia Zabaleta
86 Roque Larrañaga Guisasola [175]
87 Gregorio Mugica Unamuno
88 Pedro Maortua Lamarain
89 Teodoro Unamuno Arizabaleta

Jose Antonio Primo de Riveraren jarraitzaileak ere izan ziren Bergaran eta Falangeko kide egin ziren. 36ko gerran frontean parte hartzeaz gain, atzeguardian eginkizun ugari izan zituzten, besteak beste *paseoak* gauzatuz.

**FALANGISTAK**

1 Jose Maria Camacho Jauregui
2 Valentin Justino Movilla Eizaguirre
3 Cruz Orbe Irureta
4 Guillermo Atorrasagasti Ganchegui
5 Marcelino Garmendia Astarloa
6 Jose Maria Muruamendiaraz Alberdi [178]

Kintoen lehen deialdia 1936ko azaroaren 23an egin zen, 1935 eta 1936ko deialdietako gazteak matxinatuen gudarosteekin bat egiteko bideratuta. Bigarren deialdia 1937ko urtarrilaren 15ekoa izan zen. Handik gutxira, martxoaren 17an hirugarren deialdia egin zen, 1937ko kintoak soldadutzara deituz. Urte hartan, maiatz eta uztailaren bitartean deialdi gehiago egin ziren 1938ko eta 1939ko kintoak erreklutatzeko. Azken deialdia 1938ko otsailaren 17koa izan zen,



**Bergarako frontean, 1937ko martxoan, Goicoerrotea komandantearen artilleria postuan. Goicoerroteako markesa, artilleriako komandantea; Agustin Telleria, FET de las JONS-eko Gipuzkoako burua eta Gerrako Karlista Batzordekoa; Luis Ruiz de la Prada, Bergarako Alkatea eta Gipuzkoako Diputatu probintziala.**
*BUA, R. 053448*

Bergarako Udal artxiboa



**Lubakiak.**
*BUA, R. 100795*

orduan 1940ko gazteak deitu zituzten.

Dakigunez 18, 19 eta 20 urte bitarteko 642 gazteri zuzendutako soldadutzarako deialdiak izan ziren arestian aipatutakoak. Baina guztiek ez zuten matxinatuen armadarekin bat egin. 132 lagun Bergaratik ihes egindа zeuden, beste 55 hilik zeuden (gehienak gerraren ondorioz), eskuindar ideologiadun beste lau bergarar Bilboko presondegian zeuden, eta ezkertiar ideiak aldarrikatzen zituzten beste hiru gazte errepublikaren aldeko langile-batailoietan zeuden.

Laburbilduz, gutxienez kintak harrapatutako Bergarako 388 gazte 36ko Gerran parte hartzera bultzatuak izan ziren matxinatuen aldera. Hala ere, gazte horietatik 60, soldadutzarako deialdiak hasi baino lehen, matxinatuen alderdiarekin batera borrokan ziren, han ere boluntarioak zirelako. Dirudienez, hiru errekruta-mota zeuden: Zaleak, Hotzak eta Aurkakoak [179]. Lehenengoak Mugimendu Nazionalaren sareko erakundeetako kideak ziren. Bigarrenak ez zuten Mugimenduaren aldeko edo kontrako jarrerarik. Talde horretan sartzen ziren behartuta borrokatu zutenak. Hirugarren taldea, aurrekari negatiboak zituztenek osatzen zuten. Hala ere, azken horiek ez ziren auzipetuak izaten, euren aurrekariak arinak izaten baitziren.

| **Errepublikaren Aldekoak** | | **Matxinatuen Aldekoak** | |
|---|---|---|---|
| Loyola | 80 | Kintoak | 388 |
| UHP | 54 | Zumalacarregui | 89 |
| Besteak | ±60 | Falangistak | 6 |
| | | Besteak | ±50 |
| Guztira | ±200 | Guztira | ±500 |

### 3.4.2. Basalgoko pasadizoa

Gerraren ondorioetako bat anaiek anaien aurka borrokatu behar izatea da. Bergaran hori gertatu zela arrazoitu da ikerketa honetan. Batzuek ideiengatik borrokatu zuten etsai zituzten anaien aurka; baina beste askok eta askok kintak harrapatuta borrokatu zuten.

Euskal Herriko jendeak lagun hurkoa zuen etsai, bizilaguna edo koadrilako betiko laguna. Hurrengo pasadizoa Bergarako Basalgo auzoan gertatutakoa da, euskaldunak euskaldunen aurka aritu zirenaren adierazle leiala.

Iñaki Alkain urnietar abertzaleari gertatutako pasartea da hau, 1936ko irail edo urrian gerra-eremuan gertatutakoa. Iñaki Alkainek kontrako lubakian nazionalen aldeko Amezketako artzain batekin

Bergarako Udal artxiboa

topo egin zuenekoa.

Nonbait elkarren berri jakinik, Bergara eta Soraluze arteko Basalgo mendi gainean, gau ilunaren babespean eta bi lubakiren artean, bertsotan egiteko biltzen ziren, halako distantzia batera beti ere, amezketarrak ez baitzuen bere burua erakutsi nahi. Alkainek bi tolosar zeramatzan lagun, eta Elustondo izeneko batek garo artean linterna koskor baten argitara takigrafiatu zituen bertsoak. Ez zuten, bada, berriz elkartzerik izan. Bi tolosarrak Aramaioko Olaetako Santa Kruz mendian hil zituzten, Otxandiotik gertu. Alkain bizirik itzuli zen gerratik, baina amezketar artzainaren arrastorik ez omen zuen inondik inora aurkitu [180].

**ALKAIN**
Amezketako artzaia, entzun
Jakin beharrean nago
Artzai gehienak diran bezela
Zu ez al zera izango.
Zure izen ta apelidua
Ikastea nik nahiago
Nola dituzun zuk, beraz, hoiek
Ez al didazu esango

Artzai jatorra zu zinadela
Lehendabiziko egunez
Gau guzi hartan nere bihotza
Jardun zitzaidan esanez
Nola bertsoa kantatzen zendun
Bihotzan agintasunez
Gaur ere pozik ni jardungo naiz
Zurekin anaitasunez.

Artzai jatorra, azkenekoan
Notizi bat det zuretzat
Nik bezelaxe pena izango
Dezula iruditzen zat.
Bihar goizean Bizkai aldera
Joan beharra daukat behintzat
Agur sendo ta anaitasuna
Izan euskaldunarentzat.

**ARTZAINA**
Alkain gaztea, nola liteke
Galdera hori neretzako?
Esango nuke baldin bakarrik
Balitzake zuretzako.
Ematerikan nere izena
Ez daukat besterentzako
Zuk bezelaxe nik gogo gutxi
Daukat oraindik hiltzeko.

Alkain, nerekin ez dezu izango
Ezertan ere nahastea
Euskaldun jator eta garbia
Zeradela ikuste´a.
Penagarria hau da bakarrik
Alkarri tiroz hastea
Ezer kulparik izan gabetan
Tiroka bata bestea.

Alkain gaztea, nik aditu det
Honela nere artean
Zuk diozunez bihar goizetik
Ez gerade alkartean.
Ongi badakit ni triste-triste
Zu ingurutik joatean
Ez al gerade gu alkartuko
Biok halako batean?

### 3.4.3. Bergara matxinatuen kokaleku

Elgetako frontea egonkortuta egon zen bitartean (1936ko urriaren 4tik 1937ko apirilaren 24ra arte), Bergaran milaka matxinatu egon ziren. Batez ere, inguruan izan ziren erasoaldi garrantzitsuenetan. Ofentsiba horiek matxinatuek beraiek bultzatutakoak izan ziren.



**Tropa italiarrak Bergaran.**
*BUA, R. 027117*

Bergarako Udal artxiboa



N.º 33

Comandancia Militar de Vergara

VALE a favor de Equipo Quirurgico

por cuatro comidas y cinco cenas de TRES ptas en el Hotel Lasa. sumaVEINTISIETE PTAS/

Vergara 2 de Enero de 193?.

El Comandante Militar de la Plaza,



N.º 2

Comandancia Militar de Vergara

VALE a favor de La bateria ʊbuses del 15 y medio

por cuatro comidas en el seminario para oficiales

Vergara 5 de Diciembre de 1936.

El Comandante Militar de la Plaza,

**Bergarako Komandantzia Militarraren agiriak.**
*BUA, 02 C/2917-01*

Bergarako Udal artxiboa

Urriaren 4ko erasoaldian, matxinatuek Intxorta mendian zeuden errepublikaren Aldekoak eraso zituzten. Goizean goiz hasi ziren borrokak eta gauera arte iraun zuten. Gunea babesten ari zirenek kontrabandoari esker eskuratutako armak zituzten, eta eurekin Belgikatik etorritako internazionalistak zeuden.

Gunea babestuz, urriaren 7an lehen Euskal Estatutua onartzea posible egin zuten. Gernikan onetsi zen akordioari Elgetako estatutua ere deitu zitzaion. Estatutuari esker lehen euskal gobernua eratu zen, Jose Antonio Aguirre lehendakari zela.

Matxinatuen porrotak eten egin zuen Mola, Camilo Alonso Vega eta Garcia Valiño jeneralen aurreratzea, eta Francorekin batera estrategia aldatu behar izan zuten; Bizkairantz joan beharrean, Madrilerantz zuzendu ziren.

Espainiako hiriburuan ere arazoak izan zituzten, eta iparraldeko frontera bueltatzea erabaki zuten. Oraingo honetan matxinatuak ez ziren bakarrik etorri; Europako faxismoaren botere suntsitzailearen laguntza izan zuten. Lekukoek diote Alemaniako 22 soldadu kanpatu zutela Bergaran, Ozaetako San Martin baserrian, Mayc enpresaren parean. Bertan, III. Reich-eko soldaduek 108 eta 88 kalibreko kanoiak maneiatzen zituzten [181].

"*Ofensiva Vizcaya*" erasoaldiari martxoaren 31n eman zioten hasiera. Durango izan zen suntsiketaren lekuko. Herriak sufritu zuen bonbardaketan hainbat bergarar hil ziren, Leonardo Amenabar eta bere senide Iñaki, Juana Barrutia Gallastegui eta Felipe San Miguel.

Eraso gogorrak jasan arren, tropa matxinatuak ezin izan zuten Durangon sartu eta handik Bilbora salto egin. Gerra-eremua Bergarako inguruetara bueltatu zen.

Apirilaren 15ean, eguraldi txarraren eraginez behelainoa


Requetés y Falange
Vale por una comida de dos pesetas
Vergara 4 Enero 1937.


Rekete eta falangek 2 pesetako bazkarirako emandako txartela.
*BUA, 02 C/2917-01*

zegoen; ondorioz, ezin izan zuten Intxorta gainetik hegan egin eta ingurua bonbardatu. Erasoaldia hilaren 20ra atzeratzea erabaki zuten, eguraldia lagun izango zuten egunera.

Franco Bergaran zen egun hartan, ejertzitoko buruzagiekin batera, Intxortako lubakietan babesten ziren gudari eta milizianoen porrota bizitzeko gogoz. Baina errepublikaren aldekoek kementsu eta tinko eutsi zioten haien lekuari.

Bergarako 90 kanoiek eta alemaniarren Junker eta italiarren Savoietatik jaurtitzen zizkieten bonbek ez zuten Francok espero bezalako minik eragin. Errekete, falangista edo matxinatuen tropek ezin izan zituzten Intxortako lubakiak konkistatu. Francok, etsita, Bergaratik alde egin zuen.

Matxinatuen ejertzitoa, bizpahiru eguneko atsedena hartu ondoren, berriz ere saiatu zen Mola jeneralaren agindupean Intxorta konkistatzen. Apirilaren 23an tropak mendi haietara bidali zituen, baina, berriro ere garaituak suertatu ziren.

Gudari eta milizianoek apirilaren 24ko arratsaldera arte jasan zituzten erasoak. Egun hartan, Udala eta Elorrioko guda-tokiak galdu zituzten eta Intxortatik alde egin behar izan zuten, lubakiak abandonatuz. Elgeta, egun luze haietako bonbardaketa eta tiroen eraginez, txikituta gelditu zen.

Camilo Alonso Vega koronelak, 1937ko maiatzaren 6an,


Hospital Militar de Sangre.
Vale por.
Dos raciones de sopa con tostadas.
" " " verdura
" " " carne
Una " " pescado
Tres " " fruta seca
El Captán Mil... del ...
Vergara 4 Diciembre 1.936.


Bergarako Hospital Militarrak emandako txartelak.
*BUA, 02 C/2917-01*

Bergarako Udal artxiboa

Otxandiotik, ondoko testua helarazi zion Bergarako udalari: "*La lucha de los Inchortas fue cruenta y la sangre de cientos de soldados de la Brigada regando su suelo nos ligará para siempre a su recuerdo*" [182].

Zenbatu ezinak dira, hilabete luze haietan, herritik pasa ziren batailoi, konpainia eta tertzioak. Jarraian zerrendatzen direnak Bergaran izan ziren matxinatuen kopurua irudikatzeko balio duten datuak dira [183]:

**FALANGE ESPAÑOLARENAK**

1 Partida volante Ruiz de Alda
2 Centuria de Vitoria
3 Capitán Vicondoa
4 1ª Compañía Falange
5 2ª Compañía de Falange Española(Voluntarios de Estella)
6 3ª de Falange
7 7ª de Falange

**ERREKETEENAK**

1 Tercio Oriamendi
2 Tercio Navarra 1ª y 2ª
3 Tercio Nuestra Señora de Begoña
4 Compañía Nuestra Señora del Camino
5 Tercio Montejurra
6 Tercio San Miguel
7 Tercio Roncesvalles
8 Tercio Zumalacárregui
9 Tercio Móvil
10 Guardia de Protección Ciudadana
11 Tercio de Requetés de Radio de Campaña [184]

**AFRIKARRAK**

1 Compañía Indígena de África
2 Regulares Tetuán 5 Tabor
3 Regulares de Melilla
4 Cazadores de Melilla

**MILITARRENAK**

1 Columna Los Arcos
2 Grupo Comandante Tejero
3 Grupo Comandante Pérez Salas
4 Comandante Saleta
5 Columna Comandante Latorre
6 Regimiento de Artillería Nº 2
7 Artillería Pesada Nº 3
8 Regimiento de Montaña Flandes Nº5
9 Batallón de Montaña Sicilia Nº8
10 Regimiento San Marcial Nº 22
11 Artillería ligera Nº11
12 San Quintín 25
13 Burgos 31
14 Zamora 29
15 Zaragoza 30
16 Artillería 4ª Brigada Mixta
17 Valladolid 20
18 Regimiento de Infantería América 23
19 Ingenieros
20 Regimiento de Infantería Argel 27
21 Grupo del Comandante Gómez
22 Comandante Ramos
23 Regimiento Infantería Galicia 19
24 Regimiento Arapiles

**ERREKETE ETA FALANGERENAK**

1 Guardias de Asalto de Vitoria
2 Guardias Civiles de Pamplona

Bergarako Udal artxiboa

3 Vigilantes de las Torres
4 Guardia de Acción Ciudadana

**ITALIAKOAK**

1 Flechas Negras
2 Blindados
3 Artillería Pesada y Ligera 4º Grupo
4 La Aviazzione Legionaria

**ALEMANIAKOAK**

1 Legión Cóndor
2 Artillería antiaérea

Artilleriaren kokalekuak hauek izan ziren: Ola, San Prudentzio, Labegaraieta, Aumategi, Zapatarikua, San Juan Albitxoso eta Pagomendi Angiozarren [185].

**3.4.4. Enpresa militarizatuak**

Matxinatuek egun gutxiko epean herria konkistatu zutenez, Bergarako lantegietako makinaria tokian gelditu zen. Ez zuten Bizkaira garraiatu behar izan lanean jarraitu ahal izateko. Horrek alde ona izan zuen, Bergarako industria bere hartan gelditu baitzen.

Matxinatuek ondo aprobetxatu zuten egoera hori; herriko lantegi asko euren beharretara egokitu zituzten. Horrela, *Unión Cerrajera*n 7,5, 10,5 eta 15,5 kalibreko obusak mekanizatzen hasi ziren, baita abiazioko 500 kiloko bonben hegal egonkortzaileak ere. *"Pero llegará la guerra, durante su trascurso y fundamentalmente los años 1937, 1938 y 1939 que estuvo militarizada obtendría un trato de favor*



**Zerrajerako langilea, bertan egiten ziren bonben ondoan**
*BUA, R. 1000062*

Bergarako Udal artxiboa

*en el suministro de lingote”*[186].

Herriko kotoigintza eta ehungintzako lantegiek matxinatuen gerra-uniformeak josteko ezinbestekoa zen kaki koloreko tela produzitu zuten, ehungintza-sektorearen lantegi gehienak errepublikanoek kontrolatzen zituzten lurraldeetan baitzeuden, Katalunian eta Levanten alegia. *“La fábrica de Tavex en Bergara constituyó una fuente de suministro importante para la Intendencia General de Burgos y durante los tres años que duró la guerra sus equipos trabajaron sin descanso”* [187]. Urte oparoak izan ziren.

Nazionalista ezagunen jabetzako beste enpresa batzuetan ere esku hartu zuten, horien artean “Casa Lazpiur” zapatagintza-tailerra. Agustin Linazisoro jabea kartzelaratu egin zuten eta *tradizionalista* baten esku jarri zuten enpresa. Hiru txandatan lan eginda, bota militarrak egiten zituzten, matxinatuentzat oso estimatuak zirenak.

Militarizatutako lantegietako langileak diziplina zorrotza jarraitu behar izan zuten: “*Mientras tanto los trabajadores militarizados, además de estar afectos a la disciplina militar, tenían que aportar parte de su salario para el aguinaldo del soldado, el “donativo” se ingresaba semanalmente. El 7 de diciembre de 1938 las fábricas de la Unión Cerrajera aportan 30.000 pesetas”* [188].

Egoera honek gerra bukatu arte jarraitu zuen. Levenfeld Koronel Buruaren gutun bati esker dakigu noiz desmilitarizatu zen *Unión Cerrajera* enpresa. Gutuna 5.340 zenbakiduna da, eta 1939ko uztailaren 13an bidali zuen Estatuko Iparraldeko Fabrikazioaz arduratzen zen koronel hark: “Íntima satisfacción que nos deja el haber contribuido con nuestras fabricación a atender las necesidades de nuestro Ejército” [189].

Lantegietako produkzioaren jaitsierak eragin zuzena izan zuen herriko langileen lanpostuetan, bergarar bat baino gehiago kaleratua izan baitzen. Kaleratze horiek horrela egin ziren: *“Primero los obreros procedentes de Campos de Concentración, a menos que no se encuentren obreros libres capacitados para sustituirles, segundo los obreros que no pertenecieran a la empresa el 18 de julio de 1936, en igualdad de labores se despedirán en primer lugar al personal femenino, quedando en último término las viudas o huérfanos de caídos por la patria. En todos los despidos masculinos serán los últimos los huérfanos de caídos por la patria”* [190].

Bergarako enpresa garrantzitsuenen jabeek matxinatuen alde egin zuten. Geroago, erregimen berria sustengatzen lagundu zuten, administraziotik bertatik, gerra denboran egin zuten bezala. Ondorengo errepresalietan ere parte hartu zuten; galtzaileei erbestetik, armadatik edo kartzelatik itzultzean lanpostua ukatuz eta, haien lekuan, enpresa-gizonek aukeratutako langileak jarriz.

### 3.4.5. Gerra-amaiera

Madril nazionalen esku erori bezain laster, Franco jeneralak Burgos hiritik 1939ko apirilaren 1ean gerrako azken partea eman zuen, *Radio Nacional de España*-ren bitartez.

Luis Ruiz de la Prada alkateak pozez hartu zuen hiru urteko gatazka armatuaren amaiera, eta 1939ko apirilaren 3an poztasun hori udal aktetan jaso zuen esanez: “*por el feliz término de la guerra con el triunfo de los sagrados ideales que han de servir de guía para el engrandecimiento y prosperidad de España en la nueva era de paz que ahora comienza”* [191]. Baina bergarar guztiak ez ziren bakean bizi. Askok bizia galdu zuten gerratean, eta beste askok sorterritik betiko

Bergarako Udal artxiboa



**Elgeta suntsituta.**
*BUA, R. 102067*

ihes egin behar izan zuten. Garaileek gizartearen errekonozimendua jasotzen zuten bitartean, eurek bizi berri bat eraikitzeko bidea aurkitu behar zuten.

Luis Ruiz de la Prada alkateak, Alústiza zinegotziak lagunduta, Madrilera bidaiatu zuen Bergarako bizilagunen izenean erositako jakiak eramatera[192]. Madrilgo alkatearen eskertzea jaso zuten: "*En nombre del pueblo madrileño, en el de esta corporación que me honro en presidir y en el mío propio, me complazco en hacer presente al pueblo de Bergara por mediación de su digno alcalde, nuestro reconocimiento por su espléndido donativo de víveres, costeado en su casi totalidad por suscripción pública, que demuestra el cariño que el vecindario de Vergara siente hacia sus hermanos de Madrid que tanto han padecido durante la dominación de las hordas rojas*"[193].

Franco jenerala Bergarako eskuindarren heroi bilakatu zen eta, udalbatzaren adostasunarekin, Bergarako Ohorezko Alkate izendatu zuten. Francok berak izendapena onartu zuen "*y expresa su profundo agradecimiento a esta corporación y vecindario, enviando saludos*"[194].

Udal ordezkariak jeneralak Bergarara burutu behar zuen bisita prestatzen hasi ziren, eta Astrain bitxi-dendan Francori oparitzeko objektuak erosi zituzten[195]. Horrez gain, Ignacio Galarragari 25,5 pezeta eman zizkioten Ohorezko Alkate izendapena jasotzen zuen pergaminoa urreztatzeagatik[196].

Francisco Franco jeneralak 1939ko urriaren 17an bisitatu zuen Bergara. Arratsaldeko bostak inguruan, San Martin Aguirre plazan, Ruiz de la Prada alkateak, Bergarako udalbatza osoak, *Falange*ko herriko lehendakariak eta *Sección Femenina*-ko ordezkariak harrera egin zioten, "*en medio de las ovaciones y vítores entusiastas de la multitud que se había congregado… El momento fue una emoción indescriptible. Las organizaciones juveniles, perfectamente uniformadas, se habían congregado en la plaza. Los gritos de Franco, Franco, Franco eran incesantes y las campanas de todas las iglesias de Vergara fueron echadas al vuelo como demostración del júbilo sincero del pueblo vergarés*"[197].

eta bere segizioa goitik behera lorez apaindutako udaletxera sartu ziren, eta alkateak bergararren poztasuna islatzen zuen diskurtsoa ahoskatu zuen: "*ofrézcole el pergamino que recoge un acuerdo adoptado por la Corporación Municipal de mi presidencia, el día 3 de mayo último, nombrando a S. E. Alcalde Honorario de esta villa de Vergara y la vara que simboliza, con arreglo a nuestras costumbres, esta modesta jerarquía*"[198].

Jarraian, Francok udaletxeko Urrezko Liburuan sinatu zuen

eta San Pedro elizako apaizek lagunduta, palio azpian, Bergarako parrokiara joan zen. Han, organo-jole batek Espainiako himnoa jo zuen. *"El Caudillo oró fervorosamente ante el Cristo de la Agonía"* [199].

2003ra arte, Franco Bergarako ohorezko alkatea izan zen. Urte horretan, maiatzaren 23an, Udal Osoko Bilkurak mozio hau onartu arte: *"Mozio honen bidez Osoko Bilkurari eskatzen diogu Bergarako Udalak 1939ko maiatzaren 3an hartutako erabakia bertan behera laga dezala, Francisco Franco Bahamonte, espainiar diktadoreari Ohorezko Alkate izaera kenduz. Hau ikusirik, Udalbatza osatzen duten 17 udalkideetatik bertaratutako 15ek, aho batez, ondorengo hau erabaki dute: Mozioa onartzea eta, ondorioz, goian jasotako 1939ko maiatzaren 3ko erabakia bertan behera lagatzea"* [200].

Bergarako Udal artxiboa

74 Gerra aurreko Bergarako koadrilla bat.
75 *El Dia*. Donostia, 1931ko maiatzak 21.
76 AMILIBIA DE, Miguel. *La guerra civil española.* Buenos Aires: Centro Editor de America Latina, 1951. 16. Orr.
77 MUGARZA MEKOLALDE, Daniel. *El Decenio Crítico. La politica y la guerra en el Pais Vasco entre 1930 y 1942.* Oñati: Loroño, 1974. 122. orr.
78 HAINBATEN ARTEAN (Oktubre taldea). *Arrasate 1936. Belaunaldi Etena*. Donostia: Arabera Kultura taldea, 1987. 196. or.
79 *ABC*. 1936ko ekainak 10.
80 Eusko Jaularitzako Euskadiko Dokumentu Ondarearen Zentroa- Irargi (Irargi). Comisaria de Guerra de Bergara. Fondo PS Bilbao. Signatura: 66 biribilkia, 64 kaxa, 1 espedientea.
81 BUA 02 C/1573-06.
82 BUA 02 C/0073-74.
83 José Arana, Luis Belastegui, Jesús Larrañaga, Juan Garitano, José Gomez, José Mª Ugarte, Luis Igartua, Ignacio Berraondo, Enrique Tapken, Félix Aramburu, Félix Iñarra, Benito Eguren, Domingo Ugarte, Tómas Lamariano, Julián Echaniz eta Eulogio Zabaleta.
84 Irargi. Fondo Tribunal Popular de Euskadi,16/1937 sumarioa.
85 MIGUEL DE BARANDIARAN, José Miguel. *La Guerra Civil en Euzkadi. 136 testimonios inéditos*. Villafranque: Bidasoa, 2006. 697.orr.
86 Irargi. Guerra Civil, Serie Bilbao, Sección Político Social, caja 117.
87 Ondo Bihurtu artxiboa.
88 Irargi. Marcos Azcàrateri elkarrizketa, Colección Documentos Carlos Blasco Imaz. Signatura C02/04.
89 BUA 02 C/3151-01.
90 DE BARANDIARAN, José Miguel. *La Guerra Civil en Euzkadi. 136 testimonios inéditos*. Villafranque: Bidasoa, 2006. 697.orr.
91 BUA 02 C/1573-06.
92 BUA 07 C/1282. 14 orr.
93 BUA 02 C/0073-34.
94 Pedrotxo García Estévez-i elkarrizketa. Grenoble, 2010ko urtarrilak 7.
95 BUA 07 C/0666-002.
96 Eulogio Díez-i elkarrizketa.
97 Elena Luarizaristiri elkarrizketa.
98 Elena Luarizaristi: "*Arteche: Hilaturas de Osintxuko enpresa gizona; Otazua: Bonbulu tailerreko enpresa gizona; Elgarresta: Enpresa gizona harrobian; Zarauz: Algodonerako injinerua; Basterrechea Union Cerrajerako Labe Garaietako injinerua; SantaMaría: Labe Garaietako bulegoko langilea; Alústiza: Algodonerako elektrizista*".
99 BUA 02 C/0076-13.
100 Datua kalkulatzeko Bergarako udalaren webgunearen demografia garapenaren taulak erabili dira. Bertan aipatzen da 1930ean herriak 9.307 biztanle zituela eta 1940an 9.499. Beraz, kalkulu estimazioa 9.500 biztanleekin egin da. Ikus: http://www.bergara.net/Herria/Biztanleria/Eboluzioa1
101 BUA 02 C/2951.
102 16 urteko semea ere ihesi.
103 2, 9 eta 12 urteko semeak bere kargu.
104 Semea ere kanpoan.
105 2 alaba bere kargu.
106 5 eta 11 urteko bi semerekin.
107 3, 6 eta 9 urteko semeekin.
108 3 urteko semea bere kargu.
109 3, 6 eta 8 urteko semeekin.
110 3 eta 11 urteko semeekin.
111 3 eta 4 urteko semeekin.
112 6 eta 8 urteko semeekin.
113 2,4,6 eta 8 urteko semeekin.
114 5 urte eta 3 hilabeteko semeekin.
115 1 eta 3 urteko semeak bere kargu.
116 Asun Larrañagari elkarrizketa. 2013/11/17.
117 ama eta 5 anaia, 9,10,12 eta 19 urtekoak
118 lau anaia 2,6,10,12 urtekoak
119 zazpi anaia, 4,5,7,8,10,12 urtkeoak
120 7 eta 14 urteko anaiak
121 9 eta 17 urteko anaiak
122 Miren Lizarralderi elkarrizketa. 2013ko abenduaren 16an.
123 Ama eta hiru neba-arrebarekin bizi zen. Beste hiru herritik kanpo zeuden.
124 Hiru anaia herritik kanpo.
125 Anaia bat kanpoan.
126 Lau anaia kanpoan.
127 Hilaria Arizagari Elkarrizketa.
128 Txaro Zabalari Elkarrizketa.
129 BUA 02 C/0058 7at. 1936ko urriaren 10ean.
130 Gero Falange Tradicionalistaren egoitza izan zen.
131 Luis Aguirreri elkarrizketa. Bere aita lekukoa izan zenaren testigantzatik jasota.
132 Rafael Garmendiari elkarrizketa.
133 Luis Aguirreri elkarrizketa.
134 Ibid.

135 GARAI, Juan Ramon; MURGIZU, Josuren. *El buzo del fusilado.* Noticias de Gipuzkoa. 2011ko urriaren 20a.
136 BUA 02 C/0058 8au. 1936ko urriaren14an.
137 BUA 02 C/0058 16au.1936ko azaroaren 2an.
138 BUA 02 C/0058 21au.1936ko azaroaren 23an.
139 BUA 02 C/0058 26at.1936ko abenduaren 9an.
140 BUA 02 C/0058 28au.1936ko abenduaren 9an.
141 BUA 02 C/0058 28au. 1936ko abenduaren 9an.
142 BUA 02 C/0058 36au. 1937ko urtarrilaren 4an.
143 BUA 02 C/0058 36at. 1937ko urtarrilaren 4an.
144 BUA 02 C/0058 36au-36at-37au. 1936ko urtarrilaren 4an.
145 MIGUEL ALTUNA INSTITUTOA. *Bergarako Elementala. 75 urteko ibilbidea.* Bergara: udal agiritegia, 2003. 18. orr.
146 BUA 02 0/07334.
147 BIKUÑA AGUIRRE, Juan Luis. *Bergarako Batzokia.* Bergara: Sabino Arana Fundazioa-Bergarako Udala, 2004. 128-129 orr.
148 ERAÑA, Iñaki (Zuzendaria). *La Guerra en Gipuzkoa 1936.* Andoain: Aralar Liburuak, 1998. 292. orr.
149 Ondo Bihurtu artxiboa. 1939ko martxoaren 4an: "*Concedo autorización a Esperanza y Asunción que han regresado a esta villa desde Barcelona y son Desterradas fuera de la provincia de Guipuzcoa*". Luis Ruiz de la Pradak, Alcalde Delegado de Ordén Público bezala sinatzen du.
150 Periko Unamunori elkarrizketa. Norbertaren senarra zen Blas Unamuno Kanpazarren hil zuten, eta bere anaia Alfonso Donostian fusilatu.
151 Hilaria Arizagari elkarrizketa.
152 BUA 02 C/0058 262at. 1939ko apirilaren 17an.
153 Irargi. PS Santander L ENCEE, 3 biribilkia, 10 kaxa.
154 AIMNF. 15.629/37 kausa.
155 Maroto jeneral karlista izan zen, Espartero jeneral liberalarekin Bergarako hitzarmena sinatu zuena lehen guda karlistetan.
156 Pedrotxo Garcíari 2010eko urtarrilaren 7an egindako elkarrizketa, Grenoblen. Bergarako milizianoa, UHPko Hirugarren Konpainiakoa.
157 Bilbao, Inazio. Bergararra, UHPko Hirugarren Konpainiako milizianoa. Intxorta 1937 Kultur Elkartearen artxibategia.
158 Irargi. PS Santander.ENCEE 43 biribilkia, 23 kaxa, 1 txostena.
159 Irargi. Marcos Azcàrate Alberdiri elkarrizketa. Colección Documentos Carlos Blasco Imaz. Signatura C02/04.
160 Asun Larrañagari elkarrizketa.
161 Daniel Irizar Pardinari elkarrizketa.
162 Itziar Gabilondo Gorosabeli elkarrizketa.
163 MUGARZA MEKOLALDE, Daniel. *El Decenio Crítico. La politica y la guerra en el Pais Vasco entre 1930 y 1942.* Oñati: Loroño, 1974. 122 orr.
164 Daniel Mugarzaren egunerokoa, Ondo Bihurtu atxiboa.
165 Kapitaina.
166 Alfereza.
167 San Ignacio Tertzioa.
168 Cristo Rey Tertzioa.
169 Radio Requete.
170 BUA C/1026-01.
171 BUA 02 C/2731-01.
172 Julián Elorzaren senideak utzitako zerrenda.
173 Ibid.
174 Ibid.
175 Ibid.
176 Ibid.
177 BUA C/1026-01.
178 Hilda.
179 BUA 02C/2730-01. Jatorrizko dokumentuan horrela aipatzen dira: *Adicto* (Zalea), *Indiferente* (Hotza) eta *Desafecto* (Aurkakoak). Horiez gain *Encartado*ak (Auzipetuak) zeuden.
180 Xabier Amuriza bertsolariari elkarrizketa. Elgetan grabatua 2012ko urriaren 7an.
181 Marian Ormazábali elkarrizketa.
182 BUA 02 C/0058,69au-72au.
183 BUA 02 C/0068 -06.
184 NAGORE YARNOZ, Javier. *En la Primera de Navarra.* Madrid: Dyrsa, 1986.
185 Gerra Zibileko Artxiboa Avila, C-1975-14.
186 AGUIRRE, Iñigo. *Historia de la Cerrajera.* Bergarako Udal artxiboaren liburutegia.
187 DEOGRACIAS, Juan Antonio. *El Mundo Azul de Tavex.* Bilbo: Tavex edizioak, 1996. 91. orr.
188 BUA 07 C/0670 -004.
189 BUA 07 C/0689-004.
190 BUA 07 C/0689 -004.
191 BUA 02 C/0058 260au. 1939ko apirilaren 3an.
192 BUA 02 C/0058 267at. 1939ko maiatzaren 15ean.
193 BUA 02 C/0058 269at. 1939ko maiatzaren 31n.
194 BUA 02 C/0058 266au. 1939ko maiatzaren 15ean.
195 BUA 02 C/0058 283au-283at. 1939ko irailaren 6an.
196 BUA 02 C/0058 297at. 1939ko urriaren 30ean.

197 BUA 02 C/0058 294at. 1939ko urriaren 17an.
198 BUA 02 C/0058 294au. 1939ko urriaren 17an.
199 BUA 02 C/0058 294au. 1939ko urriaren 17an.
200 BUA Udal Osoko Bilkuraren Akta. 2003 maiatzaren 23an.

# 4

# GERRA ONDORIOAK

Bergarako Udal artxiboa

## 4.1. Gerrak utzitako heriotza

1936ko irailaren 22an matxinatuak sartu zirenetik, eta 1937ko apirilaren 24ra arte, Elgeta eta Intxorta mendiak erori arte, Bergaran gerra hotsa etengabekoa izan zen.

Gerraren ondorioak oso larri, mingarri eta beldurgarriak izan ziren, eta horrek eragin izugarria izan zuen garai hura bizi izan zutenengan, baita horien ondorengoengan ere.

Bergarar guztiek jasan behar izan zituzten gerraren sufrimenduak, baina gogorren pasa zutenak 2.403 izan ziren. Horietatik 177 hildako, 288 preso, errepresio desberdina jasan zuten 127 (depurazioak, ile-mozketak, ondasunen lapurretak), 1.111 iheslari, gerra-lerroan ibilitako 700, lanetik bidalitako langileak… Kontuan izanda Bergarako biztanleak 9.307 zirela, % 26k pairatu zituzten egoera horiek. Gainera, esan behar da lan honetan aurkezten diren zerrenda gehienak behin-behinekoak dira.

Gerra garaian eta gerra ostean ehunka bergarar izan ziren errepresaliatuak. Kontuan izan behar dugu "Estado de Guerra" delakoak 1948. urtera arte iraun zuela. Errepresaliatu horiei, gainera, gerran bizia galdu zuten bergarararrak batu behar zaizkie. Dokumentazio historikoan aurkitutakoari esker, badakigu herriko seme askok odola isuri zutela zentzu gabeko gerra honen eraginez. Dagoeneko 177 hildako zenbatu dira. Horietako 18k exekuzio-zigorra jaso zuten; 17 errepublikazalek eta matxinatu batek, hain zuzen ere.

Fusilatuez gain, errepublikaren alde borrokatu zuten beste 71 bergarar hil zituzten: 56 gerrako frontean, 6 herritik ihes egin ondoren eta hainbat bonbardaketatan, 7 presondegietan, eta 2 presondegietako gaixotasunen ondorioz etxean hil zirenak. Beste 4 heriotza suertatu ziren aparteko kasuengatik. Beste 3 heriotza ere izan ziren, ezezagunak zaizkigun arrazoiengatik. Azken hauek ez ziren bergarararrak.

Matxinatuek ere hildakoak izan zituzten: 22 errekete, 38 soldadu eta falangista bat. Gatazka armatu gehienetan gertatzen den bezala, Bergarako 25 zibilek ere bizia galdu zuten 36ko Gerran. Gatazkak ez zuen sexuen arteko ezberdintasunik egin, bonbardaketetan hil ziren errepublikazaleen arteko 3 emakumeak zirelako, eta baita zibilen artean hildako 12 herritar ere.

| **Errepublikazaleen hildakoak** | | **Matxinatuen hildakoak** | | **Hildako zibilak** | |
|---|---|---|---|---|---|
| Fusilatuta | 17 | Erreketeak | 22 | | |
| Frontean | 56 | Soldaduak | 37 | | |
| Bonbardaketetan | 6 | Falangistak | 1 | | |
| Preso | 7 | | | | |
| Gaixo | 2 | | | | |
| Bestela | 4 | | | | |
| Kanpoko presoak | 3 | | | | |
| Guztira | 95 | Guztira | 60 | Guztira | 25 |

Matxinatuek Bergara hartu ostean, zibil hauek epaitu gabe fusilatu zituzten.

**MATXINATUEK FUSILATUTAKO ZIBILAK**

| | **Izena** | **Fusilatutako herria** | **Eguna** |
|---|---|---|---|
| 1 | Saturnino Rementería Andonegi [201] | Donostia | 1936/09/24 |
| 2 | Ricardo Zanguitu Oregui | Osintxu | 1936/10/20 |
| 3 | Tomás Iñarra Aguirre [202] | Osintxu | 1936/10/20 |
| 4 | Ildefonso Iñarra Aguirre [203] | Osintxu | 1936/10/20 |
| 5 | Rufino Aquizu Albistegui | Osintxu | 1936/10/20 |
| 6 | Jose Garaycoechea Arriaran [204] | Osintxu | 1936/10/20 |
| 7 | Faustino Garitano Ascasibar [205] | Oiartzun | 1936/11/05 |
| 8 | Francisca Oyanguren Iribecampos [206] | Oiartzun | 1936/11/05 |

Bergarako Udal artxiboa

| | | | |
|---|---|---|---|
| 9 | Andrés Alberdi Astigarraga [207] | Angiozar | 1936/10/07 |
| 10 | Gregorio Larrañaga Aranzabal [208] | Desagertua | |
| 11 | Antonio Galdós Ugarte [209] | Ormaiztegui | |

Gerran errepublikaren alde borrokatzen atxilotuak izan zirenak batzuk epaituta eta beste batzuk epaitu gabe hil zituzten.

**PRESOAK ETA GERO MATXINATUEK FUSILATUTAKOAK**

| | Izena |
|---|---|
| 1 | Antonio Gonzalez Olayo [210] |
| 2 | Alfonso Ezpeleta Leturia [211] |
| 3 | Jesus Ganchegui Barrutia [212] |
| 4 | Pedro Miguel San Miguel Lozano [213] |
| 5 | Juan Nazabal Arana [214] |
| 6 | Felix Torres Ezpeleta [215] |

Errepublikaren aldekoek pertsona bat hil zuten Bergaran, antzuolarra bera.

**ERREPUBLIKARREK FUSILATUTAKOA**

| | Izena | Fusilatutako herria | Eguna |
|---|---|---|---|
| 1 | Pedro Telleria[216] | Bergara | 1936/09/21 |

Frontean hil zituzten bergarar errepublikazaleak:

**GERRAKO FRONTEAN HILDAKOAK**

| | Izena | Hildako herria | Eguna |
|---|---|---|---|
| 1 | Andres Larrañaga [217] | Durango | 1937/03/31 |
| 2 | Florencio Estevez Paredes [218] | Puente Viesgo | |
| 3 | Bernardo Gómez Ochoa [219] | Gandesa | |
| 4 | Crescencio Lopez Egido [220] | Donostia | 1936/07 |
| 5 | Hilario Bilbao Bagazgoitia [221] | Gernika | 1937/02/01 |
| 6 | Teodoro Martinez Arrese [222] | Zornotza | 1937/05/14 |
| 7 | Jesus Uriarte Jauregui | Elorrio | 1937/04/22 |
| 8 | Ulpiano Rubio Miguel [223] | Usera | 1938/09/08 |
| 9 | Carmelo Gabilondo Gabilondo [224] | Desagertua | |
| 10 | Urbina [225] | Maroto | |
| 11 | Vicente Arambarri Villa [226] | | |
| 12 | Román Igarza Lasa [227] | Larrabetzu | 1937/06/17 |
| 13 | Toribio Orueta Igarza [228] | Durango | |
| 14 | Glorioso Elgarresta [229] | | |
| 15 | Florencio Aguirre Ceciaga [230] | | |
| 16 | Urbano Calvo [231] | Gernika | 1937/04/26 |
| 17 | Martin Oxinalde Elorriaga [232] | Zornotza | |
| 18 | Juan Lascurain Cortabarria [233] | Durango | |
| 19 | Sabin Garitagoitia Larrañaga [234] | Otxandio | |
| 20 | Jose Lete Aranguren [235] | Legutiano | 1937/04/04 |
| 21 | Inocencio Gárate Beristain [236] | Donostia | |
| 22 | Miguel Mendizábal [237] | Bilbo | |
| 23 | Antolín Bengoechea Oregui [238] | Bilbo | 1936/11/30 |
| 24 | Esteban Altuna Narbaiza [239] | Bizkargi | 1937/05/20 |
| 25 | Bernandino Barrenechea Larrañaga [240] | Mungia | 1937/05/21 |
| 26 | Lorenzo Epelde Badiola | Ubide | 1937/04/03 |
| 27 | Jose Maria Jauregui Inchausti [241] | Otxandio | 1937/03/31 |
| 28 | Juan Larrañaga Urcelay [242] | Legutiano | 1937/04/04 |
| 29 | Emilio Mugica Gorrochategui[243] | Otxandio | 1937/03/31 |
| 30 | Luis Fernandez Sodupe[244] | Markina | |
| 31 | Jose Mugica Gordoa | Loyola | |
| 32 | Luis Elorza Zabaleta(Koldobika) [245] | Legutiano | 1936/11/11 |
| 33 | Ubaldo Lamberri Goizueta [246] | Otxandio | 1937/04/04 |
| 34 | Enrique Gastañares [247] | Otxandio | 1937/04/04 |
| 35 | Marcos Arregui Aranceta [248] | Otxandio | 1937/04/04 |
| 36 | Manuel Larrañaga | Iurre | 1937/06/15 |
| 37 | Basilio Elorza | Iurre | 1937/06/15 |
| 38 | Nicasio Letamendia | Iurre | 1937/06/15 |
| 39 | Felipe Elorza Hériz [249] | Elgeta | 1937/04/22 |
| 40 | Blas Unamuno Amuchastegui [250] | Elorrio | 1937/04/24 |

| | | | |
|---|---|---|---|
| 41 | Jose Maria Ambroy Pacheco [251] | Gijon | 1937/08/26 |
| 42 | Ramon Ezpeleta Telleria [252] | Iruña | 1937/07/27 |
| 43 | Jose Villar Diez [253] | | 1937/04/19 |
| 44 | Ángel Gardoqui Eguren [254] | | 1937/06/01 |
| 45 | Marcos Erostarbe Echeverria | Eibar | 1937/04/25 |
| 46 | Policarpo Iraeta San Vicente | | 1937/07/23 |
| 47 | Nicasio Letamendia | Larragorri | 1937/04/04 |
| 48 | Jose Arratibel Urretavizcaya | Bilbo | |
| 49 | Lasa [255] | Maroto | |
| 50 | Martin Mozo Bacaicoa [256] | Desagertua | |
| 51 | Ramon Zabaleta [257] | | |
| 52 | Aniceto Gabilondo [258] | | |
| 53 | Juan Ganchegui Azcargorta [259] | Desagertua | |
| 54 | Hilario Durana [260] | | |
| 55 | Guillermo Albistegui Arriaran | Bilbo | 1937/02/05 |
| 56 | Luis Larrañaga Aguirrezabal | Lemoan | 1937 |

Bergaratik ihesi joandakoen artean, matxinoen bonbardaketetan hil zituzten zibilak:

**MATXINATUEN BONBARDAKETETAN HILDAKOAK**

| | Izena | Hildako herria | Eguna |
|---|---|---|---|
| 1 | Jesusa Mecolay Narvaiza [261] | Bilbo | 1936/09/25 |
| 2 | Juana Barrutia Gallastegui [262] | Durango | 1937/03/31 |
| 3 | Leonardo Amenabar [263] | Durango | 1937/03/31 |
| 4 | Iñaki Amenabar Gallastegui [264] | Durango | 1937/03/31 |
| 5 | Felipe San Miguel Oregui [265] | Durango | 1937/03/31 |
| 6 | Eulalia Izarra [266] | Ampuero | |

Matxinoen espetxeetan hildakoak. Bat Alemanian, nazien Dachau esparruan.

**PRESO HILDAKOAK**

| | Izena | Hildako herria |
|---|---|---|
| 1 | Federico Mugica Damborenea [267] | Gijon |
| 2 | Pedro Reglero Rodriguez [268] | |
| 3 | Juan Jose Iñarra Lazpiur [269] | |
| 4 | Pedro Jose Axpe Sagasta [270] | Dachau |
| 5 | Sebas Lasagabaster Echevarria [271] | Gurs |
| 6 | Justo Elorriaga Yabar [272] | Vigo |
| 7 | Francisco Martinez Arrese [273] | Teruel |

Espetxetik tuberkulosiak jota irten eta hilabete gutxira hil zirenak.

**HILDAKO PRESO GAIXOAK**

| | Izena |
|---|---|
| 1 | Emilio Garcia Moreno [274] |
| 2 | Pablo Uriarte Jauregui [275] |

Matxinatuek frontean preso hartutakoak. Bergaraz kanpoko hauek ere hil zituzten.

**HILDAKO KANPOKO PRESOAK**

| | Izena |
|---|---|
| 1 | Francisco Oslegartia [276] |
| 2 | Manuel Perez Zapico [277] |
| 3 | Andres Grávalos Otermin [278] |

Beste lau heriotza ere egon ziren, laurak errepublikazaleen aldekoak. Horietako bi gerran parte hartutako UHP eta Loyola batailoietakoak. Beste biak zibilak ziren.

**Ramon Gabilondo San Martin**, 30 urte, UGT sindikatuko lehendakaria eta UHPko milizianoa. "*Santoñan preso hartu zuten eta*

Bergarako Udal artxiboa

*paliza haundiak eman zizkioten, etxera etorrita bere buruarekin beste egin zuela esan zuten, leihotik bota zela 1938ko irailaren 4an. Baina forense medikoak askotan esan zion nere senarrari —— gorputza ezin zela egon agertu zan bezela, berak pentsatzen zuela Guardia Zibilek bultzatu zutela*"[279].

**Bonifacia Lugarizaristi,** 36 urte, 1939ko otsailaren 5ean militar batzuek kotxe batekin Ozaetan harrapatu eta hil zuten[280].

**Juan Larrea La Cruz**, Labegaraietako langilea, Santa Agedako errepidean hilda agertu zen. 23 urte zituen eta Bergaratik joanda zegoen matxinatuak sartu baino lehen[281].

**Agustin Unzurrunzaga Lazpiur**, Loyola batailoiko tenientea izandakoa. 33 urte zituela, 1947ko maiatzaren 7an, Donostian Guardia Zibilak preso zeramala tranbia azpira bota zen. "*Bere buruarekin beste egin auen. Agustinek esan eutzan ez auela gura lagunak galtzia, gurago auela bizia galtzie berba eittie baño. Nire andriai egixa esan, familixia esperuan dau, jakin daixela lagunak ez galtziarren tranbiara bota nazela*"[282].

Diario Vascok maiatzaren 8an "*Intento de Suicidio*" izenburua publikatu zuen. Egun berean *La Voz de España*k "*Intento de Fuga*" titulatu zuen.

Bergaran 25 zibil hil zituzten 7 hilabetean. Heriotza horietako asko lantegien aurka edo tropak elkartzeko guneen aurka matxinatuek Elgetatik burututako bonbardaketetan gertatu ziren. Aipamen berezia merezi du San Antonioko Algodonerak 1937ko apirilaren 15ean jasan zuen bonbardaketak, egun hartan 9 emakume hil baitziren. Egun hori, aurretik aipatu den bezala, Elgetako erasoa hasteko aukeratutako eguna zen. Heriotza-unean, bederatzi emakume horietako zortzik Burgosko Intendentziarako arropa kakia egiten ziharduten. Jokin Inzaren ama, Paulina Garmendia Velar, hildako bat izan zen. "*Unos disparos de obús lanzada por los gudaris desde una batería sita en Elgeta impactó en la Algodonera San Antonio. Ello produjo la muerte instantánea de varias operarias y ocasionó heridas graves a su amatxo, murió en el hospital militar en el palacio del conde Goiko Kondia*"[283].

Herrian izandako bonbardaketa ankerrek eragindako biktima ugarirengatik, alkateak udalbatzaren atsekabe handia aktan jasotzea proposatu zuen[284].




**Bergarako firma liburua. Francok eta bere emazteak 1939ko urriaren 17an sinatuta.**
*BUA, 02 C/0935-05*

**BERGARAKO HILDAKO ZIBILAK**

| | **Izena** |
|---|---|
| 1 | Dolores Arregui Arrinda [285] |
| 2 | Maria Valenciaga Jauregui [286] |
| 3 | Irene Juaristi Aramburu [287] |
| 4 | Cecilia Goitia Arocena [288] |
| 5 | Eusebia Guridi Erostarbe [289] |
| 6 | Juana Guenechea Aranzabal [290] |
| 7 | Paulina Garmendia Belar |
| 8 | Clara San Martin |
| 9 | Lucia Loiti Aguirre [291] |
| 10 | Prudencio Portu Uzrraga [292] |
| 11 | Juan Olañeta Ascasibar [293] |
| 12 | Tomás Arregui Echave [294] |
| 13 | Gregorio Arana Berastegui [295] |
| 14 | Josefa Pildaín Mugerza [296] |
| 15 | Pedro Arregui Garay [297] |
| 16 | Felix Iturrino Igarza [298] |
| 17 | Damián Mendizábal Belar [299] |
| 18 | Vicenta Zubia Eguren [300] |
| 19 | Jose Garay Elorza [301] |
| 20 | Jose Manuel Lete Mugica [302] |
| 21 | Juan Echeverria Puertas [303] |
| 22 | Juliana Igarza [304] |
| 23 | Francisco Urcelay Suinaga [305] |
| 24 | Luis Lascuráin Gallastegui [306] |
| 25 | Jose Luis Beitia Oyarbide [307] |

Bergaran, 36ko Gerraren biktima batzuek omenaldi publikoa izan zuten. Matxinatuekin batera hildakoak baten baino gehiagotan izan ziren omenduak. Luis Ruiz de la Prada alkateak herriko matxinatuak behin baino gehiagotan omendu zituen; "San Martin de Aguirre" errekete-konpainiatik hasita[308], alderdi hartako azken hildakora arte: "*construir una gran cruz adosada a los muros de la iglesia parroquial de San Pedro en memoria de los caídos en la gloriosa cruzada de España, disponiéndose también a este efecto la confección del correspondiente presupuesto de gastos" [309]*.

**GERRAN HILDAKO ERREKETE BERGARARRAK[310]**

| | | | |
|---|---|---|---|
| 1 | Pedro Ojanguren Aranzabal | 12 | Manuel Ascasibar Alberdi |
| 2 | Cirilo Ruiz Garay [311] | 13 | Pedro Igartua Lazcano |
| 3 | Alejandro Ayerdi Ariznabarreta | 14 | Cesareo Eguren Macazaga |
| 4 | Victoriano Gallastegui Lamarain [312] | 15 | Jose Barrutia Zabaleta |
| 5 | Ignacio Pildaín San Miguel [313] | 16 | Roque Larrañaga Guisasola[314] |
| 6 | Tomás Ojanguren Larrañaga [315] | 17 | Gregorio Mugica Unamuno |
| 7 | Simon Portu Biain | 18 | Teodoro Unamuno Arizabaleta |
| 8 | Felipe Garmendia Eguren | 19 | Pedro Maortua Lamarain |
| 9 | Joaquín Osinaga Aguirre[316] | 20 | Ramon Garitano Elcoro[317] |
| 10 | Pedro Elorza Anduaga | 21 | Francisco Gallastegui |
| 11 | Alejandro Luarisayerdi Ariznabarreta | | |

Kintak harrapatutako soldaduei dagokienez, 38 izen ageri dira *"Los Otros Nombres"* izeneko zerrenda batean"[318]. Guk horietatik jarraian datozen 17 lehenak Bergarako Udaleko artxiboan aurkitu ditugunak ezarri ditugu[319], besteak konfirmatzeko baitaude.

| | |
|---|---|
| Cipriano Ayastuy Iturbe | Lorenzo Larrañaga Lascurain |
| Alejandro Ayerdi Ariznabarreta | Raimundo Larrasquitu Sesma |
| Jose Arocena Larrañaga | Sabino Mugica Barrenechea Arando |
| Valentín Barrenechea Arando | Jeronimo Orbe Irureta |
| Jose Maria Bergareche Urrutia | Domingo Ormazábal Amézaga |
| Jose Caballero Iturriaga | Jose Unamuno Araiztegui |
| Victor Celaya Salsamendi | Eugenio Uriarte Aguirregaviria |
| Martin Gaztelu Olaso | Martin Zanguitu Larreategui |
| Rufino Gallastegui Azcarate | |

Bergarako Udal artxiboa

Konfirmatu gabeko 21ak, berriz:

| | |
|---|---|
| Julian Albizu Gaztañondo | Agustin Iribecampos Garayzabal |
| Hilario Aranzabal Lascurain | Lorenzo Iturbe Luaristi |
| Jose Maria Arocena Arriaran | Eduardo Larrañaga Errotegui |
| Martin Arregui Lamariano | Pedro Lizarralde Elorza |
| Antonio Barrutia Ecenarro | Jose Maria Muruamendiaraz Alberdi |
| Jose Maria Dorronsoro Artola | Melchor Muruamendiaraz Muruamendiaraz |
| Felipe Echeverria Lazpiur | Juan Ojanguren Cortabarría |
| Juan Jose Egaña Soraluce | Jesus Peñalba Maortua |
| Jose Elcoroiribe Maiztegui | Casiano Zanguitu Gallastegui |
| Miguel Galdós Mascariano | Valentín Iribecampos Aranzabal |
| Marcelino Gallastegui Zabaleta | |

## 4.2. Kartzela eta heriotza-zigorrak

Edozein gerrak gizakiok ditugun eskubide guztiak suntsitzen ditu. Bat-batean pentsamendu, kontzientzia, erlijio, adierazpen eta prentsa askatasunak bertan behera gelditzen dira, eta alderdi bakoitzak bere ideologiarekin bat egiten ez duena erasotzen du. Bergaran, ehundaka atxilotu egon ziren gerra-denboran. Batzuk etxera bueltatu ziren; beste batzuk, ordea, zigor gogorrak jasan zituzten.

Ondokoari bizitza kentzea da gatazka horrek eragin dezakeen erasorik larriena. Baina heriotzaz aparte, beste errepresio-bide andana existitzen da. Guztira 285 bergararrek bizia ez zen beste oinarrizko eskubide bat galdu zuten, askatasunarena hain zuzen ere. Errepublikaren aldeko 250 pertsona espetxeratu zituzten. Horietatik 56k langile-batailoietan esklabotza-egoera bizi izan zuten. Karlisten Aldekoak ere espetxeratuak izan ziren gerraren hasieran, 40 alajaina[320].

**ESPETXERATUAK**

| | |
|---|---|
| Errepublikaren Aldekoak | 250 |
| Karlistak | 40 |
| Guztira | 290 |

Matxinatuen altxamenduaren ondoren, Espainiako Defentsa Nazionaleko Batzordea eratu zen Burgosen. Erakunde horrek 1936ko uztailaren 30ean onartu zuen Bandoaren bitartez, Gerra Egoera ezarri zen Espainiako lurralde osoan. Eta matxinada, sedizio, atentatu eta arrazoi politikoengatik edo sozialengatik pertsonen eta jabetzaren aurka egindako delituak prozedura "sumarisimo" baten bidez bideratuko zirela onartu zen [321].

Matxinatu, sediziogile eta traidoretzat hartzen ziren legez eratutako Errepublikako Gobernuari lagunduko zioten guztiak, eta benetan matxinatu zirenak ziren epaileak.

Iparreko frontea konkistatzean, milaka miliziano eta gudari hartu zituzten preso, horietariko asko Santoñan. *Comisión Clasificadora de Prisioneros* izenekoa sortu zuten eta herri guztietako alkateei eskaera hau egin zieten: "[…]*Ruego a V.S. se remitan informes detallados sobre actuación política-social de prisioneros. Este informe con los datos que le consten y de los que pueda recabar de las Autoridades Civiles y Eclesiásticas, Guardia Civil y Jefes y Presidentes de Entidades patrióticas y de personas de reconocida solvencia moral y de acendrado amor a España"* [322].

Herri guztietako alkate, erretore, karlista, falange, lantegi eta Guardia Zibilak preso bakoitzaren txostenak bidaltzen zituzten, eta gaur egun Bergarako udal artxiboan ehundaka mantentzen dira [323].

Miliziano eta gudari ibilitako gehienek kartzelak eta langile-batailoiak ezagutu zituzten, eta urte asko igaro zuten batetik bestera. Baina ez zegoen borroka-lerroan ibili beharrik kartzelara joateko, nahikoa izaten zen aurkari baten iritzia jasotzea. Behin txostenak *Comisión Clasificadora* izenekora heltzean, sailkatu egiten ziren. Batzuk berehala izaten ziren auziperatuak; beste batzuk Langile Batailoietara bidaltzen zituzten zuzenean; beste asko, berriz, kintak harrapatuta, gerra-eremura zihoazen matxinatuekin. Oso aipagarria da borrokara bidalitako batzuen jarrera, matxinatuen armadatik desertatu eta errepublikarren alderdira pasatu baitziren, eta Nikolas Larrañaga izan zen horietako bat.

Orain arte aurkitutako datuen arabera, Bergarako 35 herritar izan ziren epaitu eta kondenatuak. Heriotza-zigorra 15i ezarri zitzaien, eta horietako 4 fusilatu zituzten. Beste 9 pertsonari 30 urte eta egun bateko kartzela zigorra egotzi zitzaien, eta sei urtetik gorakoa beste 10i.

Gurseko eremutik eta Langile Batailoietatik ehundaka herritar pasatu ziren. Ikerlan honi esker, 282 bergarar zenbatu dira.

Arestian aipatu dira nortzuk ziren herriko salatariak. Haien hitz eta idatziei esker, kontrako alderdiko herritarrak atxilotuak, epaituak eta, azkenik, fusilatuak izaten ziren.

Aipatzekoa da Luis Ruiz de la Prada alkatearen jarrera. Behin baino gehiagotan bera izan baitzen salataririk eraginkorrena. Alkateak 1937ko irailaren 24an bidalitako txosten batean hau irakurri daiteke: *"Al Coronel Regimiento América nº 23. Enterada esta Alcaldía de que Félix Torres Ezpeleta se encuentra incorporado a ese Regimiento, comunícole que tuvo participación activísima contra el Movimiento Nacional, distinguiéndose como militante y propagandista partidos extrema izquierda"* [324]

Lan honi esker jakin ahalko dugu zeintzuk izan ziren 36ko Gerran galtzaile irten ziren Bergarako bizilagunak.

Lehen zerrendan, heriotza-zigorra tartean, fusilamentua jaso zuten herritarrak ageri dira.

**HERIOTZA-ZIGORRA**

1. Pedro Miguel San Miguel Lozano [325]
2. Antonio Gonzalez Olayo [326]
3. Felix Torres Ezpeleta [327]
4. Alfonso Ezpeleta Leturia [328]

**HERIOTZA-ZIGORRETIK 30 URTE + EGUN BATERA**

1. Pedro Yarza Maiztegui[329]
2. Ignacio Unceta Urquizu
3. Luis Ormazábal Gabilondo
5. Jose Mugica Arana
6. Manuel Mugica Zubedia
7. Lino Lazcano Leturia
8. Ramon Jauregui Idigoras
9. Marcos Azcarate Alberdi [330]
10. Jesus Ganchegui Barrutia
11. Federico Mugica Damborenea

**30 URTE + EGUN 1**

1. Jose Altuna Garitano
2. Marcelino Elorza Ezpeleta
3. Ángel Lazcano Leturia [331]
4. Jacinto Osa Unanue
5. Aniceto Retegui Aranes [332]
6. Eustasio Urbieta Alberdi
7. Juan Barros Arredondo
8. Jose Yarza Maiztegui
9. Luis Aguirre Bergara, abadea [333]

Bergarako Udal artxiboa

**20 URTE + EGUN 1**

1. Antonio Urcelay Guridi, 25 urte

**12 URTE + EGUN 1**

1. Agustin Unzurrunzaga Lazpiur
2. Evaristo Mazurriaga
3. Marcos Lazpiur Elcoro
4. Domingo Jauregui Zubia
5. Julian Ecenarro Bengoa
6. Javier Berroya Laborda
7. Pascasio Alberdi Lascuraín
8. Pablo Arizabaleta Zabaleta [334]

**6 URTE + EGUN 1**

1. Andres Aramburu Zabaleta
2. Pedro Azpiazu Goñi

Dokumentazio eta elkarrizketen arabera jakin da zeintzuk ziren kartzelan egon ziren bergararrak. Beste alde batetik, ezin izan da kalkulatu pertsona horiek kartzelan eman zuten denbora.

**KARTZELAN ZEHAZTUGABEKO DENBORA**

| | Presoa | Espetxea |
|---|---|---|
| 1 | Norberta Ezpeleta Leturia[335] | Ondarreta |
| 2 | Antonio Larrañaga Elcoroiribe [336] | |
| 3 | Juan Arrieta Irazabal | |
| 4 | Juan Ormaechea Idigoras | |
| 5 | Antonio Moreno Garcia [337] | |
| 6 | Francisco Beascochea Gecho | |
| 7 | Manuel Mugica Zubeldia | |
| 8 | Jose Manuel Idarreta Sañudo [338] | Puerto de Santamaría |
| 9 | Pedro Mugica Gallastegui [339] | |
| 10 | Vicente Aranzabal Arceluz [340] | Ondarreta |
| 11 | Joaquín Mugica Larrañaga | |
| 12 | Bernandino Torres Jaen | |
| 13 | Paulo Lazpiur Egaña | |
| 14 | Eutimio Palomero Escobar | |
| 15 | Damián Alarcia Calvo | |
| 16 | Diego Aguirre Ascargorta | |
| 17 | Benito Aguirrebeña Zulaica | |
| 18 | Luis Aramberri Usuriaga | |
| 19 | Florentino Bueno Pildaín | |
| 20 | Francisco Ciarsolo Alberdi [341] | |
| 21 | Justo Idigoras Urizar [342] | |
| 22 | Jacinto Lopez Arechaga [343] | Santoña |
| 23 | Eusebio Lopez Repiso [344] | |
| 24 | Manuel Longa Martinez [345] | |
| 26 | Carmelo Salazar Cenitagoya | |
| 27 | Emilio Garcia Moreno | |
| 28 | Silvio Garcia Rebolleda [346] | Larrinaga eta Puerto de Santamaría |
| 29 | Marcelino Echevarria Galdós [347] | |
| 30 | Juan Urcelay [348] | |
| 31 | Eusebio Gallastegui | |
| 32 | Domingo Aguirre | |
| 33 | Policarpo Pildaín Ganchegui | Santoña |
| 34 | Jose Larrañaga Arrieta | Santoña |
| 35 | Antonio Nuin Luengo [349] | Seminario de Corbán |
| 36 | Demetrio Manso Paredes [350] | Universidad de Deusto |
| 37 | Jose Galarreta Telleria [351] | Universidad de Deusto |
| 38 | Cruz Echániz Lasa [352] | Universidad de Deusto |
| 39 | Domingo Arregui Mugica [353] | Universidad de Deusto |
| 40 | Rufino Ezpeleta Emparanza [354] | |
| 41 | Placido Gallastegui Chinchurreta [355] | Santoña |
| 42 | Melchor Espinosa Lecanda [356] | Ondarreta |
| 43 | Andres Aguirre Cortabarria | San Pedro de Cardeña |
| 44 | Isidro Azcarate Elcoro [357] | Burgos |
| 45 | Felix Aranzabal Guridi [358] | Seminario de Corbán |
| 46 | Julian Azcàrate Elcoro | Escolapioseko espetxea Bilbon |

Bergarako Udal artxiboa

47 Paulino Estevez Ramos [359]
48 Domingo Alberdi Lazpiur [360]
49 Serapio Ilarduya Echeverria [361]
50 Pedro Ilarduya Echeverria[362]
51 Leon Sanchez Fernandez [363]
52 Pablo Uriarte Jauregui [364]
53 Claudio de Castro Mota [365]
54 Mateo Iriondo Egaña
55 Jose Maria Ceciaga Ezcurra
56 Miguel Epelde Dolara
57 Joaquín Echeverria Olea
58 Castor Fernandez Garcia
59 Victor Gabilondo Gabilondo
60 Ramon Gabilondo San Martin
61 Ricardo Galdós Arana
62 Bernardo Ganchegui
63 Manuel Ganchegui Urisabel
64 Placida Garcia Jimenez
65 Jesus Gonzalez Lizarralde
66 Julio Gonzalez Lizarralde
67 Leandro Gonzalez Lizarralde
68 Vicente Gonzalez Lizarralde
69 Juan Guridi Urquiola
70 Agustin Iñarra [366]
71 Tómas Gallego [367]
72 Joaquín Villeras
73 Aquilino Sanchez
74 Marino Manso
75 Santiago Zárate
76 Domingo Marcó Goya
77 Juan Jose Aguirrezabal
78 Leocadio Ecenarro
79 Julian Aramburu Azurmendi [368] Ondarreta
80 Teodoro Narvaiza Orbe [369]
81 Prudencio Gabilondo Gabilondo [370] Larrinaga
82 Victor Ibaizabal Echeverria
83 Francisco Ibarreche Ibarra
84 Miguel Semperena Aramburu
85 Santiago Urcelay Guridi
86 Juan Sanchez Lacue A Coruña
87 Luis Zabala Garay [371]
88 Eustaquio Aguirrolea
89 Gracián Aguirre
90 Eustaquio Aguirre
91 Marcos Mugica
92 Martin Ezpeleta
93 Jose Maria Azcàrate
94 Francisco Azcargorta “Patxi”
95 Francisco Ceciaga “Patxi”
96 Sebastian Saizar
97 Redondo
98 Martin de Ipitza
99 Jose Beitia Beitia
100 Juan Maria Zaitegui
101 Ángela Ariznabarreta
102 Antonio Arriola [372]
103 Lorenzo Juaristi Ganchegui [373] Caceres
104 Pedro Zabala Garay [374]
105 Ana Chinchurreta
106 Vicente Migura
107 Narciso Beguiristáin Aramburu
108 Román Lizarralde Ezpeleta
109 Ramon Farrás
110 Francisco Unzurrunzaga Lazpiur

“Ana Chinchurreta Ondarretan espetxeratu zuten, bere senarraren ordez. Damian Arana senarra atxilotzera joan zirenean bihotzeko infartuarekin zegoelako, emaztea eraman zuten”[375].

Vicente Migurak esana: “*Herritik alde egin nuen eta Monzónen*

Bergarako Udal artxiboa

*anaiarekin gidari ibili nintzen, preso harrapatu ninduten arte”* [376]. Isidoro Monzón zapadoreen buruzagia izan zen.

*“Gure aita, Narciso Begiristain Aramburu, kartzelan zegoen erbestetik etorri ginenean”* [377]. “Nere anaia Román Belgikatik etorri zenean espetxeratu zuten” [378].

*“Cuando mi padre, Ramón Farrás, pasó el año 1940 desde Francia a Catalunya le detuvieron y le ingresaron en la cárcel Modelo de Barcelona”* [379].

#### 4.2.1. Gurseko eremua

Gurs, Frantziako *Pyrénées-Atlantiques* departamenduan dago, Pau hiritik 50 km-ra, Olorue eta Maule artean. Frantziara milaka euskal errefuxiatu iritsi zirenetik, eta besteak beste Argeles-Sur-Mer, Saint Cyprien, Barcares eta Septfonds-eko eremuetan sartu zituztenetik, Eusko Jaurlaritzak Euskal Errefuxiatuen aldeko Batzorde bat sortu zuen; asmoen artean, euskaldun guztiak eremu berean biltzea zen. Eremu hori Gürs-en eraiki zuten, 1939ko martxo eta apiril bitartean. Gürs-eko eremuan 19.000 pertsona pilatu zituzten; 4.700 euskaldunak, A, B, C eta D esparruak hartzen zituztelarik [380].

Esparru horretan, Euskal Herritik ihes egindako herritarrei aterpe emateko eremua sortu zen, baina handik gutxira Frantziako kontzentrazio-esparrurik handiena bilakatu zen.

Guztira 38 bergarar zenbatu dira Gursen bahituta.

**GURSEKO BERGARARRAK**

| | Izena | Taldea |
|---|---|---|
| 1 | Ceferino Aguiriano Errasti [381] | STV |
| 2 | Genaro Albizua Ecenarro [382] | PNV |
| 3 | Esteban Aranguren Mugica [383] | STV |
